











N-500009349

ZRV  
3384

SACRAMENTU

CHIT SANTUARI

ETA

MARIA GUCIZ SANTARI

ILLAREN EGUN GUCIETARACO ICUSALDI EDO

BISITAC.

San Alfonso Ligorioc

EGUIN ZUENETIC

DON GREGORIO ARRUEC

EUSQUERARA ITZULIA.

GAÑERA GUEITZEN ZAIZCA

AITA SAN JOSE R

EGUN ORO EGUTECO BISITAC,

NOLA TA CONFESIO ETA COMUNIO-AURRERACO PRESTAERAC  
eta ondoren esquerrac emateco eta Meza san-  
tua ondo enzuteco modua, eta Jesus Sacra-  
mentatuari bederatziurren  
edo nobena.

~~~~~  
Obispo Jaunaren baimenarequiñ.  
~~~~~

TOLOSAN.

PEDRO GURRUCHAGAREN MOLDIZTEGUIAN.

1886-garren urtean.



Liburu onec jabea badu, eta o-  
nen baimen gabe inore moldizqui-  
datzen badu, oquerrac zuzentzeco  
bideac artuco dira.





DR. D. MARIANUS MIGUEL GOMEZ DEI ET  
SANCTÆ A. S. G. EPISCOPUS VICTORIENSIS.


—Por las presentes damos nuestro permiso para la impresión y publicación de la traducción al vascuence del librito titulado «Visitas al Santísimo Sacramento y á María Santísima, por S. Alfonso M. de Liguorio,» mediante á que segun la censura, dicha versión es exacta y esmerada y no sé contiene en ella cosa alguna que sea contraria al dogma católico y buenas costumbres.

Lo Comunico á V. para su conocimiento y efectos procedentes.—Dios guarde á V. muchos años. Vitoria 31 de Mayo de 1886.

**E***l* **O***b*ispo de **V***it*oria.

*Sr. D. Pedro Gurruchaga, editor,  
Tolosa.*







---

**SACRAMENTU  
CHIT SANTUAREN VISITAI  
SARRERA.**

**G**ure fede eguiazcoac eracusten digu, eta ala sinistu bear degu, Hostia consagraturan oguiaren antz-irudien estalquipean izatez, eguiaz eta benaz Jesucristo berberá dagoela; baña gauza bearra da gue ongui ezagutzea, onguinai eta amoriozco jarlecu edo tronu batean becela jarria dagoela gure aldareetan, bere doai eta graciac guri emateco, eta guri digun onguinai eta amorio ázquengabeagatic gau eta egun an ezcutatua egon nai due-la, guri aguertzeco. Gañera ipiñi nai izan



cituen Eliz Ama santac Corpus eguneco  
 jai andia bere zortziurrenarequiñ, proce-  
 sioac, bere Majestade jaungoicozcoa agui-  
 rian ipintzeac eta beste eliz-peñt andiac,  
 Aldareco Sacramentu chit Santuan gure-  
 quiñ gueratzean Jesucristoc aguertu ci-  
 gun amorio biguñ ondogabearen ezagüe-  
 ra on eta eskuerra cristauac aguer deza-  
 ten. Baña ¡oh nere Jaungoicoa! ¡cembat  
 bidegabequeri eta charqueri itsusi gure  
 Salbatzalle chit amodiotsuac Sacramentu  
 adoragarri onetan egun oro daramaz-  
 quien, piñtasun añ gucizcoa aguertzen  
 dien guizon béracgandic! Naigabe chit  
 andiaz Jaunac berac aguertu cion bere  
 serbitzari laztan Margarita Alacoqueri,  
 guizonen esquer beltz itsusi au, Jesusen  
 Biotzaren debocioaren gañeco liburua  
 eguiñ zuen jaquiñsuac contatzen due-  
 nez. Moja beneragarri oni egun batez,  
 Sacramentu chit santuaren aurrean ce-  
 goela, Jesucristoc bere biotz jaungoicoz-  
 coa sugarrez estalia, arantzez ingurutua



eta bere barrumbean gurutze bat zuela,  
tronu batean eracutsi, eta esan cion: «Be-  
» guira guizónai aimbeste nai dien, eta  
» bere onguinaya guizónai aguertzeco a-  
» morioaren indarrez quiscali eta des-  
» eguiñ arte gueratu etzan Biotz añ bi-  
» guñ au; baña orien gueyenacgandic or-  
» dañez esquer beltza, beguiramentuaren  
» palta, nizaz aztutzea, desprecioac eta  
» charqueri itsusiac baicic artzen ezlet a-  
» modiozco Sacramentu onetan. Eta miñ-  
» garrien zadana, nere serbitzura emanac  
» dauden béracgandic artzen ditudala  
» charqueri itsusi oyec.» Bereala Jaunac  
escatu cion, Biotz sagradua onratzeco ur-  
tean egun bat señaia cedilla, eta egun au  
Corpus egunetic urrengo ostirala izan ce-  
dilla, egun onetan cristauac beren adora-  
cio, zale, deseo eta erregu umillaz gui-  
zónacgandic Aldareco Sacramentuan ar-  
tzen dituen bidegabequeri eta charque-  
riac nolerebait ordañtzeco, adoracio one-  
quiñ Bera onratzen dutenai doai eta m e



sede chit ugaritsuac eta berarizco gracia seinalatuac aguinduaz.

Onec gogora eracitzen digu aspaldi artan Jaunac jaquintsuaren bidez ésan zuena, au da, « Guizónen semeaquiñ bici-tzean ceuzcala bere atseguin-contentuac,» oyec uzten eztaquien ezquero, bérac desprecioz bete eta aztua uzten dutenean ere. Itz oyec argui eta garbi aguertzen dute, ceñ gogoco zaizcan Jesusen Biotzari Sacramentua dagoen elize-tan Berá maiz icusteratzen diran persónac. Au on eguiteco, Pazzis-co santa Maria Magdalenari aguindu cion, cijoaquio-la egunean ogueita amairu bider bera-requiñ egonaldia eguitera, eta esposa amodiotsu onec ala eguiñ ere zuen, al cezaquean gucian gorputz eta anima, aldarera alderatuaz. Itzeguiñ bezate Jesus Sacramentatua maiz icusteratzen diran persona birtulecoi guciac, eta conta bítzate Jaun onec .an ematen dizten doai, argui eta ceruco galda iracequiac eta



Jaun Sacramentaluaren aurrean aldeaur-  
 rez progradu dituzten ceruco atseguin  
 contentu zoragarriac. Jaungoicoaren ser-  
 bitzari leyal Aita Luis Lanuza Sicilia-co-  
 misiolari sonatua, oraindic gaztecho za-  
 la, Jesucristogana añ lilluratua eta itsu-  
 tua cegoen, nun, puntu bacar batean ere  
 bere Jabe chit amoriotsuagandic aldegui-  
 ten eciñ asmatu al izaten zuen, berare-  
 quiñ egoteaz alaingo poz atseguina ar-  
 tuaz, non, Sacramentu chit Santuaren  
 aurrean bacarric ordu betean egon ce-  
 dilla, bere confesoreac aguiñduric, ordu  
 hura igarotzean, (dio bere bicitza escri-  
 bitu zuen jaquiñtsuac) alaingo borcha be-  
 re buruari eguiten cion obeditubearrac,  
 non aurcho batec bere amaren bularre-  
 tic quentzen dutenean artzen duenaren  
 guisaco naigabe miña prograden zuen  
 andic aldeguiteco garayan, gañera guei-  
 tuaz, aldeguin bear zuenean, bein eta  
 berriz aldarera beguiratuaz, zutic guera-  
 tzen zala, bein, berriz eta ascotan macur-



tuaz, eta belaunicatuaz, Jesusen aurre atseguinetic aldeguiten eciñ asmatu bazuquean becela. San Luis Gonzagari ere debecatu citzayon Jaun Sacramentatuaren aurrean luzaro egotea, eta sagraarioaren urretic igarotzen zanean, Jaun onec añ biciro eta gozotoro beregana tiratzen zuela barrundatuta, esan al baño andiagoco borcha bere buruari eguiñ, eta iguesari ematen citzayon, biguñtasunic andienaz esanaz: *Recede á me, Domine, recede.* Aldeguizu, Jauna, nigandic, nigandic aldeguizu. San Francisco Jabierrec Indian ceramazquien neque-icerdi gogórren ordañsari osoa, Sacramentu chit Santuaren aurrean topatzen zuen, fedegabeac erligio eguiazcora eracarten eguna, eta Sacramentu chit Santuaren aurrean gaua igaroaz. Regis-co san Franciscoc au bera eguiñ oi zuen, eta, baldiñ iñoiz edo berriz elizaco-ateac ichiac topatzen-bacituen, ataurrean belaunicatzen zan, euri-bisútsac eta otz gogórrac ber-



tan eramana, urrutitico bederic bere  
 poz-emalle Jaungoicoarequiñ egoteaga-  
 tic bestegabe. Asis-co san Franciscoc be-  
 re neque eta eramankuizun gucietan Je-  
 sus Sacramentatuaren icusaldi edo bisi-  
 tetan bere poz atseguina topatzen zuen.

Baña Santu gucien artean, Sacramentu  
 chit Santuari cion debocio eta jayera  
 samurragatic Erregue santu Wenceslao  
 señalatuena izan zan. Bada Erregue  
 santu onec, mezaco sacrificio adoragar-  
 rian consagratzeco serbitu bear zuten  
 gari eta matsac berac bere escuaz ereñ  
 eta biltzeari ez asco iritziric, negu bel-  
 tzaren biotzean ere Majestade jangoicoz-  
 coa cegoen elizac bisitatzen gau gucia e-  
 maten zuen, eta bisit oyequiñ bere anima  
 iracequiác Jaungoicoaganaco amorioaren  
 galda añ bicia sentitzen zuen, nun, bere  
 berotasun andia gorputzera ere zabaltzen  
 zan. Bere bicitzan iracurten da, e-  
 cen, gau batez berequiñ ceraman serbi-  
 tzaria elurraren gañean eciñ ibilli zan



eran otzác gogorturic, Erregue santuac gajo arrez cupituta esan cion: nere oñatzen gañetic ibilli zaite, eta serbitzariari otz gucia onequiñ quendu citzayon.

Sacramentu adoragarriaganaco jayera iracequiaren beste guertacari asco iracurten dira Santuen bicitzetan: baña onez gañera iracurten da, diran guciac bisita santu oyetara biciro emanac izan dirala, nolana ere Jesus Sacramentatua baño joya preciotsu eta ondasun aberatsagoric bicitz onetan eciñ dezaguqueala, ondo ezagututa. Izatez ere, Sacramentuac maiz artzea berecitzen badegu, debocio gucien artean andi eta lenena da Jesus Sacramentatua adoratzea, ceren Jaungoicoaren beguetan atseguiñena, eta guretzat ongarriena dan. Ez luzatu, bada, ó anima birtutecoya, zuc ere debocio au berealatic artzea; eta munduaren zoraquerietatic, eta guizónaquico erausi alperretatic igues eguiñ, eta gaurdanic zoaz Jesus Sacramentatuari bisita bat e-



guitera, ordu erdi edo laurden batean bederic an egonaz. *Gustate et videte, quoniam suavis est Dominus.* Progazazute, eta icusi, onetan artuco dezuten ondasun andia, jaquiñaren gañean, écen, Sacramentu chit Santua debocioaz bisitatzen daramazuten dembora hura zuen bicitzaco demboren atseguñgarriena, eta eriotzeco orduan eta eternidade gucian pozgarriena izango zatzutela, bear bada Jesus Sacramentatuaren aurrean ematen dezuten ordu laurden batean gueyago irabaciaz, egun gucian eguiten dituzuten beste lan edo debocio guciaquiñ baño. Gauza jaquiña da, Jaungoicoac lecu gucietan aditzen dituela Berari erregutzen diotenen erregu-escariac, bada au Berac ala aguindua dauca: *Pelite et accipietis;* baño eguia ere da, San Juanec eracusten digula, Jesucristoc gracia andiangoac eta opa roago zabaltzen dituela Sacramentu chit Santuan Berá bisitatzen dutenen artean.

Gai onen gañean Enrique Suson Doa-



tsuac esan oi zuen: Jesusec beste lecue-  
tan baño obeto Sacramentuan aditzen  
dituela cristauen erregu-escariac. ¿ Non  
eguiñ dituzte anima cristauac asmo eta  
propositu arrigarriagoac, Jesucristo Sa-  
cramentatuaren oñetan baño? Eta ¿ norc  
daqui zuc ere, iracurle biotzecoac, egunen  
batean rustodi baten oñean, ceran guci  
ori oso eta bici Jaungoicoari emateco  
asmo bici eta eraguillea eguiñgo badezu  
ere? Jesus Sacramentuari gure esquer  
eta ezagüera ona eracusten diogulaco se-  
ñale aguiria emateco bacarric au egui-  
ten balitz ere, liburucho onetan aguertu  
bear det, bear nuquean berotasun eta  
debocioaz ezpadere, Sacramentu chit  
Santua bisitalzeco izan dedan oiturari es-  
querrac, irichi nuela nere ogueita sei  
urteetan mundua uzteco suerte zorio-  
necoac. ¿ Zori onecoac zu, baldiñ nic baño  
goizago mundua utzi al baceneza, Bera  
dan gucia oso zugatic eman zan Jaun  
oni cere burua oso emateco! ¿ Zori one-



coa zu, bicitz onetan ezecic belicoan ere!  
 Munduco gauza guciac, sinis nazazu, en-  
 gañioa eta zoraqueria baño eztira: pes-  
 tac, dantzac, alcarren arteco izquetac,  
 jostaquetac.... oyec dira munduco onda-  
 sunac; baña beazuna eta aránzac baño  
 eztaucaten ondasunac: sinis zayozu be-  
 rác prograduaz gañera itzeguiten dizuna-  
 ri, eta bere utseguiteaz oraindic negar  
 eguiten duenari. Segura egon zaite, Je-  
 sucristoc poz atseguin andiangoac ematen  
 diozcalacoan Bera Sacramentu chit San-  
 tuan debocioaz bisitatzen duen animari,  
 munduac bere jolas, jostaldi eta pesta  
 guciaquin eman leguizquitzuquean gu-  
 ciac baño. ¡Ceñ atseguin garria dan, a-  
 disquide batec bestearequin becela, fede  
 eta debocioaz Jesus Sacramentatuare-  
 quin itzeguiten aldarearen aurrean ego-  
 tea, alabaña an beti prest dago gure er-  
 regu-escariac enzuteco, beraren contra  
 equin ditugun charquerien barcacioa es-  
 catuaz, adisquideric mamienarequin e-



guñ litequeau becela, gure bear eta premi guciac berari aguertuaz, eta azque-  
nic, bere laguntza eta gracia, bere amorio eta bere gloria escatuaz bagaude!  
Baña ¿cer gloria andiagoric bere Ait E-  
ternoari gugatic beti erreguca dagoquion,  
eta guganaco onguñai eta amorioz ir-  
cequia ñagoen Jaun añ urricaltsuaren  
aurrean amoriozco acto asco eguiten e-  
gotea baño, ezcutatua, eta alde-aldean  
aztua, eta esquergabeen charqueri eta  
desprecioric andienac eramana ere, a-  
modio onec an egotera beartzen duen  
ezquero? Baña ¿certaco itz gueyago?  
*Gustate et videte.* Progradu eta icus za-  
zute.

Maria chit Santaren bisitai dagoquie-  
nez, sonatua eta gueyenac daquitena da  
San Bernardoren esana, au da, Jaungoi-  
coac eguiten dizquigun on eta mese-  
de guciac, bere Ama chit Santaren es-  
cuetatic guganätzen dirala. *Deus nihil  
voluit nos habere quod per manus Ma-*



*riæ non transiret.* Aita Suarez-ec one-  
 gatic segurutzen du, gaurco egunean Eli-  
 za guciaren iritzia dala, Maria chit San-  
 taren bitartecotza ongarria ezecic, bear-  
 bearra ere dala, cernai mesede Jaungoi-  
 coagandic iristeco. *Sensit Ecclesia Virgi-  
 nis intercessionem esse utilem et ne-  
 cessariam.* Au onela segurutzeco oñ edo  
 cimendua Eliza Santac Maria chit Santari  
 egozten diozcan itz oetatic artzen du. Ma-  
 ria beraren aoz esanaz: *In me omnis spes  
 vitæ et virtutis. Transite ad me omnes*  
*(Eccli. XXIV.)* «Atozte gucioc niga-  
 na, bada ni naiz zuen on guciaren espe-  
 ranza.» Eta ondoren gañera dio: *Beatus  
 homo qui audit me, et qui vigilat ad fo-  
 res meas quotidie (Prov. VIII.)* «Zori  
 onecoa nere bitartecotza indartsuaren a-  
 teetan egun oro contuz deitzen duena.»  
*Qui me invenerit, inveniet vitam et  
 hauriet salutem á Domino.* «Ni topa-  
 tzen nauenac, topatuco du bicitza, eta ar-  
 quituco du Jaunaren osasuna » *Spes nos-*



*tra salve.* Eta arrazoi berarequin dio san Bernardoc, bere uste eta esperanza-ren gai eta bide gucia Maria dala: *Tota ratio spei mee. Quæramus gratiam et per Mariam quæramus.* Billa ditzagun graciac, eta billa ditzagun Mariaren bitartez. Onela eguiten eztuenac, dio gañera, San Antoninoc, Mariaren bitartecotzagabe erregutzen duenac, egogabe egatunai du: *Qui petit sine ipsa duce, sine alis tentat volare.*

Iracur bitez Jaungoicoaren Ama bere elizen batean, edo bere imagiñen baten aurrean maiz bisitatzeco jayera chit ongarria izan dutenai Ama maitatsu onec eguiñ dizten conta al baño gueyago on eta mesede, Aita Auriemmac *Degli affelli scambievoli* deritzan bere liburuan contatuac, eta beste ascoren artean contatzen ditu, Ruperto Abadeari eta Aita Suarez-ieguiñ ciztenac, biai, nola biai, buruco arguitasuna eta jaquinduria gucizcoa emanaz, arguitasun eta jaquinduri



onen bidez Elizan añ sonatuac biac izanaz; eta Jesusen compañiaco Juan Berckmans nolaco doai eta graciaz aberastuzuen, norc Erromaco colegioco capillan egun oro Maria bisitatzeco usadioa zuen, esanaz, Jaungoicoaren urrena Birgiña chit Santa beste iñor ez maitatzeco, creatura guciacganaco amodioa betico utzi zuela, onetaraco Mariaren imagiñaren óñetan escribituac iduquiaz itz oyec: *Nunquam quiescam donec obtinero tenerum amorem erga Matrem meam:* « Aric eta nere Ama maitea biotz biotzetie maita dezadaneraño, sosegatuco ez naiz. » Azquenic, contatzen ditu Sena-co san Bernardinoren gañera isuri cituen graciaz, nor, orañdic chit gazte zala, errico atetaco baten ondoco capilla batean cegoen Ama Birgiñaren imagiña bisitatzera egun oro joan oi zan, Andre miragarri arrec biotza ostu ciola, esanaz, eta onegatic deitzen cion, berari aguiñdua cegoquiona, eta cion, bera maiz icusigabe ceñ cego-



queala, gueroenean Ama maite onen escu indartsu eta bitartecotza eraguillearen indarrez mundua utzi, eta Italiaco apostolu andi izateraño irichiaz.

Zu ere saya zaite, bada, iracurle maitea, Sacramentu chit Santuaren bisitaz gañera Birgiña guciz Santarena ere egun oro elizen batean eguitera; eta ara eciñ bacijoazque, edolaric eguizu cere echean, bere imagiñen baten aurrean. Baldiñ us-te eta confianzaz eta devocioaz au eguiten badezu, esquer añ oneco Ama onegandic on eta mesede chit señalatuac artuco dituzu, bada Creta-co san Andres-ec dion becela, berari eguiten zaizcan serbitzu chiquienac graziaz eta doay chit señalatuaz pagatu oi ditu. *Solet maxima pro minimis reddere.*

---

Elizaco Maisu andi san Alfonso Maria Ligorio doatsuac bere liburuaren sarrearaco escribitu cituen lengo errenculuai egotzi bear diztegu itz batzuec.



Jesus Sacramentatuaren eta Birgiña chit Santaren bisitai egotzi zaye gaurco eguneco cristauen artean biciro zabaldua dagoen, Aita san Joseri egunoro bisita eguiteco modu chit egoquia. Bear eta premiae gueituaz dijoazen ereduari bitartecoac ere gueitu bear dira. Gauza jaquiña da, chit antziñacoa dala debocio au; baña dembora oyetan Espiritu Santuac muguieracita, alain gueitu eta zabaldua, nun Espiritu Santu beraren ordeiz lur, rean itzeguiten duen Erromaco Aita Santuac debocio au mundu guciaren aurrean chit ontzat eman duen, Eliza guciaren amparatzalle San Jose señalatuaz. Elizac Santu miragarri onegan escu chit andia ezagutuaz, arrazoi andiaz bere Esposa Mariaren ondoan ipintzen du, biac nola biac Eliz eguiaczoaren seme-alaben guraso eguiñaz: eta ala Jesus, Maria eta Jose lurreco Trinite eguiaczoa dira; alcarrequin chit estu eta era miragarrian batuac dauden icen adoragarriac, irurac



famili bat, eta bera alacoa eguiñic, bata besteagandic bereizten cristauac eztaquiten eran. Ona emen cergatic Jesus Sacramentatuari eta Maria chit Santari eguiten zaizten bisiten ondoren San Jose-ri bisitac gueitzea chit on dala, uste izan degun. Egun oro bisita itzazu, cristau biotzecoã, iru adisquide chit gozo eta atseguin oyec, saya zaite beraquin adisquidetasun estu eta barruncoi bat eguitera, eta orduan cerorrec progatuco dezu ceñ gozotoro, ceñ eroso, ceñ oparo pagatuco dizuten debocio eder au, erioztzeco orduan ezecic bicitz onetan ere.





**SACRAMENTU  
CHIT SANTUARI  
ETA  
MARIA GUCIZ SANTARI  
BISITAC.**

GOGOZCO COMUNIO EDO COMUNIO ESPIRITUA-  
LAREN GAÑEAN.

**N**OLA Sacramentu chit Santuari  
eguiten zaizquion bisitetaco ba-  
coitzaren ondoren gogozco comu-



nio bat eguiñ bear baitan, gauza justu eta bidezcoa izango da, comunio au cer dan, eta nolaco irabaciác dacaizquien aguertzea. Santo Tomasec dionez, gogozco comunioa dago Jesus Sacramentua artzeco zale eta deseo iracequi baten iduquitzean, eta norc bere barrumbean, amoriozco laztangozo bat berari ematean, eguiaz bera artu baguenduquean becela.

Ceñ atseguñ eta gogoco Jaungoicoari comunio espiritual oyec zaizquion, eta beragatic cembaton cristau birtutecoyai eguiten dizten, Jaunác berac aguertu cion Napoles-co Santa Catalina Senaren comentua fundatu zuen bere serbitzari leyal Paula Marescari, beguietaratu ciozcanean (bere bi-



citizan contatzen dan becela) bi baso eder, bata urrezcoa, eta bestea cillarrezcoa, esanaz: aurreneco ontzi edo basoan sacramentuzco comunioac gordetzen duela, eta bigarreanean, espirituzco edo gogozcoac. Gurutzeco Juana doatsuari ere esan cion, espirituz edo deseoz comulgatzen zan aldi bacoitzean, sacramentuz comulgatzen zanean artzen zuenaren guisaco gracia bat artzen zuela. Baña, guciaz gañ, asco da jaquitea, Trentoco Batzarre edo Concilio sagraduac biciro alabatzen duela gogozco comunioa maiz eguitea, eta jayera eta debocio añongarri onetara cristauac muguieraci nai dituela. Orregatic eguiten dute añ sarritan debocio au cris-



tau birtutecoyac, alatan nun, esan degun Gurutzeco Juana doatsuac egunean berreun bider eguiñ oi zuen gogozco comunio au. Eta Loyolaco San Ignacioren lenengo lagun Aita Pedro Fabroc esan oi zuen, ecen Sacramentuz ondo comulgatzeco chit on eta prochugarria dala gogozco comunioa.....

Onela, bada, Jesucristoren amorian aurreratuz joan nai duten cristauac, eguiñbezate gogozco comunio bat bisita bacoitzean eta beste bat enzuten duten meza bacoitzean; eta oraindic obe iru bider eguingo balute: bata mezaren asieran, bestea erdian, eta irugarrena azquenean debocio onec dacaizquien on eta probechuac cem-



baitec uste duten baño andiangoac diralaco, eta dembora berean errezena dalaco: bada esan degun Gurutzeco Juanac oi cion becela, gogozco comunioa eguiñ liteque iñor oartugabe, barau gorrian egon bearric gabe, confesorearen baimen edo licencigabe eta cernai garai eta derechetan, ceren comunio au amoriozco acto bat baño eztan, eta onetaraco asco da esatea ondorengo

GOGOZ EDO ESPIRITUZ COMULGATZECO

ORACIOA.

**N**ere Jesus, sinisten det Sacramentu orretan zaudela cere gorputz, anima eta jaungoicotasun berarequiñ; beste gauza guciai baño gueyago nai dizut, eta Zu



artzeco zalez eta dèseoz nago :  
baña orañ Sacramentuz eciñ artu  
zaitzaquedan ézquero, beñic beñ  
atoz espirituz nere biotzera, eta  
artu bacinduzquedan becela, laz-  
tantzen zaitut, eta zurequiñ batu-  
tzen naiz. Arren ez nazazu utzi,  
Jauna, iñoiz ere Zugandic urruti-  
ratzen. Amen.

EDO LABURRAGO.

Sinisten det, Jauna, eguiaz eta  
benaz Sacramentu chit Santu or-  
retañ arquitzen cerala, maite zai-  
tut, eta Zu artzeco gucizco zale  
eta deseoa dauzcat. Atoz, bada  
nere biotzera, laztantzen zaitut,  
eta Zurequiñ batutzen naiz, ez  
arren aldeguiñ nigandic.



BIOTZAREN BARRUNDIC IRTETEN DIRAN  
NAITASUNEZCO ITZAC.

**E**rregutzen dizut, ó nere Jaun  
Jesucristo, nere anima artu deza-  
la oso zure amorioaren indar gozo  
eta iracequiac, zuganaco amo-  
rioaren indarrez ill nadiñ, nere a-  
morioz zu ill ciñan becela nigatic.

*(San Francisco.)*

¡Oh Amorio ez maitatua, oh  
Amorio ezagutugabea!

*(Pazis-co Santa Maria Magdalena.)*

¡Oh ene Esposoa! ¿Noiz deitu-  
co nazu cere ondora?

*(Alcantaraco San Pedro.)*

EGUN GUCIETAN BISITA ASITZECO  
ORACIOA.

**N**ere Jaun Jesucristo, guizonen  
amorez gau eta egun Sacramentu



adoragarri onetan zaudena, zu-  
requiñ egotera datoquitzenen be-  
guira beti egonaz, guciac cerega-  
na deituaz eta datoquitzunac go-  
zotasunic andienaz artuaz, sinis-  
ten det, izatez eta benaz Aldare-  
co Sacramentu onetan zaudela, ne-  
re ecereztasunaren leice ondoga-  
betic adoratzen zaitut, eta esquer-  
rac dizquitzut eguiñ dizquidatzun  
on eta mesede guciacgatic, batez  
ere Sacramentu onetan eman diz-  
quidatzulaco cere gorpuz eta odo-  
la, cere anima eta jaincotasuna ;  
cere Ama chit santa Maria beti  
garbia bitarteco eman didazulaco,  
eta lecu santu onetan Zu bi-  
sitatzero orañ deitu nazulaco.  
Adoratzen det zure Biotz chit a-  
moriotsua, eta orañ iru gauceta-



raco adoratu nai nuque: 1.<sup>a</sup> erre-  
galo añ gucizco onen esquer eta  
ezagüera ona aguertzeco; 2.<sup>a</sup> Sa-  
cramentu orretan zure etsayac-  
gandic artu dituzun charqueriac  
nere esquérraquiñ ordañtzeco, eta  
3.<sup>a</sup> bisitaldi onetan Zu sacramen-  
tatu zauden lecu gucietan, baña  
adoratzalle gueyagorequiñ eta az-  
tuago zauden ayetan adoratu nai  
cinduquedalaco.

¡Oh nere Jesús! nere biotz gu-  
ciaz nai dizut: damu det zure on-  
tasun neurrigabea ofenditu iza-  
teaz: eguiten det zure escu eta la-  
guntza jaungoicozcoa lagun ditu-  
dala, aurreracoan ontzeco asmo  
sendoa; eta, on-bear tristea ba-  
naiz ere, naicen guci au ematen  
naitzazu Zuri eta zure escuetan



ipiñtzen ditut nere borondatea,  
nere zale eta deseoa, eta, azque-  
nic, naicen eta dezaquedan gucia.  
Gaurdanic, eguizu, Jauna, nizaz  
Zuc nai dezun gucia. Nic nai de-  
dan eta escatzen dizudana da, Zu-  
ganaco amorio jaungoicozcoa, Zuc  
nai dezun gucira oso jarria ego-  
tea, eta azqueneraño zure gracion  
irautea. Erregutzen dizut purga-  
torioo animacgatic, batez ere Sa-  
cramentu chit Santu orri eta Ma-  
ria guciz Santari debocio andiena  
izan dien ayecgatic, nola ta peca-  
tari guciacgatic. Azquenic, nere  
Salbatzalle biotzecoa, zure Biotz  
amoriotsuarequiñ batutzen ditut  
nere gogo, zale eta deseoa guciac,  
eta onela batuta diran guciac es-  
queñtzen diozcat zure Ait Eter-



noari, eta zuri dizun amorioagatic  
zure icenean erregutzen diot, ar-  
ren ontzat ar ditzala. Amen.

---

**BISITA BIEN ONDOREN**  
**MARIA CHIT SANTARI**  
EGUN ORO EGUIÑ BEAR ZAYON  
**ESCARIA.**

Nere Ama Maria chit Santa,  
Doncella garbi eta mancharen cu-  
tsu gabea! Nere Salbatzallearen  
Ama, munduco Erreguiña, Beca-  
tarien bitarteco, gordelecu eta es-  
peranzagana becela Zugana na-  
tor gaur ni gucien on bearrena  
naicen triste au. Adoratzen zaitut  
oh nere Erreguiña! eta esquer-  
nilla dizquitut oraindaño eguiñ  
lizquidatzun on eta mesede gu-



ciacgatic, batez ere ceren nere be-  
catuacgatic añ mereci nuen infer-  
nutic libratu nazun. Biciro nai di-  
zut, Ama maitagarria, eta zuri  
dizudan amorio itsuagatic berea-  
latic eguiten det zu beti serbitze-  
co, eta guciac su serbitzera mu-  
guiracitzeco asmo sendoa. Nere  
Jaun Jesucristoren urrena zugan  
daucat nere uste eta confianza gu-  
ciac. Cere serbitzaritzat artu, eta  
cere mantupean gorde nazazu, eta  
Jaungoicoarequico aimbeste de-  
zazuquean ezquero, tentacio gu-  
cietan gorde nazazu, eta diran  
guciac azqueneraño azpiratzeco  
indarra irichi zadazu. Nere Jaun  
Jesucristoganaco amorio eguiaz-  
co bat escatzen dizut, Ama lazta-  
na, eta zure bitartez irichi uste



det eriotz on bat. ; Oh nere Ama maitea! Jaungoicoari diozun alaingo amorioagatic erregutzen dizut, lagun zadazula beti, baña oraindic biciroago nere biciaren azqueneco trancean; ez nazazu arren utzi, aric eta zu alabatzen, eta zuc eguindaco on eta mesedéac cantatzen, seculá gucietan ceruan icusi nadineraño. Amen.

## SAN JOSERI

BERE BISITAREN AZQUENEAN.

**Z**ure semecho Jesus, eta zure Esposa gozoa bururatzen zaizquidanean, eciñ aztu naiz zuzaz, oh Aita gloriáz betea, nere oracioa utsuneduna litzaque baldiñ zuzaz oroituco ezpanintz: nere Salbatzalle amoriotsuari eta bere Ama



laztan cerulurretaco Erreguiñari  
eguiñ diedan bisita ez litzaque i-  
zango bear bezañ cortesa, baldiñ  
zuri, Jurraren gañean beren buru  
eta aguintari izan ciñan orri, e-  
guiten ezpañizu nere agur ona.  
Ar itzazū, bada nere agur umillac,  
eta ordañez irichi zadazu nic nai  
eta escatzen dedana, indartu itza-  
zu nere erregu escariac, Jaungoi-  
coaren urricaltasunac bere gracia-  
ren intz osasungarria nere gañera  
iñuri dezan, naigabe eta penetan  
zure antzera paque eta sosegua,  
atseguñ contentuetan garbitasun  
eta neurria eta guero Cristorequiñ  
batera secula gucien seculetan  
zure ondoan egotea. Amen.

Jesus, José eta Maria, orizute  
biotz eta anima nerea.



Jesus, José eta Maria, gorde nazazute bicitzan eta nere azque-  
neco agonian.

Jesus, José eta Maria, ni hil-  
tzean arzazute anima neria.

---

## LENENGO EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Norbait egarri bada,  
betor nigana.

(*Joann. VII, 37.*)

**O**rra or, anima jaincocoaya, on  
guciaren iturria, Jesusec Sacra-  
mentu chit Santuan dio: *Iñor e-  
garri bada betor nigana.* ¡Gracia  
ceñ andi eta ugaritsuac Santuac  
atera dituzten Sacramentu chit  
Santuaren iturri jaungoicozco one-



tatic, non Jesus amoriotsuac bere  
 pasioco irabaciác añ ugari eta o-  
 paro zabaltzen dituen, antziña a-  
 ditzera eman zuen becela Profe-  
 tac: *Pocic joango cerate Salbatza-  
 llearen iturrietara úrac billatzera.*  
 Aita Juan Avila Maisu andi eta  
 beneragarriaren icasle cintzo Fe-  
 ria-co Condesac Santa Clararen  
 ordenan sartuta Sacramentuaren  
 aurrean eguiñ oi cituen egon-aldi  
 chit lucéacgatic Sacramentuaren  
 esposa deitzen zan arc, aimbeste  
 demboran lecu artan cer eguiten  
 zuen beñ batean galdetuta, eran-  
 tzun zuen: *Pocic egongo nitzaque  
 an beti eternidade gucian. ¿An ez-  
 tago bada ceruco doatsuen betico  
 atseguiñ-contentu eta janari izan-  
 go dan Jaincoa bera?— ¡Ah! ¿cer*



eguiño degu, galdetzen dute,  
bearbada cembaitzuec, Jesus Sa-  
cramentatuaren aurrean? Jaun  
au maitatu, alabatu eta bear de-  
guna berai escatu. ¿Cer eguiten  
du esqueco batec aberats baten  
aurrean arquitzen danean? ¿Cer  
eri batec medicua dijoaquionean?  
¿Cer egarri danac iturri garbi ba-  
ten ondoan?

¡Oh nere Jesus guciz maitagar-  
ria, nere animaren bicitza; uste,  
ondasun eta amodio bacarra!  
¡Cembat onguinai eta amodio a-  
guertu ciguzun Sacramentu jan-  
goicozco onetan gurequiñ egon  
nai izatean! Sacramentu adora-  
garri au eguiñ edo ipiñi cendue-  
nean, ongui ezagutzen cinduen  
guizónacgandic artuco cinduen es



quer beltz itsusi, charqueri eta  
burla gaiztóac, baña gure gaizta-  
queria baño oraindic andiagoa i-  
zan zan guganaco zure onguinai  
eta amodio iracequia. Bai, guri  
diguzun onguinai andi eta guc  
guere amoreaz eranzuteco dauca-  
zun zale eta deseo iracequiac gu-  
cia azpiratu zuen.

Atoz, bada, Jauna, atoz, sar zai-  
te nere biotzaren barrenen, eta  
ichi zazu atea betico, bacarric zu-  
ri oso eman nai dizudan amorioa-  
ren apurric ere artzera, iñor an  
sartu eztediñ. Nere Salbatzalle  
maitea, itzeguiozu nere biotzari,  
zure serbitzariac zure itza aditu  
nai duta; aguindu zazu, Jauna,  
bertatic leyalqui eramán nai dziut  
eta; eta baldiñ iñoiz bear nizu-



quean becela obeditzen ezpa dizut,  
castiga nazazu, onela conturatuta,  
Zuc nai dezun eran gucia eguite-  
co; eguizu arren Zu serbitzea, al-  
dare sagraduetan Zu maiz bisita-  
tzea, eta Comunio sagraduan Zu  
artzea beste eceren zale ni ez iza-  
tea. Nai duena bebill ordu onean  
beste ondasunen ondoren, nic zu-  
re amorioaren ondasuna beste e-  
cer nai ez det eta, eta au da beti  
escatuco dizudana. Nere buruaz  
ere aztueraci nazazu Zure onta-  
sun neurrigabea beste ecer burura  
eztaquidan. Serafiñ doatsuac, zuec  
dauczuten izate goratuaren im-  
bidiaric eztaucat, baña bai Jaun-  
goicoari diozuten amodioarena.  
Eracus zadazute bera maitatzeco  
eta serbitzeco eguiñ bear dedana.



ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh nere Jesus! bacarric Zu maitatu nai zaitut, bacarric Zu serbitu nai zaitut.

*Orañ azquenean, eguiten da gozco comunio edo comunio espiritualala 27-garren orrian dagoen becela, eta ondoren eguiten zayo bisita bat Maria chit Santari bere imagiña baten aurrean.*

## MARIA CHIT SANTARI

### I.-GO BISITA.

**M**aria manchagabe eta chit garbia, Jaungoicoaren Ama, Santu gucien gañ gañecoa, eta zure Seme Jesucristoren urrena pecatarien esperanza eta justuen poz atseguña Zu cera, zure bitartez



eguiñ zan Jaungoicoarequiñ gure arteco paquea. ¡Oh Princesa chit andia, estal gaitzazu zure urricaltasunaren mantuaz, erruqui zaite guzaz, eta, alabaña zure serbitzura eman, eta zu alabatzera sayatzen guera, ezagu gaitzazu cere serbitzarietacótzat, eta ez gaitzazu utzi Luciferrec gu berequiñ infernura eramaten. ¡Oh Doncella manchagabea! Zure mantuaren itzalpera biltzen guera, eta seme baten confianzaz erregutzen dizugu, goza dezazula cere erreguarequiñ gure pecatuacgatic añ aserre dagoen, zure Semearen becaitza, gure etsai gogor demonioaren escupean utzi ez gaitzan.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh Maria,



gure poz atseguñaren sustraya!  
erregu zazu gugatic.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSERI I.-go BISITA.**

Aita San José maitea, zure Es-  
posa graziaz betea dago, andre  
gucien artean bedeincatua izanaz,  
eta Zu berari dagoquion becelaco  
Esposoa cera, eta Eliza guciac oju-  
ca dio, bendicioz betetaco guizo-  
na cerala. Ceregan bilduac dauz-  
catzu antziñaco patriarca gucien  
errezcada lucearen on eta bentaja  
guciac, eta merecitu dezu Jaun-  
goicoagandic ayec artu cituzten  
bendicio guciac ceregan batutzea.  
Iduqui cinduen, bada, Abel-en bi-  
guñtasuna, Noe-ren justutasuna,  
Abrahan-en fedea, Jacob-ren es-



peranza bicia. Zugan, lorasorta aberatsean becela, batu ciran beren birtute eta merecimentu guciac, eta zure buruaren gañera jechi ciran aibeste patriarquen gañera Jaungoicoac isuri cituen bendicio guciac. Cera, bada, bendicioz betetaco guizona, beragatic ni pecatuaren madaricacioa neregan eramanic, uste eta confianza osoaz, eta umiltasunic andienaz, zugana nator, madaricacio au be-deincaciora truca deguidazun, Jaungoicoaren gracia neregañera etorri dediñ, Jaungoicoaren be-deincacio indartsuác biotz on eta animoa deguidan, nere zale eta deseo oyetan sendo nazan, ceruco nere errian sartzearen diña ni eguñaz. Amen.



ITZ-ALDI LABURRA. Arren ez nazazu utzi zugandic aldeguiten, nere amparatzalle gloriaz betea, aric eta zure Seme jaungoicozcoac bere bendicioa deguidaneraño.

*Oracioa 35-garren orrián.*

---

## BIGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrián.*

Nic emango dedan oguia nere araguaia da, *ceña barta emango dedan nic mundua-ren* *Salbadoraco.* (Joann VI, 52.)

Aita Juan Eusebio Nieremberg-ec dio, ecen izanic oguia gure jatécoen bearrena, eta gordetzen bada, asco irauten duena, Jesucristoc oguiaren antz-irudien bean gueratu nai izan zuela lurrean,



ez bacarric bera Comunio sagra-  
duan artzen duten animai janari  
izateco. baicic bai aldarean gor-  
deta beti gure artean egoteco ere,  
nolaco onguinai eta amorioaz be-  
guiratzen digun, era miragarri o-  
netan guri aguertuaz. San Pabloc  
dio, ecen Jaungoicoac *serbitzaria-  
ren ichura artuaz, bere burua ece-  
reztu zuela*. Baña ¿cer esango de-  
gu guc, oguiaren antz ta irudia  
arturic egun gucietan gure alda-  
reetan dagoela, icusita? Jesusec  
bere adisquidetasunean dagoen  
anima bati dion onguinai eta amo-  
rioaren anditasuna aditzera eman  
lezaquean mingañic ezta, dio Al-  
cantara-co San Pedroc, eta one-  
gatic Esposo chit gozoac mundu  
onetatic bere Aita Eternoagana-



co irten nairic, bere arrotz-aldia zala bide. Beráz aztu ez guindecen, utzi cigun gogoragarritzat Sacramentu chit Santu au, non berá guerätzen zan bere amorioaren prenda eta señale, seguru eta gogoragarri.

¡Nere Jesus! bearrean dauden erregu-escariac aditzeco orsagrario orretan zauden ezquero, enzun itzazu oraiñ guizónen artean bici dan becatarien esquer-gabeenaren erregúac. Zu ofenditzeaz eguiñ nuen gaiztaqueri izugarria ezagututa, emen natorqui zu eguiaz damutu, eta zure oñetan auzpezturic, eta gauza guciaz aurretic escatzen dizut, barca zaizquidatzula nere peatúac. ¡Ah! ¡eta iñoiz ere ofenditu ezpacin-



duzquedan! Orañ zure ontasun  
ondogabea emen zure aurrean e-  
zagutu, eta biciro muguitua senti  
naiz Zu maitatzera eta serbitzera ;  
baña Zuc laguntzen ezpadidazu, au  
eguiteco indarric eztaucat. ; Jain-  
goico andia ! aguer zayezu ceru-  
tar guciai zure escu, indartsu eta  
urricaltasun baztergabea, pecata-  
ri gorrotagarri onez zure maita-  
tzalle eguiazco bat eguiñaz. Zuc  
au eguiñ cenzaque; eguizu bada,  
ene Jaungoicoa, onela, Zu chit  
asco, edo beintzat len ofenditu  
zaitudan aibat maitatzeco palta  
zadana osatuaz. Maite zaitut, ene  
Jesus, gauza guciaz gañ, maite  
zaitut nere burua baño ere gue-  
yago maite zaitu.

ITZ-ALDI LABURRA. Ene Jaun-  
BISITAC. 4



goicoa, ene amorio eta nere on  
gucia.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

MARIA CHIT SANTARI  
II.-EN BISITA.

¡Oh ceru-lurretaco Erreguiñ eta  
gure Ama Andrea! Aita Eternoa-  
requico gure lenengo bitarteco  
Jesucristoren urrena Zu cera pe-  
catarien bitarteco indartsuena,  
galdu-gordean dabilzanen portu  
segurua, munduaren poz atsegu-  
ña, catibu daudenen libratzallea,  
erien osasuna, pénetan daudenen  
atseguñ contentua, pecatarien i-  
gueslecua. ¡Oh Maria graziaz be-  
tea! Argui zazu nere adimentua,  
asca zazu nere mingaña zure ala-  
banzac canta ditzadan, eta batez



ere Zuc añ merecitu cenduen, Ain-  
gueruaren agurra. Adoratzen zai-  
tut, ¡ oh mundu guciaren paquea,  
salbacioa eta pozgarria ! Benera-  
tzen zaitut atseguin contentuzco  
paradisoa, graciazco iturria, Jaun-  
goicoarequin - guizonaren arteco  
bitartecoa.

ITZ-ALDI LABURRA. Pecatarien  
gordelecua, erruqui zaite nizaz,  
eta erregu zazu nigatic.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSEBI II.-en BISITA.**

Jaungoicoaren jaquinduriac con-  
ta al baño gueyago millen artean  
esleitu cinduen, oh Patriarca San-  
tua, bere Aita usteco eta Maria  
doncellaren Esposo izateco, dem-  
bora berean bere eheco Jaun eta



aguintari Zu eguiñaz; eta Elizác  
goi orietan izarric arguienac ba-  
ño paregabe arguiago eguiten du-  
ten bere santu gucien ceru ori on-  
do baño obeto beguiratuta, zuri  
baño argui ederragoa darionic to-  
patu etzuen, beragatic ceruco  
doatsu gucien artean cristauen  
amparatzalle eta ispillutzat gora-  
tu cinduen. Oh nere Aita chit  
maitea, umiltasun andiaz, baña  
esperanza osoaz Zugana nator,  
bada Jaunác eternidadetic, Eliza  
santac gure egunetan, eta cristau-  
erriac era batera eman dizuten  
beargayaren bidez beartua zaude  
Cristogan berriro jayo eta bere  
gorputz misteriosoarequiñ batuac  
dauden guci ayec cere mantupean  
artzera. Batuitzazu gure erregúac



Birgiña manchagabearenaquiñ, erregu zayozu Jesusi nere alde, beguira zayezu gorputz-animetaco nere bear eta premiai, izan zaite nere amparatzalle mundu onetaco Egipton, eta bere conta al baño gueyago galbide eta perilletatic irtendacoari sar nazazu ceruco jauregui artan, noren Jabeác zure escu eta aguindupean jarri nai izan zuen, Berarequiñ eta zurrequiñ batera eternidadeco egun azquengabeaz an gozatu al izateco. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Eliz eguiazco guciaren Patroi santua, gordezazu bere seme (edo alaba) azqueneco au.

*Oracioa 35-garren orrian.*



---

---

## IRUGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Nere atseguin contentu guciac  
guizonen semeaquin egotea iza-  
nic. (*Prover. VIII, 31.*)

Orra or gure Jesus, norc gugatic  
bere bicia ematea guchi baceriz-  
quion becela, bere eriotzaren or-  
doren ere. Sacramentu chit San-  
tuan gure artean iraun nai izan  
zuen, esanaz, guizonen artean to-  
patzen cituela bere atseguin con-  
tentuac. ; Oh guizonac! deadar e-  
guiten du Santa Teresac, ; nola  
ofendi cenzaquee bere atseguin  
contentuac zuen artean bicitzean  
dauzcala segurutzen duen Jaun-  
goico bat? Jesus maiteac gure-



quiñ egotean daduzca bere poz atseguñac, eta guc iduquico ezditugu guereac Jesusequiñ egotean ¿guc bere echean bicitzeco onra eman zagunoc? ¡Ah! onra ceñ anditzat iduquitzen duten Erregueác beren jaureguian sarrera eman eta artzen dituen aguindupeco ayec! Emen dago, bada, erregue gucien Erreguearen echea, auda Jesucristorequiñ batera bicigueran echea. Jaquiñ zagun berarequiñ esquer oneco izaten, eta itzeguiñ zayogun amorio eta uste osoarequiñ.

Emen naucazu nere Jaun eta Salbatzallea, nere amorez Zu gau eta egun zauden aldare orren aurrean. Zugana, ondasun gucien iturria, gaitz gucien sendatzallea,



bearrean daudenen ondasunte-  
 guia, Zugana dator gaur pecatari  
 gucien beartsu eta eriena, urrical-  
 tasun esque, urrical zaite, Jauna,  
 nizaz. Andia da nere ecereza eta  
 onbear tristea, au ondo ezagutzen  
 det, baña orregatic etzat biotza  
 erorico, bada ondo daquit nere  
 onagatic ješten cerala egun o-  
 ro cerutic lurrera Sacramentu  
 jaungoicozeo orretan sartuta gue-  
 ratzeco. Adoratzan, alabatzen eta  
 maitatzen zaitut, eta nic zuri cer-  
 bait escatzea nai badezu, escatzen  
 dizudana da: adi nazazula, Jau-  
 na, bada gueyagoren gueyago o-  
 fenditu nai etzinduzquet, escatzen  
 dizut, indaizquidatzula nere indar  
 guciaz Zu maitatzeco arguia eta  
 laguntza. Maite zaitut, Jauna, ne-



re anima guciaz, maite zaitut nere zale eta deseo guciaz, eta egui-zu nic au beti eguiaz eta benaz esatea bicitz onetan eta beticoan. Birgiña chit Santa, nere bitarteco santu, aingueru eta doatsuac, lagun zadazute gucioc nere Jesus chit maitagarria maitatzen.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh Arzai ona, neri bicitza ematen didazun oguia! janaritu nazazu, eta indaizquidatzu ceruco errico ondasunac.

*Gogozco Comunioa 27-garren orrian*

MARIA CHIT SANTARI  
III-EN BISITA.

¡Oh nere Ama maitea! Zuc Jaungoicoagandic dedan atseguin contentuen andiena, nere naigabe eta



pena gucien gozatzallea, nere animaco illun beltzen arguitzallea, nere bildurtasunetan indarra, nere bidageetan laguntzallea, nere premien estaltzallea, nere gaitzen sendatzallea eta nere estutasun gucietan poz atseguña zaitudan orrec; Zuc nere peliburu gucietan nere gordelecua, eta Jesucristoren urrena, nere salbacioaren uste eta esperanza gozoa zaitudan orrec, adi itzazu nere erre-gu-escariac; eta guri aibeste naidigun Jaungoicoaren Ama becela, erruqui zaiten nizaz. Indazu arren escatzen dizudan gucia.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh biotz be-  
raa! ¡Oh erruquitsua! ¡Oh Donce-  
lla gozo Maria!

*Escaria 33-garren orrian.*



**SAN JOSEKI III.-en BISITA.**

Zure amorio guciac nere Aita chit maitea, Jesus eta Mariagana-co amoriora bildu ciran; zure biotzera inoiz ere irichi etzan lurre-co gauzac-ganaco amorio galgarriric; zure zale eta deseo guciac chit ondo zucendu, eta gure biotzac bere Eguille onguilleari era gucietara zor dion, Jaungoicoaganaco amorio hura, au da, zale eta deseo gucien andiena, billatu zuten. Onegatic Zu cera izatez justua. Arren ez nazazu utzi gauza guciac gañ Jaungoicoa amatzearen bide zucen onetatic inoiz ere irteten: Berac bete dezala nere animaco lecuric onena; baña ; ay! nere argaltasunac eta



munduaren, demonioaren eta araguiaren eraso-aldiac ezurretarañoico icara sartzen didate; zure ejemplo chit ederrác animatzen nau, baña, gañera zure escu indartsua bear det, onequiñ eciñquizon gucíai gañ artu, aldapa gucíac azpiratu, eta Zurequiñ batera Jaungoicoaren gloriaz gozatzera atseguñ contentuzco erreinu artan sartuco naicelaco uste oso eta betea daucat, alabaña erreinu artaraco eguiñac guera. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh José justua! irichi zadazu Jaincoari arrazoiz eta bidez zor zayon amorioa izatea.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## LAUGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Bere izquetac eztauca garratztasunic,  
ezpada poz atseguin eta eztitasuna.

*(Sap. VIII, 16.)*

Mundu zaléac alaño poz atse-  
guña artzen dute alcar icustean,  
non egun osoac igarotzen dituz-  
ten beren izquetan. Jesus Sacra-  
mentatuaren aurrean dembora  
gogoz ematen ezpadegu, da ce-  
ren Jaun au guchi maite degun.  
Santuac-lurrean ere Jesus Sacra-  
mentatuaren aurrean topatu zu-  
ten cerua. Santa Teresac, híl



ezquero bere alaba erligiosa bati aguertu, eta esan cion: «*Ceruan gaudenoc, eta lurrean biciceratenoc berdiñ eta bat izan bear guera amorioan eta garbitasunean, cerucoac Jaungoicoaren izate zoragarriari beguira egonaz, eta lurrecoac Sacramentu chit santua adoratuaz, bada guc Jaungoicoaren izatearequiñ eguiten deguna bera equiñ bear dezute zuec Sacramentuarequiñ, guc gozatuaz, zuec neque-penac eramanaaz, bada desberdiñtasun au daucagu*» (Santaren bicitza Aita Riberac esribituan V. liburuco IV. buruan.

¡ Oh cere bicia gugatic gurutzean eman cenduen Bildots manchagabea! oroi zaite ni ere aimbeste oñace eta eriotz añ gogor-



raren costura Zuc erositaco ani-  
metaco bat naicelacoaz ; arren e-  
guizu Zu beti nere eta ni beti zu-  
re izatea, egun gucietan aldaree-  
tan nigatic sacrificatzen ceran ez-  
quero. Zure escuetan uzten naiz,  
nizaz nai gucia eguiñ dezazun :  
ematen dizut nere borondatea ;  
lotu zazu zure amorioaren locarri  
bigúñaquiñ, Zuc nai dezuna beti  
leyalqui eta cintzo eguiñ dezan ;  
aurrerontzean eztet bici nai, nic  
gogo dedana eguiteco, ezpada zu-  
re gogocoa dan gucia eguiteco.  
Urrutira zazu, Jauna, urrutira za-  
zu nigandic zuri gogoco etzazun  
gucia, eta indazu Zuri obeditzecoa  
beste gogoric eta Zu serbitzecoa  
beste zale eta deseoric ez izateco  
gracia.. ; Oh nere Salbatzalle go-



zoa! nere biotz guciaz nai dizut,  
ceren nic maite-izatea nai dezun;  
maite zaitut, ceren eciñ gueyago-  
raño maitatu bear cerana ceran.  
Zuc mereci aibat maitatu etzai-  
tudalaco damua daucat, eta Zure  
amorioagatic hill nai nuque. On-  
tzat ar zazu, Jauna nere deseo  
au, eta indazu zure amore gozoa.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh gucia de-  
zazuquean Jaungoicoa! santu e-  
guiñ nazazu.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI

### IV.-EN BISITA.

¡Oh nere Ama gozoa! gure es-  
talpe eta amparoa ceran orrec,  
cerorrec ceruan daucazun zori o-



naz Zurequiñ batera gozatzearen  
diña eguiñ nazuzu. Bai, nere Er-  
reguiña, nere bicitza, nere gorde-  
lecu, nere laguntza, nere indarra,  
nere poz atseguña eta nere espe-  
ranza, eguizu, zurequiñ ceruraco  
bidetic ni zucen joatea. Ondo da-  
quit, Jaungoicoaren Ama zu iza-  
nic, irichi deguidazuqueala nere  
eriotzeco orduan Jaungoicoare-  
quiñ ondo egoten lagunduco di-  
dan gracia bici eta eraguille bat,  
gracia onec azqueneraño onean  
irauten lagun dizadan. ¡Oh Ma-  
ria! becatari gañoac salbatzeco  
eta oyec betico galeran erortea  
galerazteco escu andico bitarte-  
coa cera, eta bitartecotasun onez  
baliatzen badira, zure erregu bat  
ascoco zaye, ceren bicitza eguiaz-



coaren Ama Zu ceran.

ITZ-ALDI LABURRA. Nere Ama,  
nere esperanza, eguizu ni naicen  
guci au Jesusena izatea.

*Escaria 33-garren orrian.*

**SAN JOSERI IV.-en BISITA.**

¿Norc seculan zuc becela jaquiñ  
du, Aita chit justu eta Santua, ce-  
re bicimoduco lan eta eguiñquizú-  
nac betetzen? Mundu onetaco on-  
do izatearen oñ eta cimendu di-  
ran, eta oraindic birtute modu gu-  
cietan jarduteco gai eta bide be-  
cela ere beguira litezquean fami-  
liaco quezca eta eguiñquizúnac,  
Zuretzat santutasunaren goyene-  
ra igotzeco gai eta bide izan ci-  
ran. Nazareth-eco eche pobre  
artaco buru eta nagusi izan ciñan



becela, guizalditic guizaldira igaroco da zure icena familiaro lan eta eguiñguizunac betetzen, gucien ispillu bicia becela. Cristaua dan familiaro, zure familiaro antz eta irudico izan bear du, gobernu onaren, amorioaren eta paque gozoaren ejemplo ona emanaz. Ez nadilla ni secular izan nereen artean errodua sartzeco bide; izan nadilla beti paquearen, adisquidetasunaren, alcarganaco amorioaren gai eta bide. Onegatic natorquizu, Aita guciz justu eta Santua, Zu bisitatzera, onegatic deitzen dizut Jesus eta Mariarequiñ batera, bicitza onetan soseguaren sustraya eta bestean ceruco zoriontasunaren asiera diran birtute umill eta balio andico



ayec escura ditzadan. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Echecho birtuteen ispillu bicia, eguiñ nazazu cere antzeco.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## BOSTGARREN ECUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Chorichoac bere burua gordetzeco zulo bat, usa tortolac bere chitechoac ipiñtzeco cabi bat topatu cituzten. Zure aldareac, oh ejercituen Jauna, nere Erregue eta nere Jaungoicoa.

*(Psalm. LXXXIII, 4.)*

**N**ere Jaungoico, Erregue eta Jauna ; norc leguidaquedan nere sentidu guciac mingañ biurtzea, Sacramentu jaungoicozco onetan aguertzen diguzun amorioaren pintasuna alabatu eta beragatic bear



becelaco esquérrac emateco, bada  
Sacramentu onetan prest zaude  
zure creatura triste onbear au adi-  
tu eta consolatzeco. Atrebitzen  
naiz, Jauna, esatera, gueyegui-  
coa dala guizónai diezun onguinai  
eta amorioa, ceren eman ciñieza-  
quen gucia Sacramentu orretan  
eman ciñien, Zu maita cintzaten.  
¡Ay nere Jesus chit maitagarria!  
iguzu Zu asco maitatzeco amorio  
chit bici bat, alabaña, arrazoi ezta,  
amorio añ iracequiaz maite gai-  
tuen Jaun bat, amorio epelaz mai-  
tatzea; ceregana nazazu, zure a-  
morioaren locarri atseguñaquin.  
¡Oh majestade eta ontasun muga-  
bagueác! añ maite dituzu Zuc gui-  
zónac, aimbeste pintasun eguiñ  
dituzu guizónac maita zaitzaten,



eta, guciaz ere, banacac dira Zu maite zaituztenac. ¡Oh Adanen semeen esquer beltz itsusia! Baña ¡ay, Jauna ni ere esquergabe orrietacoa izan naiz! Baña aurrera-coan orrela izango ez naiz. Nere al guciaz Zu maitatzeco, eta Zu beste inor ez maitatzeco asmo erabaquian nago. Zuc onela mereci dezu, eta nic atseguin eguin nai dizut. Eguizu oh nere biotzeco Jaungoicoa, nic zuri atseguin eguitea; ala eguingo didazula, uste det, eta eguitea escatzen dizut, zure Pasio sagraduaren merecimentuacgatic. Eman zaizquiotzu lurreco ondasunac, nai badezu, beren zale danari; nic nai eta billatzen dedana da, Zure amorioaren ondasun andi eta aberatsa.



Maite zaitut, nere Jesus, ontasun  
ondogabea, ceren nere ondasun  
gucia, nere atseguin contentu gu-  
cia eta nere amorio gucia zu ce-  
ran.

ITZ-ALDI LABURRA. Ene Jesus,  
maite zaitut, eta Zu besteric mai-  
te izan nai ezten.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI

V-EN. BISITA.

¡Oh munduco Erreguiña, aimes-  
te pecatu eguin ondoan gure Juez  
andienaren aurrean aguertu bear  
guera! ¿Nore gozatuco du bere  
aserrea? Jaun onec añ biciro nai  
dizun ezquero, eta Zuc añ maite  
gaituzun ezquero, ¡Oh Ama erru-  
quitsua! Zuc bezañ ongui ori e-



guiñ lezaqueanic eztago. Arren zabal zayezu ;oh Ama urricalt sua! zure biotz biguña gure negar eta oracioai. Eta bada zure mantupe segurura gatoz, zure Semearen aserrea gozatu eta bere adisquidetasunera biur gaitzazu. Zue eztiotu gorrotoric peccatariaiceñ eta gaiztoa dan, añ guchi despreciatzen dezu peccataria, baldiñ Zugana bideguiñ, eta eguiaz damututa zure bitartecotasuna escatzen badu; baicic orañdic cere escu indartsuaz libratzen dezu ernegaciotic, indartzen dezu eta laguntzen diozu uste eta confianza artzen. Arren ez gaitzazu utzi, Ama laztana, aric eta Juez jaungoicozcoarequiñ ongui jarriac icusi gaitzazuñeraño.



ITZ-ALDI LABURRA. Ama maitagarria, erregu zazu gugatic.

*Ezcaria 33-garren orrian.*

### SAN JOSERI V.-en BISITA.

Santutasuna arguiro beguietartzen duen animaren edertasunac añ biciro eta era miragarrian argui eguiten zuen, ¡oh nere Santua! Mariagan, nun Jaungoicoaren ongui-nai eta amorioa beregana eracarli, eta Jaun onec bere Espozatzat artu zuen. ¡Ceñ andia dan zure animaren edertasuna ere! Ez Jesusec, eta ez Mariac gogoan jo citzaqueen ecer zугan arquite zuten; ainguerúac zure animan ispillu chit garbi batean becela beguiratzen ciran; Serafiñac Jaungoicoaganaco zure amorioaren



garbitasunaz arrituac ceuden; Querubiñac Jaungoicoaren misterio ezcutatuac ezagutzeco cenduen arguitasunaz chunditzen ciran; eta cristau guciac Jesus eta Mariaren Biotz chit sagradu eta guciz garbien ondoan ipiñtzea ecere galerazten eztion zure biotz atseguñ gozoaren edertasunaz itsutuac gueratzen dira. ¿Nore leucaquean zurearen antzeco bioz ederbat? Au iristeco, Zugana nator, sarri eguiten dizquitzut nere icusaldiac zure animaren edertasuna icasi, eta pecatuaren itsusitasunez betea dagoen, bere argalque-riacgatic despreciagarria, bere griña itsusiagatic gorrotagarria dan nereari itsasteco. Josi zazu nere biotzean zure bitarte-



cotasun indartsuac nai duen guci-  
raco beti prest dagoen gracia  
jaungoicozcoaren bidez birtutea-  
ren edertasun paregabea, bicitza  
onen ondoren Jaungoicoaren e-  
dertasun esan al baño andiagoaz  
secula gucien seculetan zurequiñ  
batera goza dezadan. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Nere Aita  
eta amparo San José, irichi zadazu  
Jaungoicoaren antz-irudira utse-  
tic eguiñdaco nere anima loitu  
lezaquean gucia neregandic bo-  
tätzen.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---



pora beste ondasunic billatu eta  
uste ez dezadan. Onela eguizu ne-  
re Salbatzallea, Zure pasio chit  
Santuaren merecimentuacgatic.  
; Ah nere Salbatzalle sacramenta-  
tua! ; ceñ miragarriac diran zure  
amorioac somatu dituen bidéac,  
animac Zu maitatzea billatzeco  
eta iristeco! ; Oh Jaungoicoaren  
Seme beticoa! Zure amorio ira-  
zaquiarentzat asco diña etzan gu-  
gatic guizon eguiñ eta gurutzean  
hilltzea; baicic gañera Sacramen-  
tu orretan gueratu nai izan cen-  
duen, gure lagun, gure janari eta  
betico bicitzaren señale eta pren-  
da segurua izateco. Zu aguertu  
ciñan aurraren ichuran gambela  
batean, pobre eta beartsu lante-  
gui umill batean, eta gaizquillea



becela gurutze batean, eta egun oro aguertzen cera orañ gure al-dareetan oguiaren antz irudien bean. Jauna ¿cer gueyago soma centzaquean Zu maitatzera gu beartzeco? ; Oh Ontasun ondoga-bea! ¿Noiz eguiaz eta benaz asi-co naiz zure amorioaren piñtasu-nai bear becela eranzuten? ; Ah, Jauna! Zu maitatzeco ezpada bici nai eztet. ¿Cer serbitzen dit biciac, nigatic hill zan Salbatzallea maitatzen igarotzen ezpadet? Eta ¿guci ori gozatsua, guci ori ederra eta guci ori maitagarria ceran ori beste nor maitatu bear det? Bici bedi nere anima bacarric Zu maitatzeco; amorioz iracequi bedi, zure amorioaren piñtasuna gogoratzean; eta gambela, gurutzea



eta Sacramentuaren icenac adi-  
tzean, sutu bedi Zugatic gauz an-  
diac eguiteco zale eta deseoetan.

ITZ-ALDI LABURRA. Eguizu, Jau-  
na, ni gauza gucientzat hill, eta  
Zu besteric ez maitatzea.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI

### VI-EN BISITA.

Zu cera ; oh Doncellá gucziz gar-  
bia! Andre bacar hura, norengan  
Salbatzalleac bere atsedan lecua  
topatu zuen, eta nori ecer ere  
gordegabe, bere ondasun guciac  
bere contura eman ciozcan. Arra-  
zoi onegatic onratzen du Elizac  
zure sabel garbia, nun, mundua-  
ren salbacioari asiera eman eta  
Jaungoicoarequiñ guizonen arte-



co adisquidetasuna eguiñ zan. Zu  
cera ¡oh Jaungoicoaren Ama an-  
dia! zure ¡garbitasuna loitzera  
iñolaco becatarie secular escuric  
sartugabeco baratza ichi hura.  
Cera Eliza Santua apañtzen du-  
ten lore guciac Jaungoicoac ipiñi  
cituen lorabaratx eder hura, eta  
oyen artean umiltasunaren biole-  
ta, garbitasunaren lirioa eta cari-  
dadearen arrosa. Zu cera Jaun-  
goicoaren paradisoa: Zugandic ir-  
ten zan lur gucia ongarritzen duen  
ur bicizeco iturri hura. Alabatzen  
zaitut, Doncella chit santa, mun-  
du guciari prestatu diozcatzun on-  
dásunacgatic, bada Zu cera onda-  
sun eta mesede guciac gugana-  
tzeco urbide osasungarri hura.  
¡O nere Ama!, irichi zaiizquidatzu



nere salbacióraco bear ditudanac.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Oh Maria!  
ene Ama laztana, erregu zazu  
nigatic.

*Escaria 33-garren orrian*

### SAN JOSERI VI.-en BISITA.

Arritua gueratzèn da Maria Don-  
cellaren garbitasun gucizcoa eta  
bere amorio iracequia beguiratzen  
dituen anima; baña Zuri beguira-  
tzean, Aita chit justu eta santua,  
zure Esposa maitagarriac becela  
graciaren pribilegioa jatorriz izan  
etzendüela, eta beragatic, zure  
birtuteac cerorrec irabaciác izan  
cirala, gogoratu, eta santutasun  
añ andira igoa icusten zaituda-  
nean, poz atseguñez betetzen da  
nere anima, ni ere Adanen óndo-



rengo on-bear triste bat naicelario,  
birtutearen goyenera igo nite-  
quealaco esperanza gozoa artuaz.  
¡Oh Mariaren Esposo chit gar-  
bia! Aragui lotsagabetu eta atsác  
espirituai piztutzen dion guerra  
bicia da bicitz onetaco naigabe  
eta pena andienetacoa; inola ere  
cutsutu eta loitugabe, araguiari  
dagoquion guciaren gañetic joan  
bear duen anima azpian daucan pe-  
ligro andienetaco bat. Zugana na-  
tor, ene Aita, eta tentacioac era-  
sotzen badidate ere, oriei ez eguie-  
zu utzi ni azpiratzen; atoz niri  
laguntzera; sentieraci zadazu zure  
escuco maquilla coroatzen duten  
lirio zoragarrien usai chit garbia,  
nere espiritua onela indartuta, bu-  
rutacio galgarriac neregandic a-



yenatu, eta munduaren bicitza eta salbacioa dan Espiritu gucziz garbi arequiñ ondo baño obeto batua guera nadiñ.

ITZ-ALDI LABURRA. Mariaren Esposo chit garbia, lagun zadazu biotzeco garbitasuna iristen.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## ZAZPIGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Seguru egon zaitezte, *ni neran* egongo naicelacoan beti zuequin secula gucien azqueneraño.

*(Matth XXVIII, 20.)*

**B**ere ardiacgatic, au da, gugatic bicia eman zuen Arzai amoriotsu orrec, bere heriotzean ere gugandic aldeguiñ nai izan etzuen. E-



men nago, dio amorio andiaz, emen nago, nere ardíac, emen naucazute beti ceroquiñ; zuecgatic gueratu nai izan nuen lurrean Sacramentu onetan; emen topatuco nazute nai dezuten gucian, emen egonaz zuei laguntzeco eta zuec poztutzeco, eta zuequiñ egongonaiz munduaren azqueneguneraño. Esposoác etzuquean utzi nai baccarric luzaro bere Esposa Eliza, dio Alcantara-co San Pedroc, eta onegatic eguiñ edo ipiñi ■ zuen Sacramentu ori, bera or guertuaz, Esposa oni eman al ciozaquean lagunic onena bera dalaco.

¡Oh Jaun eta Salbatzalle chit amoriotsua! orañ natorquizu aldare orretan zu bisitatzera; baña Zuc amorio paregabe andiangoaz



pagatzen didazu bisita au, comunio sagraduan nere animara zatocenean. Orduan cerori nere beguien aurrean jartzeaz gañera, nere janari eguiñ eta ceran guci ori oso nerequiñ batu, eta niri ematen zatzaizquit, eguiaz esan alizateco Zuri: Nere Jesus ona, orañ guci ori nereza zaitut. Eta, bada, Jauna, guci ori niri ematen zatzaizquidan ezquero, gauzajustu eta bidezcoa da, ni ere guci au zuri ematea. ¡Oh amoriozco Jaungoicoa! oh nere biotzeco omorioa! ¿Noiz irichico da eguna, ceñean ni guci au zurea izango naicen, itzetan ezecic lan edo obretan ere? Gueitu zazu, Jauna, nigan graci au iristeco us-te eta esperanza, Zure odolaren



merrecimentuacgatic, eriotza baño  
len guci au zure icusi nadiñ. Zuc  
gucien erregúac aditzen dituzu,  
adiitzazu, bada orañ, ciñez eta be-  
naz maitatu nai zaituen nere ani-  
maren erregu-escariac ere. Nere  
Jesus -gozoa, nere indar guciaz  
maitatu nai cinduquet, eta aguin-  
tzen dizquidatzun gauza gucietan  
obeditu nai dizut, nere irabaci,  
consuelo eta ordañ-sarigabe; ba-  
carric amorioz, bacarric Zuri a-  
tseguñ eguiteagatic, bacarric Zu-  
re gogoan sartzeagatic, eta aim-  
beste fiñeza zor diozcadan zure  
Biotz chit amoriotso orri atseguñ  
eguiteagatic. Nere ordañ-saria,  
Jauna, bicitz onetan Zu biciro  
maitatu, eta ceruan Zu beti icusi  
eta gozatzea izango da. ¡Oh Aita



Eternoaren Seme laztana! gogo onaz ar itzazu nere libertadea, nere nai eraguille edo borondatea, eta nere ondasun guciac eta ni naicen guci au, eta Zu eman zaquizquit neri. Maite zaitut, eta bi-llatzen zaitut; Zure egarriz nago bacarric Zu nai zaitut, bacarric Zu nai zaitut.

ITZALDI LABURRA. ¡Oh nere Jesus! ¿noiz irichico da ni Zure-quiñ betico batutzeco zori oneco garaya.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI

### VII.-EN BISITA.

¡Oh ceruco Erreguiña! Zuzaz itzeguiten du escritura sagraduac, dionean: ¿Nor da egun sentiaren



*guisa, illarguia becela eder, eguzquiari becela arguia dariola igoaz dijoan au?* Egun sentico argui ederra becela etorri ciñan Zu mundura cere santutasunaren argui miragarriaz Justiciazco eguzqui jaungoicozcoaren etorrera aditzera emānaz; eta Zu mundura aguer-tu ciñan egunari ongui eman liza-yoque salbacioco eta graciazco egunaren icena. Ederra cera illarguia becela, ceren eguzquiaren antz andiagoco ceru-arguiric eztagoen becela izar gucien artean, añ guchi dago creatura gucien artean Jaungoicoaren antzecoago dan creaturaric, Zu baño, bada Zuc cere birtuteen argui biciaz, deseguiten dituzu gure adimentuco illun béltzac, illarguiac eguz-



quiagandic artzen duen arguia-  
ren bidez gauaren illun-abárrac  
deseguiten dituen becela. Gu-  
ciaz ere Zu illarguia baño eder-  
ragoa cera, ceren Zugan ez itza-  
lic eta ez mancharic arquitzen  
dan: eguzquia becela esleitua ce-  
ra, ceren Eguzgui jaungoicozco  
Jesucristo guizónen artean eslei-  
tua izan zan becela, Zu ere andre-  
en artean esleitua izan ciñan. Zure  
pribilegio guci oyec animatzen  
gaituzte gure uste eta confianza  
gucia zugán ipintzera, batez ere  
eracusten zagunean, Elizác era-  
custen digun becela, gure uste  
eta esperanzaren icenaz zuri dei-  
tzen.



ITZ-ALDI LABURRA. Maria, Jaungoicoaren Ama, erregu zayozu Jesusi nigatic.

*Escaria 33-garren orrian.*

**SAN JOSERI VII.-en BISITA.**

**E**spirituco gloria eta anditasun guciac, humiltasunean dauca bere sustraya; aci guciz chiqui onetatic irten dira santutasunic andienac; beragatic, nere Aita chit maitea, Jaungoicoaren Ama humill, zure Esposaren ondoan zuri beguira jarrita, eciñ negoque zure humiltasunean pensatugabe. Munduco andiac zu ecertan artzen etzinduzten, munduác utsean cenducan, mundutar arroen beguietan bearguille pobre bat ciñan; baña Jaungoicoaren beguietan bere Seme



Bacarraren Aita usteco izateco diñacotzat egon ciñan. ¡Ceñ bes-telacoac diran Jaungoicoaren iritziac guizónen iritziacgandic! I-richi zadazu, San José chit humilla, eguiaz eta beguíaz Jaungoicoaren aldean berenez despreciagarriac diran becela, mundua eta bere anditasúnac icusteco; nic nere burua naicen becela, erbal-tasun eta aultasunez betea, emacumearen chit semea, pecatuaren usteltasunean sortua ezagutzeco gracia. Ayena bedi nere biotzetic nere buruaganaco amorio eragabea, eta bete beza biotz au Jaungoico eguiazcoaganaco amorio iracequiac, bada Zurequiñ batera Berarequiñ bici nai nuque secula gucien seculetan. Amen.



ITZ-ALDI LABURRA. Patriarca  
Santua, irichi zadazu nere ecerez-  
tasunaren ezagüera oso bat.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## ZORTZIGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Jeiqui zaite, ene adisquidea,  
ene ederra, eta atoz.

*(Cantic. II, 10.)*

Sacramentu chit Santuan Jesuse-  
quin egotera dijoan nornai anima-  
ri esaten dioz a Jaun jaungoicoz-  
coac Esposa sagraduari esan cioz-  
can itzac: *Jeiqui zaite, eta atoz  
laster, ene maitea ene ederra.* (Cant  
II, 10). Nerequiñ egotera zatocen  
anima, *jeiqui zaite* cere miserie-



tatic, bada zu graciaz aberasteco nago emen.— *Ea, zabilta, irichi zaite nigana, eta ez nere anditasunaren beldur izan, alabaña anditasun au Sacramentuan umillatua dago, zuri beldurra quendu, eta confianza emateco. Nere adisquidea cera, ez nere etsaya: nere ederra cera, ceren nere gracia edertu zaituen; atoz ona, nerequiñ laztan zaite, eta nai gucia escazazu, uste eta confianza guciaz.*

Santa Teresac esaten zuen gloriaco Erregue andi au bere anditasun edo majestadea oguiaren antz-irudipean estalita dagoela Sacramentuan, uste eta confianz andiangoaz joan gaitean bere bular jaungoicozcora.

Irichi gaitean, bada, Jesusen-



gana confianza eta amorio andiaz, batu gaitean Berarequiñ, eta esca zaizquiogun mesede asco. ¡Oh Jaungoicoaren Seme guizon eguiñ eta niganaco onguinayez Sacramentuan zaudena! ¿cer poza, nolaco atseguñ-contentua barrundaco ezdet orañ, nere anima añ maite duen Jaungoicoaren ontasun eta anditasun neurrigabearen aurrean nagoela jaquiñic? Jaungoicoa maite dezuten animac, zauten lecuan zautela, naiz ceruan edo lurrean, maita zazute orañ nigatic biciro Jaun au. Nere Ama maite Maria chit-Santa, lagun zadazu Berá maitatzen. Eta Zu, Jaun chit amorio-tsua, bacarric Zu izan zaite nere amorioaren gai eta eguiñ zaite ne-



re borondate guciaren jabe. Esqueñtzen dizut nere adimentu gucia, zure ontasunean ezpada pensa eztezan; zuri uzten dizut nere gorputza ere, zuri atseguin eguiten lagun dizadan, eta aguiñtzen dizut nere anima, dan gucia zurea izan dediñ. Guizon guciac ezagutzea nai nuque zuc diezun onguinai irazequia, oh nere Jaun adoratua, guciac bacarric Zu onratzen eta zuri atseguin eguiten bici ditecen, Zuc nai eta mereci becela. Nic beintzat Zure edertasun cabugabeaganaco amorioan iracequia bici nai det. Emendic aurre-ra al guciac eguiñgo ditut zuri atseguin emateco, zuri gogoco zazun ecer ere ez uzteco asmo sendoa eguiñaz, cernai neque eta sa-



crificio costatzen bazat ere, naiz gauza guciac eta bicia bera ere galtzea. Zori onecoa ni baldiñ gauza guciac galtzen banitu, Zu nere izateco, Zu nere Jaungoicoa, nere ondasuna, nere amorioa eta nere on gucia ceran ori.

ITZ-ALDI LABURRA. Jesus nere amorioa, egon zaite beti nerequiñ.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI VIII.-EN BISITA.

**M**aria gozo, arrigarri eta beti maitagarria, eciñ esan liteque zure icen santua, zure amorioan biotza iracequi gabe, eta eguiaz zu maite zaituztenac secular zuzaz gogoratzen ez aldira, dembora berean Zu maiteago izateco zalea



eregan sentitu gabe. Oh ceruco  
Erreguiña, indartu zazu gure ar-  
galtasuna, eta lagun zaguzu cere-  
scu eta al izate andiaz Zure mai-  
razalle iracequi izango gueran e-  
ran. ¿Nor dago alderago Jesu-  
risto gure Jaunari itzeguiteco,  
Zu, berarequiñ añ gozotoro itze-  
guiten dezun ori baño? Itzegui-  
zu, bada, Ama maitea, itzeguizu,  
zure Semeác aditzen zaitu, eta  
escatzen diozun gucia guretzat  
irichico dezuta.

ITZ-ALDI LABURRA. Ene Ama,  
eguiu nic Zu beti gogoan era-  
biltzea.

*Escaria 33-garren orrian.*



**SAN JOSERI VIII.-en BISITA.**

Nola nai ere alcarren antzeco izateā adisquide izateco bide andibat dalaco, besteric ez becela maitte ditu San Josec biotz umillecoac. Birtute onetan señalatuenac izan diran santuai, beste iñori baño gueyago nai izan die Patriarca gloriatsuac, pobre eta mundúac ecertan eztauzcatzienac, eta andi eta goimallacoac diralaric, beren burúac chiqui eguiñ dituztenac, auda, Jaungoicoaren escu onguilleác andien mallan ipiñi dituelaric, munduac despreciatzen dituenaguñ berdiñ beren burúac eguiten dituztenac, oyec dira san Joséc lenengo lecua ematen eta laguntzen dienac. Pobre eta naiga-



be-penetan daudenen amparatza-  
llea da bera; umiltasun eta po-  
brezac biciro tiratzen eta mugui-  
eracitzen dute bere biotz biguñ  
eta gaitzgabea. ¡Aita erruquitsua!  
Zuc ondo ezagutzen dituzu nere-  
quin nere senideen, eta gaur alde-  
aldean guizon gaiztoen escupe go-  
gorrean dagoen nere Ama maite  
Eliz eguiazcoaren premia; erre-  
gu zazu guciocgatic, eguizu Je-  
susequin Mariaganaco bitarte-  
cotza, bicitza onetaco miseri eta  
gaiztaqueriac azpira ez gaitzaten,  
eta betico gloria eta zori ona iris-  
tea mereci dezagun. Amen.

ITZALDI LABURRA. Cristan-erriaren  
Amparatzalle erruquitsua, lagun  
zadazu nere bear eta premietan.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## BEDERATZIGARREN EGUNA.

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

. . . . Urrezco cerrenda edo faja  
batez bularrac lotuta.

(*Apoc. I, 13.*)

San Juanec Apocalipsis-ean con-  
tatzen du urrezco cerrenda batez  
bulárrac lotuta icusi zuela Salba-  
tzalle jaungoicozcoa, onequiñ a-  
ditzera emanaz, nola ama amo-  
riotsu batec billatzen dituen bere  
seme-alábac, bulárrac descarga  
deguiozcaten, ala Jauna ere alda-  
reco Sacramentu chit Santuan dei-  
ca dagoquizula, bere Biotz bigu-  
ñac an prestatuta dauzcan gracia  
ugaritsuac gure gañera išurtzeco.



Aita Baltasar Alvarez benegarriac icusi zuen nola escuac betean ceuzcan ondasúnac nori emango ote ciozcan billa Jesus Sacramentuan cegoen; eta Sena-co santa Catalina comunio sagradua artzera alderatzen zanean, aur bat bere amaren bularra artzera bezañestu eta larri joan oi zan.

¡Oh Aita Eternoaren Seme Bacar chit maitagarria! Ezagutzen det, Zu cerala maitatzea gueyen mereci dezun maitagarria, eta orregatic zuc mereci aibat maitatu nai cinduquet, beintzat anima batec maita zaitzaquean gucia, eta eciñ ucatu badezaquet ere zuganaco amorioari desleyal izan naitzayola, eta Zu maitatzea, eta orañ eliz onetan nagoen becela,



zure ondoan egotea mereci ezte-  
dala, ezagutzen badet ere, ondo  
daquit Cerorrec escatzen didazu-  
la, maita zaitzadala, eta aditzen  
det nola esaten didazun: *Ene se-  
me, indazu zure biotza.... cere biotz  
guciaz maiteco dezu zure Jaun eta  
Jaungoicoa.* Oraindaño gorde ba-  
didazu bicia, eta nere pecatuacga-  
tic ondo merecitua nuen becela,  
infernura bota ezpanazu, nere  
gaiztaqueria ezagutu, eta eguiaz  
zugana biur nadiñ, eguin dezu.  
Ea, bada, Jauna, nic Zu maita-  
tzea nai dezun ezquero, ona nun  
naucazun, ene Jaungoicoa; zure  
escuetan jartzen naiz ; oh Jaun-  
goico ona ! guci ori ontasun eta  
amorioa cerana , zure escuetan  
jartzen naiz, eta nere biotzaren



Jaun eta Erreguetzat esleitzen zaitut; Zuc biotz au escatzen didazu, eta nic pocic eman nai dizut; otza eta gogortua dago; baina Zuc artu nai badidazu, bereala mudatucodezu. Muda nazazu, Jauna, muda nazazu, oraindano bezañ esquergabea gueyagoren gueyago izan nai ez tet, eta añ maite nauena, eta amorio neurrigabea mereci duena añ guchi maitatu nai ez tet; arren eguizu emendic aurrera berotasun guciaz Zu maitatzea, eta igaroco nere bicitzaco esquergabequeri eta epeltasuna nolerebait ordañtzea.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Ene Jaungoicoa! Zu maitatu nai zaitut, eta zu maitatuaz ezpada bici nai ez tet.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*



MARIA CHIT SANTARI  
IX-EN BISITA.

Adorātzen zaitut, Don'cella garbi  
Maria, Zu cera Jesucristoren ur-  
rena gure esperanza. Ar itzazu  
biotzetic maite zaituen, beguira-  
menturic andienaz onratzen zai-  
tuen, eta sendo eta firme bere us-  
te eta confianza zugaran dauzcan  
peccatari baten erregu-escariac.  
Zure balimentu eta bitartecotza-  
gatic irichi uste det betico salba-  
cioa. Erregutzen dizut, bada, di-  
dazula escua nere peccatuen carga-  
petic irteteco, nere adimentuco  
lauso illùnac deseguiñaz, gogo eta  
zale eragabéac nere biotzetic sus-  
traiz atereaz, nere etsayen aleguiñ  
eta tentacioac atzera eraciaz eta



nere bicitza alatan zucendu eta gobernataz, nun zure estalpe eta amparoaren bidez ceruco doatsutasuna iristea merecico dedan.

ITZ-ALDI LABURRA. ! Oh Birgiña chit Santa, gure esperanza! erre-gu zazu gu peccatoriocgatic.

*Escaria 33-garren orrian.*

**SAN JOSERI IX.-en BISITA.**

Jaungoicoaren Semea bereetara etorri zan, eta beréac artu etzuten, beréac erredimitzera etorri zana, guizónac chit gaizqui tratatu zuten; bacarric Zugandic eta zure Esposa garbiagandic, Patriarca gloriatsua, artu cituen serbitzu eta on andíac, negarrezco bicilecu onetan jayo ciñanetic; Zu izan ciñan guizarrazac bere Jaun-



goicoari zor dion leyalasuna cin-  
tzo gorde cenduena; beragatic ar-  
razoi andiaz ezagutu bear zatzu  
gañerāco beste guizon gucīaz ga-  
ñeco garaitasun señalatua ; eta  
merecitu cenduen. Jesus amorio-  
tsuagandic, zure Esposari ciona-  
ren urrena, besteri ez becelaco  
onguinai eta amorio bat zuri iza-  
tea; Zu izan ciñan Aur jaungoi-  
cozcoaren gordetzalle bacarra.  
; Cer gai beguietaratzen eztio gu-  
re adimentuari, bacarric zure es-  
cu eta balimentuaren gogoracio o-  
nec! Jesucristoc bere amorez e-  
mandaco charro bat ur asco es-  
timatzen eta pagatzen badu, ; no-  
la pagatuco dizquitzu zuri, Be-  
rarequico iduqui cenduen con-  
tu eta arret andia, bera gordetze-



co eguiñ cinduen sacrificioac, be-  
ra mantentzeco artu cinduen ne-  
quéac, berari izan ciñion biguñ-  
tasun samurra? Zure bitarteco-  
tasunean daucat, bada nere uste  
eta esperanza; zure escuetan ipin-  
tzen ditut nere animaren joan-e-  
torriac, bere premien erremedioa;  
izan zaite nere laguntzalle bici-  
tzan, eta nere amparo eta gorde-  
tzalle eriotzeco orduan, zure la-  
gun izan nadiñ betico glorian. A-  
men.

ITZ-ALDI LABURRA. Escu andico  
nere amparatzallea, berealatic zu-  
ri uzten dizut nere bicitzaren eta  
nere eriotzaren contua.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## AMARGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestatseraco oracioa 29-garren orrian.*

Nic, nere Jaungoicoa, lo eguiñ-  
go det paquean eta descansa-  
tuc naiz zure aguinduetan.

[*Psalm. IV, 9.*]

¡ Oh munduco eroac, dio san A-  
gustiñec, ¿ nora zoazte zuen bio-  
tzeco zale eta deseoac asetzera?  
Atozte Jesusengana, bada bacar-  
ric Berác eman leguizuquee bi-  
llatzen dezuten atseguñ conten-  
tua. Anima nerea, zu ere etzaité  
izan zoro oyetacoa, bacarric Jaun-  
goicoa billa zazu, billa zazu on-  
dasun guciac beregan dauzcatzien  
ondasuna, San Agustiñec berác



dion becela. Eta Jaun au laster  
topatu nai badezu, orra nun dau-  
cazun cere aldean; esan zayozu  
cer nai dezun, bada zu enzuteco,  
poztutzeco bear dezuna zuri ema-  
teco dago sagrarioan. Santa Te-  
resac esaten zuen, guciac iristen  
ez dutela lurreco erreguéai itze-  
guitea, eta iñoiz cembaitzuec bi-  
tartecoren baten bidez iristen du-  
tela, itzeguitea. Baña Zurequiñ  
itzeguiteco, oh gloriaco Erreguea,  
bitarteco billa ibilli bearric ezta,  
cerren Sacramentu orretan beti  
prest zauden gure erregu eta es-  
cariac aditzeco. Lurreco erregueac  
urtean banaquetan eman oi dute  
beren mendecoai aditzeco lecua;  
baña Zuc Sacramentu orretan,  
gauez eta egunez, guc nai gucian



ematen diguzu aditzeco lecua.

¡O Jaungoico amoriotsu, comunic  
sagraduan guri ematen zatzaz qui-  
gunā, eta gure escariac enzuteco be-  
ti aldareetan zaudena! eracar itza-  
zu ceregana zure amorioaren gozo-  
tasun indartsuaz zure ontasun on-  
dogabeaz zoratuta, zure gogoco  
dan hura eguitea beste zale eta  
deseoric ez duten ayen biótzac,  
eracar zazu, Jauna, Zu maitatuaz  
zure amorioaren mendeco izan  
nai luquean nere biotz onbear  
tristeia ere. Aurrerontzean nere  
ondasun, esperanza, gogo eta zale  
guciac. nere anima eta gorputza  
betico utzi eta guciac zure on-  
tasun neurrigabearen escuetan uz-  
ten ditut. Eguizu, Jauna, nizaz,  
zuri gogoco zatzuna; Zuc eguiten



didazunaz gueyagoren gueyago  
iñolaco esparic aguertu nai eztet;  
Zuc eguiten dezun gucia zure  
Biotz amoriotsutic nere oneraco  
jayotzen dala, ondo daquit; Cer  
ere Zuc nai dezun, hura da nic  
ere nai dedana, orañ eta secu-  
la gucian. Nigan eta nizaz gogoco  
zatzuna eguizu; guci au zure na-  
yera jartzen naiz, ceren zure bo-  
rondatea gucia ona, gucia santua,  
gucia paltagabea dala, daquidan.

¡ Oh nere Jaungoicoaren boron-  
datea ! ¡ ceñ atseguña zaitudan !  
Bai, zurequiñ beti batu eta laztan-  
duta bici nai det; Zuc nai dezuna,  
naico det nic, zuri atseguñ za-  
tzuna, izango zat atseguñ. Ene  
Jaungoicoa, ene Jaungoicoa, in-  
dar nazazu, eta aurreracoan ba-



carric zuretzat, bacarric zure ontasun azquengabea maitatzeco bici nazazu. Hill nadi ni zure amorioagatic, Zu nereagatic hill ciñan ezquero. Gorroto diet zure borondatea utzi, eta nereea eguiñ nuen egun ayei. Maite zaitut, nere Jaungoigoaren borondatea, Jaungoicoa bera aimbatean, ceren Jaungoicoa bera ceran, nere biotz guciaz maite zaitut, eta naizen guci au zuri ematen naitzazu.

ITZ-ALDI LABURRA ¡Oh nere Jaungoicoa ! eguiñ bedi nigan zure borondate santua.

*Gogozco Comunioa 27-garren orrian.*

MARIA CHIT SANTARI

X-EN BISITA.

Eguiten dizquitut nere agur u-



míllac, oh Maria, graciaz betea,  
Jauna da zurequiñ. Eguiten diz-  
quitzut nere agúrrac, oh gure a-  
tseguñ contentuaren iturburua,  
bada zure bidez Jesucristoc gure  
condenacioco sentencia urratu, eta  
bendiciozcora aldatu zuen. Agur  
Jaungoicoaren gloriaren egon-le-  
cua eta ceruco Erregueren eche  
sagrada. Zuc, Jesucristorequiñ  
ongui ipiñi cinduen guizónac Jaun-  
goicoarequiñ. Agur, peccatarien  
Ama, eguiatz eta beguiatz mereci  
dezu bedeincatua izatea, ceren an-  
dre gucien artean bacarric Zu i-  
zan ciñan gure Eguillearen Ama  
izatea mereci cenduena, eta orre-  
gatic deitzen dizute zori onecoa  
erri eta erreinu guciac. ; Oh Ma-  
ria! zugan ipintzen badet nere



uste eta confianza, irichico det nere salbacióraco bear dedan gucia, eta, Zuc cere mantupean artzen banazu, eceren beldur izango ez naiz, bada zure deboto eguiazcoentzat gure etsayen erasóac ecer eguiñ eciñ dioten muralla sendoa cera.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Jaungoicoaren Ama gorde gaitzazu.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSERI X.-en BISITA.**

Joya aberatsean sartutaco arri chit preciotsuac, argui biciác botatzen dituzten becela, zure bicitzan argui biciác darizte era gucietaco zure bertute edérrai; eta eguia bada ere lurreco zure bicitzac arguiric bota etzuela gui-



zónen beguietara ezpada bacarric  
Jaungoicoarenetara, gaurco egu-  
nean Elizác chit gora alchatu du  
bicitza au, cristau gucien beguie-  
tan chit arguitsu aguer dediñ; Zu  
izan bear cera mundu galduaren  
pozoni eriozcoaren, mundutárrac  
itsutzen dituen bere pompa eta zo-  
raqueri, atseguñ-contentu eta an-  
dinayaren contraco senda-belar;  
Zuc orien contra aguertzen dituzu  
modestia, templanza, umiltasuna  
eta cristau batec berez becela bear  
dituen eta Zugan añ biciro icusi  
ciran bertuteac. Sayets gucieta-  
tic beguiratuta, Zu cera crístau  
gucien lenena, eta Cristoren Le-  
guea jarraitu nai degunoc zure an-  
tzeco izatera sayatu bear guera.  
¿Noiz irichico naiz, ene Aita mai-



tea, zure antzeco izatera? Ondo daquit onetan dagoela betico zori-ona ezecic, lurreco suerte ona ere; beragatic, nere animaren zale eta deseoa guciáz erregutzen dizut, irichi zaizquidatzula zure bertuteen ezagüera oso eta chit arguia, zure santutasunaganaco amorioa, eta Zugan añ arritzen nauen bertute andian zure antzeco izateco laguntza andi eta eraguillea bera-requiñ betico gloria mereci dezadan. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Oh bertute gucién ispillua, arren eguizu zure antzeco izaten nic jaquitea.

*Oracioa 35-garren orrian.*



---

---

## AMAICAGARREN EGUNA.

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Zugandic urrutiratzen diranac  
galduco dira. [ *Ps. LXXII, 27* ].

Saya gaitean gure Arzay maite  
Jesucristogandic iñoiz ere ez alde-  
guitera, eta gure beguetatic Bera  
ez galtzera, esaten zuen santa Te-  
resac, ceren nola beren arzayaren  
ondoan dabilzan ardiac obeto be-  
guiratuac, zaituac eta maneatuac  
izaten baitiran, ala guc ere on eta  
mesede andiagoac artuco ditugun,  
Jesusi aldareco Sacramentu chit  
Santuan alderatzen gatzazquion  
gucian ; Oh nere Salbatzalle Sa-  
cramentatua! emen nago Zure aur-



rean, eta beste erregaloric nai  
eztet ezpada Zu serbitzeco go-  
go iracequi eta Zure amorioan  
irautecō gracia.

Alabutzen eta bedeincatzen zai-  
tut ¡oh fede santua! bada zuc era-  
custen didazu, ecen, aldareco Sa-  
cramentu chit Santuan, ceruco o-  
gui orretan, eztagoela oguiric, ez-  
pada or, eguiaz eta benaz Jesu-  
cristo nere Jauna dagoela, eta ne-  
re onguinai eta amorioz dagoela.  
Nere Jaun eta ondasun bacarra,  
sinisten det izatez eta benaz Sa-  
cramentu chit Santuan zaudela,  
eta gorputzaren beguías icusten  
ezpazaituzte ere, fedearen arguiaz  
ezagutzen zaitut ostia sagraduan  
ceru-lurretaco Erreguetzat eta  
munduaren Salbatzalletzat. ¡Ah



Jesus chit gozoa ! nere uste eta  
esperanza, nere salbacioa, nere  
indarrá eta nere atseguñ-conten-  
tua ceran becela, nic ere Zu orañ  
nere gogoracio, zale eta deseo gu-  
cien gai bacar izatea nai nuque.  
Atseguñago det Zuc orañ dezun,  
eta beti izango dezun eciñ gueya-  
gorañoco zori on eta gloriáz, naiz  
mundu onetan eta naiz bestean  
neronec izan nitzaquean on gu-  
ciaz baño. Zure zori on eta gloria  
neurri eta mugabaguea dala ja-  
quitea da nere atseguñen andiena.  
Erreina zazu, ene Jauna, nere a-  
nimaren gañean, dan gucia zuri  
ematen dizut, izan zaite beti bera-  
ren jabe. Nere borondatea, nere  
sentidùac, nere al-izate edo in-  
darrac izan bitez guciac zure a-



morioaren serbitzari, eta zuri atseguin eguiten eta gloria ematen ezpada mundu onetan orieci jardutea nai eztat. Sendo zazu, Jauna, nere asmo au, eta indaizquidatzu bera betetzeco bear ditudan indarrac.

ITZ-ALDI LABURRA. Ene Jesus, arren eguizu ni naizen gucia zure, eta Zu guci ori nere izatea.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI XI.-EN BISITA.

**A**ma urricaltsua, goza zazu zure Semearen aserrea, bada zu ceruen goyenean zauden ori mundu guciac ezagutzen zaitu gende gucien bitarteco indartsutzat. Erregutzen dizugu bada, oh Maria Doncella,



deguiguzula zure escarien laguntza Jaungoicoaren aurrean; lurreco ondasun guciac baño estimagarriago diran escariena; gure becatuac barcatutzera Jaungoicoa bera beartzen duten, eta gracia guciz ugaritsuac iristen dizquiguten escariena; gure etsayac ayenatzen, beren asmo galgarriac deseguiten eta beren aleguiñ gaizto guciac azpiratzen dituzten escariena.

ITZ-ALDI LABURRA. Nere bicitza eta esperanza, poztu nazazu, arren ez nazazu utzi.

*Escaria 33-garren orrian.*

### SAN JOSERI XI'-en BISITA.

**Z**ure itzalpe onguillean atsedenuen Jaungoicoaren Semeac, Patriarca gloriatsua, lurreco erbeste



onetan bicitu zanean, gu salbatze-  
co mundura etorri nai izan zue-  
nean; bero iracequiarequiñ bidez  
dijoan bat itzal atseguñ eta pres-  
ca antz osasungarria ematen dion  
arbola baten azpian pocic eser-  
tzen dan becela. Eta Jesucristoc  
zure itzalpean descansatu nai izan  
bazuen, eta bere neque eta pénen  
aringarria billatu bazuen, ¿au ere  
izan etzan eternidaderaco bidean  
goazen bitartean billatu bear de-  
gun gordelecú eta descantsua gu-  
ri emateco? Zugana nator, bada,  
San José maitagarria, Jesus chit  
maitagarriaren antzera; ar nazazu  
cere mantupean, gorde nazazu pe-  
ligro gucietan, eracus zadazu ne-  
re ez jaquiñean, poztu nazazu be-  
tico nere samintasunetan; ar na-



zazu zure aguindupean egon zan famili jaungoicozco onen artean, ar nazazu famili sagrudu onetan serbitzari bat becela bederic. ¡Cer suerte eta dicha nerea, Jesus, Maria eta Joserren serbitzaria becela nere burua beguiratzea! Bai, zuen serbitzuan eman nai det nere bici gucia; oraindaño nere gogoz munduari eguiñ diodan serbitzua be realatic utzi, eta zuen aguindupean jartzen naiz, nere Patriarca maitea, bici guciraco, aurreron tzean serbitzu orretara oso emana bicitzeco asmo osoan.

ITZ-ALDI LABURRA. Patriarca santua, irichi zadazu aurreracoan nere bici gucia Jaungoicoaren serbitzuan ematen jaquiteco gracia.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## AMABIGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Jaungoicoa amorioa da, eta amorioan irauten duenac, Jaungoicoagan irauten du, eta Jaungoicoac onegan. (*I. Joan. IV, 16.*)

Jesus maite duena, Jesusequiñ dago, eta Jesus onequiñ. San Felipe Neric, Elizacoac artzeracoan, Sacramentu chit Santua guelan sartzen icusi zuen becela, deadar eguiñ zuen: *Au da nere amorioa, au da nere amorioa.* Gutaco bacoitzac ere esan beza bada, Jesus Sacramentatuaren aurrean: orra or nere amorioa: au da nere gogoracio eta deseo gucien gai baccarra.



¡ Ab nere Jaun eta Jaungoicoa!  
cere Ebangelioan Zuc esan cen-  
duen, Zu maite zaituena, Zuc ere  
maiteco dezula, eta beragan bici-  
tzera etorrico cerala: maiteago zai-  
tut, bada nic, lurreco gauza gu-  
cíac baño: maita nazazu Zuc, Jau-  
na, ceren Zuc maite izatea gueya-  
goan daucadan, lurreco erregue  
guciac niri asco nai izatea baño;  
atoz, Jauna, eta jarri zaite bici-  
tzez nere animaco eche pobrean,  
iñoiz ere nigandic aldeguiño ez-  
tezun eran, edo obeto esateagatic,  
nic Zugandic beñere aldeguingo  
eztedan moduan. Zu, Jauna, cere  
creaturagandic iñoiz ere irteten  
etzera, baldiñ berác botatzen ez-  
pazaitu pecatuaren bidez; eta no-  
la igaroco demboran aimbeste bi-



der neregandic bota baizaitudan,  
 aurreracoan berriz ere ezbear au  
 guerta daquitan beldur naiz. Arren  
 ez utzi gaiztaqueri izugarri eta es-  
 quer beltz itsusi au inore munduan  
 eguiten, nola ere litzaquean. Zure  
 ontasunagandic aimbeste on eta  
 mesede artu ondoan, bere anima-  
 tic ostera Zu botatzea. Baña ¡ay  
 eta au neri guerta zadaqueala!  
 ¡Oh ez, zuri onelacoric nai ez da-  
 quizula, ene Aita; nayago det e-  
 riotza, Zuc ala nai badezu, ceren,  
 Zurequiñ batua hiltzen banaiz, Zu-  
 requiñ batua bicico naicen secula  
 gucietan. Bai, nere Jesus, au ala  
 izango dala uste det; Zuri laztan-  
 tzen naitzazu, eta Zure Biotz chit  
 sagraduarequiñ batu nai det, egui-  
 zu, bada, nie beti Zu maite izatea,



eta Zuc beti ni maitatzea. ; Nere Salbatzalle chit maitagarria! nic beti maiteco zaitut, eta Zuc beti maiteco nazu; uste det beti alcar maiteco degula secula guçietan.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Ene Jesus! beti maitatu nai zaitut, eta Zuc ni maitatzea nai det.

*Gogozco Comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI

### XII.-EN BISITA.

Oh nere Erreguiñ andi eta nere Jaunaren Ama! umiltasun andiaz zure aurrean auzpetzen naiz, nere pecatuen barcacioa eta oraindaño eguiñ ditudan culpetatic garbitzea irichi zadazula, escatuaz. Gañera escatzen dizut, gogo gar-



bi baten bidez Jaungoicoarequiñ  
eta Zurequiñ batutzeco gracia; zu-  
re Semea Jaungoicoa becela eta  
Zu bêre Ama laztana becela; zure  
Semea nere Salbatzallea becela,  
eta Zu nere salbacioaren bi-  
dea becela serbitzeco; ceren ne-  
re erospenaren precioa Bérac pa-  
gatu bazuen, Zugandic artu zuen  
araguiarequiñ eguiñ zuen.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Oh amorio  
santuaren Ama! irichi zadazu  
Jaungoicoaren amorioa.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSERI XII.-en BISITA.**

**J**aungoicoari atseguin bazayo be-  
re santuac onratzea, ceren bere  
adisquideac diran, ; cembat atse-



guiñago izango etzayo Zu onra-  
tzea, Zu, bere adisquidea ezecic,  
bere Aita maite eta errespetatua  
ceran ori? Zuri ematen zaizqui-  
tzun onrac eta alabanzac, Patriarca  
chit maitea, Berari emandacotzat  
dauzcatzi Jesucristoc, eta Berari  
zuentzen balitzaizquio bezañ o-  
paro ordañ saritzen ditu; onegatic  
cristau-erriac, berezco arguita-  
sunaz, bideguiten du Zugana pre-  
miorduetan, ceruco ondasunac za-  
baltzeco Jaunac esleitu duen on-  
guille urricaltsuagana becela. Eciñ  
diteque, Zuri deitu, eta bearrean  
dagoenaren otsa Zuc bereala ez  
aditzea, zure aurrean negar eguiñ,  
eta naigabe eta penetan dagoenaz  
Zu ez cupitzea. Onegatic nator zu-  
gana, eta zure ontasun eta escu-



indartsuan uste eta confianz andia  
 artuta, esaten dizut: Nere Aita  
 San José, ala animaco, nola gor-  
 putzeco bear eta premiz estalia,  
 peligroz inguratua, miserietan on-  
 datua nago. Argal eta buruz-be-  
 ratua banago ere, Zugana nator;  
 baña neregaitzen anditasunac, Zu-  
 re gloriac ezagutzea, Zure malla  
 goratuaz poztutzea, ceruan eta  
 lurrean daucazun lecu gañ gañe-  
 coa dala bide Zu alabatzea galc-  
 razten eztit; Adanen semeen ar-  
 tean suerte oneco, eta glori andi-  
 dicoa, eta guizarraza gucian se-  
 meen dichosoena, eta Santuen  
 andiena cera; baña zure anditasu-  
 netan andiena zure urricaltasuna  
 da; beragatic umiltasun andiaz  
 erregutzen dizut, irichi zadazula



soseguzco bicitza, eta gueroenean eriotz on bat. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. San José, arren eguizu, eguiazco anditasun bacarra, au da, birtutearen anditasuna nic maitatzea.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## AMAIRUGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Dembora gucietan nere beguía eta nere biotzac irme iraungo dute lecu onetan (*III Reg. IX, 3*).

Adi zazu, cere ona nai dezun peccataria, Jesucristoc Sacramentu orretan eguiten dizun promesa, non gau eta egun gurequiñ gueratu nai izan zuen. ¡Ah nere Jauna!



¿etzan asco Zu Sacramentu orretan egunaz gueratzea, Zu or adoratatu eintzaqueenac iduqui cintzaquean garayan, baicic? gañera gueratu nai izan cenduen gauaz guizónac Zu bacarric utzi, elizetatic irten eta beren echeetara dijoazenean ere? Baña antzematen dizut, Jau-na: guri diguzun onguinayac puntu batean ere gu bacarric uzten utzi etzizun.

¡Oh nere Salbatzalle atseguña! zure amorioaren pintasun onec bacarric beartu bear lituzque guizon guciac beti eliz sagraduetan egotera, andic irtetera bear ditzateneraño, eta andic irtetean ere, beren biotz eta gogo guciac an uztera, au gucia eta paregabe gueyago mereci duen ezquero gugandic, gure premiác



icusí eta estaltzeco beti gure begui-  
ra aldarean dagoen Jaungoico gui-  
zon eguiñac, onela esateagatic, be-  
ra maite duten animac berarequiñ  
egotera joan daquizquion deseoz.

Bai, nere Jesus, emendic aurre-  
ra contentatu nai zaitut; orañ ber-  
tan ipiñtzen ditut zure serbitzura  
nere nai eraguille edo boronda-  
tea, eta nere gogo guciac. ¡Oh  
nere Jaungoicoaren anditasun  
baztergabea! Zuc ceran guci ori  
Sacramentu jaungoicozco orretan  
estali nai izan cenduen, gure ar-  
tean egotearen mesede paregabea  
guri eguiteagatic ezecic, baicic  
batez ere anima leyalai guci ori  
emateagatic ere. ¡Baña, ay Jauna!  
¿nor benturatuco da zure mayera  
alderatu, eta zure aragui jaungoi-



cozcoa jatera! Baña, bestera, ¿nor  
urrutira liteque ceruco bazcari an-  
di onetatic? Zu oguiaren antz-iru-  
dien estalquipean ezcutatu ciñan,  
Sacramentu orretan, gure barre-  
nen sartu, eta gure biotzac cere-  
tzeco; ceren guc Zu artzea nai  
dezun, eta gurequiñ batua egon  
nai cenduquean. Atoz, bada, atoz,  
ene Jesus, Zu nere barrenen ar-  
tzeco zalez eta egarriz nagota,  
nere biotzaren eta nere boronda-  
tearen Jaun eta Jabe bacar izan  
zaitean. Nere aldetic danez, oh nere  
Salbatzalle maitea, eguiñ bizaye  
lecu zure amorioari, nere nai era,  
atseguñ contentu, borondate eta  
nerea dan guciác. ; Oh nere bio-  
tzeco laztana! ; Oh nere Jaungoi-  
co maitea! erreina zazu nigan o-



so eta bici; arras desequizu nigan zurea eztan gucia, arren ez utzi Comunio sagraduan Zu artu ezquero munduco creaturacganaco amorioac zure Anditasun jaungoicozcoz betea dagoen nere anima berriz itsutzen. Maite zaitut ene Jaungoicoa, maite zaitut, eta guero ta gueyago maitatu nai cinduquet.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Oh nere Jesus! eracar nazazu ceregana zure amorioaren locarri atseguinaz.

*Gogozco Comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI XIII-EN BISITA.

; Oh Maria gozoa! ondo daquit Zu cerala creatura gucien noble, garbi, andi eta goratuena, gucien ederren, santuen, onguilleen eta



maitagarrriena ; baña guci orrez  
ere, ezagutzen det etzaitudala  
bear becela maite. ¡Oh, guciac  
ezagutzen eta maitatzen bacin-  
duzte Zuc mereci becela ! Nic on-  
do maitatu nai cinduquet, baña  
chit argal eta ecereza naiz; sendo  
nazazu, bada, ene Ama maitea,  
aurreracoan amorio eguiazco, bici  
eta irauncor batez maita zaitza-  
dan. Bear becela maitatzen bazai-  
tut, salbatuco naiz, ceren au dan  
salbadoraco señale bat, eta ceru-  
raco esleituac daudenai Jaungoi-  
coac eguiten dien gracia señalatu  
bat. Erregu zayozu nigatic Bera-  
ri, Ama maitea, erregu zayozu,  
nere Jaunaren adisquidetasuna  
iñoiz ere galtzeco beldurgabe eta  
secula gucietan Bera eta Zu mai-



tatzen ceruan icusi nadineraño.

ITZ-ALDI LABURRA, ¡ Oh Maria!  
salba zazu zugana datorquizuna.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSERI XIII.-en BISITA.**

Ceruco glorian zaude, nere Aita maitea, doatsu, zori oneco, gañez eguiteraño atseguin contentu jaun-goicozcoz betea zaude; ¿cer ondasun eman alco dizugu, bada, zuri esquer eta ezagüera ona aguertu nai dizugun zure debotóac Jaungoicoaren escu onguilletic beti eta utsaldigabe iristen dizquigutzun on eta mesedeai eranzuteco? Gure eceren bear etzera, eta gure pobreza añ andia da, nola zuri eranzuteco daucagun obligacioa. Nic eguin nezaqueana bacarric



da, Zure gloria alde gucietara barreatzea, Zure icena bazter gucietara zabaltzea, Zure onra gueitzea, Zure debotoac ugaltzea. Maiteaz sarri itzeguitean ezagutzen da amorio eguiazcoa; chit maiz eta sarri itzeguingo det, bada, Zuzaz; zure glorien, zure debotoai eguiten ditzetzun on eta mesedeen gañean izango da nere izqueta. Ondo daquit mundu-zaleai gogoco etzayela onelaco gaucen gañean itzeguitea, baña ni sayatuco naiz Zuzaz itzeguitera, ezagutzen etzaituzten ayec Zuganaco amoriora eracartera; zure gloriaren zaitzalle izango naiz, alic pesta ederrenac zuri eguitera sayatuco naiz. ¡Escu ceñ luce eta ugaritsuaz pagatzen diezun erio-



tzeco orduan, araco bicitzan leyal  
izan zaizquitznac! Larritasun  
miñez betataco ordu hura sosegu  
andicoa da zure debotoentzat;  
gorde nazazu, bada, ordu artan,  
ene Aita, eta guero sar nazazu be-  
tico glorian. Amen,

ITZ-ALDI LABURRA. Zure icena,  
Patriarca santua, Jesus eta Ma-  
riarequiñ batera izan dedilla nic  
nere eriotzeco orduan esango de-  
dan azqueneco itza.

*Oracioa 35-garren orrian.*



---

---

## AMALUAGARREN EGUNA.

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrián.*

Au da nere atseden lecu beticoa;  
emen bicico naiz; nie aututaco lecua  
au data. (*Psalm. CXXXI, 14*).

¡Jaun chit maitagarria! Zuc gure artean esleitu badezu cere bicilecua Sacramentu chit Santuan beti egon nai izanaz, eta guri diguzun onguinayac cere atseden-lecua emen arquieraci badizu, gauza justu eta bidezcoa da gure biotzac ere amorioaren bidez beti zurequiñ bicitzea, eta beren atseguñ contentu guciac or billatzea. ¡Zori onecoac zuec, Jesus sacramenta-



tuaren aldean egotea beste descantsuric topatzen eztezuten animac! ; Eta ni ere zori onecoa nitzaque, Jauna, baldiñ gaurdanic Zure biotz amoriotsu orrequiñ batua beti egonaz, beti Zu serbitzeco, alabatzeco eta Zuri atseguiñ eguiteco contu andi bat iduquitzea beste pocic arkitzen ezpanu!

; Ay nere Jabe gozoa! ; cergatic galdu ditut zu maitatugabe, aimbeste urte? ; Zori gaiztoco urte desdichatúac, gorroto bicia dizuet! ; Oh nere Jaungoicoaren eramamugabaguea! nic alabatzen eta adoratzan zaitut, bada aimbeste urtean sufritu didazu. Nere esquer beltz gaiztoaren damuz ere, Zuc, nere Jesus, ichodon didazu, eta ; certaraco, Jauna? egunen batean



zure urricaltasun eta amorioac  
beartuta zure borondatera oso jar-  
ri nadiñ, ondo bada, gueyago go-  
gor egiñ nai eztet, eta Zuganaco  
esquer gaiztoco izan nai eztet:  
gauza justu eta bidezcoa da, aur-  
reronz gueratzen zadan bicitzaco  
dembora zure serbitzura ematea.

Uste det, Jesus amoriotsua, lagun-  
duco didazula naizen guci au Zu-  
re izaten. Zuc aimbeste on eguiñ  
badizquidatzu Zugandic iguesca  
ibilli naicenean, eta zure amorioa  
utsean iduqui dedanean ¿utzico  
nazu bear bada orañ Zu billatzen  
zaitudanean, eta eguiaz maite i-  
zan nai zaitudanean? Zure urri-  
caltasun ondogabeagandic onela-  
coric uste eztet. Indazu, bada, Zu  
maitatzeco gracia, ¡oh amore neur-



rigabea zor zatzun Jaungoicoa!  
Nere biotz guciaz maite zaitut,  
gauza guciaz gañ maite zaitut,  
nere burua baño eta nere bicia be-  
ra baño maiteago zaitut. Biciro  
damu det Zu ofenditu izateaz, joh  
ontasun ondogabea! arren barca  
zadazu, eta barcacioarequiñ ba-  
tera bicitz onetan nere eguiñal  
guciaz, eta bestean secula gucie-  
tan Zu maitatzeco gracia indazu.  
Aguerzazu munduan, oh gucia  
dezazuquean Jaungoicoa, nere a-  
nima bezañ esquergabe bat zure  
maitatzalle eguiazco izatera biur-  
tu dalaco mirari au. Onela egui-  
dazu zure merecimentu bazterga-  
beacgatic: nic onela eguiñ nai det,  
eta nere bici gucian onela eguiteco  
asmoa daucat. Gogo au Zuc ema-



ten didazu, indaizquidatzu onela  
egniteco indárrac.

ITZ-ALDI LABURRA. Esquer milla  
dizquitzut, nere Jesus, oraindaño  
ichedon didazulaco.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI

### XIV.-EN BISITA.

Ceru-lurretaco Jaungoicoac guci-  
raco eman cizun berarizco graci  
argatic erregutzen dizugu, Birgi-  
ña chit sagradua, urrical zaiteala  
guzaz. Lasterreguizu, oh Andre  
urricaltsua, zure sabel garbian  
guizon eguinta, Jaungoicoac ira-  
baci cigun zoriontasun hura guri  
iristera, eta arren ez despreciatu  
gure erregúac. Zue onela escatzen



badiozu au cere semeari, Berac be-  
realatic eguiño du zuc escatzen  
dionzuna; asco da Zuc gure salba-  
cioa benetan nai izatea, salbatzeco  
bear dan gucia zure Semearen  
mèrecimentuen bidez guc eguite-  
co, ; Ah Andre miragarria! ; norc  
neurto al izango du zure urricál-  
tasuna? Zu guzaz urricaltzen ez-  
pacera, Zu gure Ama, amoriotsu  
eta urricaltsua ceran ori, ; cer  
izango da guzáz, gucioc juzgatzere  
ra zure Semea datorrenean?

ITZ-ALDI LABURRA. ; Oh Ama erru-  
quitsua! alcha zazu bere uste eta  
confianza Zugan dauzcan erori  
triste au.

*Escaria 33-garren orrian.*



**SAN JOSEKI XIV.-en BISITA.**

**E**zagutzen ez dituen, urrutietaco bazter, arcaitz, leice eta peribuluz bete batzuetara joaten danac, berác joan nai duen toquirira iri-chi arte zucen eramango duen persónen bat billatzen duen becela, ala nic ere, Aita gloriatsua, Zu billatzen zaitut bicitzaco bide-chior galgarrietatic zucen era billinazazun. Zuc bezañ ondo eta segurua ñore igaro ez ditu bide o-yec ñolaco peligroc atzitu etzaitu, Zuc guciac azpiratu dituzu, zure animac escuratu eztuen griña gaiztoric, eta Zu azpiratu zaituen zale eta deseo eragaberico ezta; zure anima gorputzaren nagusi eta aguintari eguiazco izan



zan; Jaungoicoaganaco amorioan  
sustraitutaco fede iracequi bat zan  
zuri argui eguiten cizun farol e-  
derra; eta argui onen indar osasun-  
garriac zucenduta, betico gloria-  
ren azqueneco portu zorionecoa  
irichi cenduen. Fedeac santutasu-  
naren goyenera eramán cinduen;  
zure nai-eraguille edo borondatea  
muguieracitzen zuena, beste mun-  
dutarren iritzia izan etzan; bera-  
gatic, nic, zure serbitzari eta de-  
boto umill onec, berealatic aguin-  
tzen det, mundutarren uste eta  
iritzi zoróac alde bat utzi, eta Zuc  
eguiñ cenduen guisa fede santua  
leayalqui jarraitu, eta nere bici-  
tzaren zucén-bidetzat fede au ar-  
tu dedala- ; Oh Jesucristo gure  
Jaunaren Aita-ordeco gloriatsua!



irichi zadazu cristauari añ bearra  
zayon fedezco bicitza au: onec  
munduaren engañoen erditic gar-  
bi eta cutsugabe eramán, eta idi-  
qui deguizquidala ceruco gloriaco  
atéac. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Patriarca san-  
tua, Zuc añ biciro aguertu cen-  
duen fedearen birtutean egunetic  
egunera gueituaz joatea irichi za-  
dazu.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## AMABOSTGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Lurrean sua ipintzera etorri naiz,  
eta ¿cernai bear det ezpada su icio-  
tzea? [ *Luc. XII, 49.* )

Aita Francisco Olimpio benera-



garriac oi cion, Jaungoicoaren amorioaren sua guizónen biotzetan biciroago iciotzen duen ecer lur-rean eztala, nola aldareco Sacramentu chit Santua. Onegatic aguertu citzayon Sena-co Santa Catalinari Jaun au, amoriozco sugar baten guisa, nondic irteten baiciran mundu gucitic zabaltzen su bombonada bicíac, Santa arrituta gueratuaz, sutegui jaungoicozco onen erdian amorioz sutu gabe guizónac nola guerra alcitez-quean pensatuaz. ¡Ay ene Jesus! arren eguizu nic ere zure amorioan iracequi, eta Zuzaz campora beste ondasunic ez gogoratzea, nai izatea, deseatzeta edo billatzea. ¡Ceñ dichazcoa nitzaquean, baldiñ su jaungoicozco onec erre-



tzen uzten banintz ! ; Milla bider zori onecoa, baldiñ urteac igaroaz dijoacen becela, lurreco zale eta deseoa macur eragabe guciac ere nigan aituz balijoaz.

; Oh nere Jesus ! bada niri didazun amorioagatic guci ori sacrificatua, eta ecereztua icusten zaitut aldare orretan; gauza justu eta bidezcoa da, Zu amorezco ofrenda becela nigatic esqueñtzen ceran becela, ni ere zure serbitzura oso ematea. Bai nere Jaungoico eta Jabe bacarra, gaur esqueñtzen dizquitzut nere anima, nere borondatea, nere bicia eta naicen, eta dezaquedan gucia. ; Oh Aita Eternoa ! nere ofrenda labur au zure Seme eta nere Salbatzalle Jesucristoc gurutzean eguiñ cizun



eta egun gucietan aibeste bider  
aldareetan eguiten dizun sacrificio  
edo ofrendaric aundienarequiñ ba-  
tera eguiñ nai nizuque. Ontzat ar-  
zadazu, bada, Jauna, ofrenda au,  
nere Salbatzalle jaungoicozcoa-  
ren merecimentuacgatic, eta inda-  
zu, nere sacrificio au egun oro  
berritzeco, eta zure amoreagatic  
eta serbitzuagatic nere burua sa-  
crificatuaz hiltzeco gracia. Zure  
amorioagatic hiltzeco aibeste  
martiriri eman ciñion graci hura  
nai nuque nic ere; baña onelaco  
mesede señalatua mereci ezpadet,  
guchienez utzi zadazu Zuri nere  
bicia gogo osoaz ofrendatzen, Zu-  
re escu onguilleac bialdu nai liza-  
daquean eriotz hura ontzat artuaz.  
Jauna, arren indazu Zu onrratze-



co eta Zuri atseguin eguiteco go-  
goarequin hiltzeco gracia; eta be-  
realatic zure escura uzten ditut  
nere bicitza eta eriotza, diran be-  
celacoac dirala.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Ene Jaun-  
goicoa! Zu ofenditzera baño len  
milla bider hill nai nuque.

*Gogozco Comunioa 27-garren orrian.*

MARIA CHIT TANTARI  
XV.-EN BISITA.

Lagun zaguzu, oh Andre chit ur-  
ricaltsua, gure aimbeste pecaturi  
beguiratugabe; gogora zazu, nola  
gure Eguillea zure sabel garbian  
guizon eguin zan, ez peccatariac  
condenatzeco, ezpada salbatzeco,  
eta erredimitzeco. Ceren, baldin  
bacarric zure onra eta gloriaraco



autu bacinduzquean bere amatzat,  
bear bada esan citequean, pecata-  
riac salbatzean edo condenatzean  
guchi cijoaquizula. Baña Jaun-  
goicoa guizon gucion salbacioa-  
gatic araguiz jantzi zan ; cer ser-  
bituco liguque zure escubide eta  
gloria guciac, zure zori ontasu-  
nean partedun eguiten ezpagui-  
ñuzu ? Lagun zaguzu, bada, eta  
gorde gaitzazu; ongui daquizu zu-  
re laguntzaren ceñ bear gueran;  
Zugana gatoz, bada, Eguizu, Ama  
maitea, gu ez galtzea, ezpada be-  
ticotasun gucian zure Seme Jesu-  
cristo serbitzea eta maitatzea.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Oh deitzen  
dizutenen osasuna ! salba nazazu.

*Escaria 33-garren orrian.*



**SAN JOSERI XV.-en BISITA.**

Zure birtute chitpreciatuac beguiratzean, Patriarca guciz santua, zure biotzean beti egon zan, Jaungoicoaganaco uste eta esperanza chit noble hura icusten jartzzen naiz gaur. Esperanza onec lurreco zure bicitzaco guertacari gucietaraco balore eta biotza eman'cizun: cere bician añ sarri izan ciñituen estura larrietan, indar eta animo sendoa, ezbear eta gaitzegoquietan espiritu soseguzcoa izan ciñituen, eta desconfianzaren argaltasunic zure biotzean seculan zartu etzan. Pobrezac eta persecucioac nai aibat lan eman bacizuten ere, beti benzutzalle irten ciñan, eta zure esperanza gue-



roago eta garbituagoa gueratu  
zan. Antziñaco Abraham Patriar-  
caren guisa, guchien uste bear  
cenduquean garayan esperanza i-  
duqui cenduen, eta au, ceren, ez lur-  
reco erremedioetan, ezpada Jaun  
goicoagan cere ustea ipintzen cen-  
duen; beren ustea Jaun onegan i-  
pintzen dutenac seculan burlatuac  
gueratuco eztirala, esan zuen Ar-  
gan cere uste gucia ipintzen cen-  
duen. ; Oh nere Aita maite San  
José! sendo zazu nigan esperan-  
zaren birtutea; birtute onec nere  
barrunari biotz on emanaz; mugui  
dezala nere borondatea Cristoren  
amorioacgatic cernai neque eta al-  
dapari arpegui ematea. Edoceñ e-  
re cristauc iduqui bear du espe-  
ranzaren birtutea, aguitz gueyago



zure deboto danac; uste det, bada,  
zure erregu indartsu eta eragui-  
lléac - escatutaco, Jaungoicoaren  
urricaltasunac isurico dituela nere  
gañera Jaunaren serbitzuan irau-  
teco bearrac zaizquidan laguntzac.  
Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh espe-  
ranzaren ispillu bicia! indar zazu  
nere biotza.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## AMASEIGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaraço oracioa 29-garren orrian.*

¿ Ez ote dago errechiñic edo bal-  
samuric Galaad-en? edo ¿ an ezta-  
go medicuric? (*Jer. VIII, 22*).

**O**h eta baldin guizónac beren gai-



tzen sendagarriaren billan Sacramentu chit Santuagana bideguiten balute! eguiaz ez liraque izango diran bezañ dichagabeac. Arabia-co mendi Galaad, usai gozoco errechin edo uquenduz aberatsa, Beda jaquintsuac dion becela, gure gaitz guztien sendagáyac Sacramentu onetan prestatuac dauzcan, Jesucristoren antz-irudia da. ¡Oh Adanen seméac! dirudi gure Salbatzalleac oju eguiten duela, ¿cergatic negar eguiten dezute zuen gaitzaz, Sacramentu onetan iduquiric guci orien sendagai eta erremedioa? *Atozte nigana zuen culpen cargapean necatuac zauten gucioc, eta nic arinduco dizquitzuet zuen nequéac.* ¡Ay, nere Jau-na, utzi zadazu Lazaroren arre-



baquiñ Zuri esaten: *Ona nun da goen gaño Zuc maite dezun hura; Jauna, ni naiz Zuc maite dezun gañoa; nere pecatu izugarriac idiquitaco zauriz estalia daucat nere anima, eta, ¡oh Medicu jaungoicozcoa! Zugana nator, senda nazazun; nai badezu, senda nazazuque; arren senda zazu, bada nere anima, ceren Zure contra pecatu eguiñ dedan.*

Eracar nazazu ceregana, óh Jesus chit gozoa, zure amorioaren locarri atseguinaz; bada gueyangoan daucat Zure Biotzarequiñ batua bicitzea, mundu guciaren jabe izatea baño; eta mundu onetan beste eceren zale ez naiz, ez pada Zu maitatzearen. Zuri ematecoric guchi edo baterę eztet; ba.



ña munduco erreinu gucién jabe  
eguiñ al banedi, bacarric zure a-  
morioagatic emateco naico nituz-  
que guciac. Berealatic ematen di-  
zut naicen gucia eta balio dedan  
guCIA, dedan eta dezaquedan gu-  
cia; aideac, atseguñ contentuac,  
érac eta espirituco poz atseguñe-  
tarañocogucia. Zure escura utziaz,  
nere libertadea, nere borondatea  
eta nere zale eta deseo guciac.  
Nere buruari baño gueyago nai  
dizut, ontasun neurrigabea, eta se-  
cula gucién seculetan naico dizu-  
dala, uste det.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Ene Jesus!  
gogo guciAZ Zuc nai dezunera  
jartzen naiz.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*



MARIA CHIT SANTARI  
XVI.-EN BISITA.

Oh Birgiña chit Santa, lagun za  
yezu zure laguntz esque dauden  
gucíai: itzul zaite guganonz ; oh  
Ama chit urricaltsua ! ; Aztu ot  
cindezque guizónaz, izanic Zu, ce  
ran becela, Jaungoicoaren Ama  
; Ah! ez nola nai ere. Zuc ongu  
daquizu cembat peligroren artean  
bici gueran, eta egoera ceñ onbea  
tristean zure serbitzariac bici di  
ran. Ez, zure urricaltasun andia  
becelaco bati eztagoquio, eciñ  
gueyagorañoco gure miseriaz az  
tutzea. Atzera zazu cere escu in  
dartsuazgure etsayen arrabi amor  
ratua: bada Zuc biciro laguntzer  
badiguzu, seculan azpiratuco ez



gaituzte, ceren gucia dezaquean  
Jaun arc ceru-lurretan gucizco es-  
cubidea eman cizun, eta cembat  
gueyago dezaquezun, aibat an-  
diagoa dan zure urricaltasuna.

ITZ-ALDI LABURRA. Maria chit  
gozoa, arren eguizu, emendic aur-  
rera nere bicico arnaz zure icen  
santua izatea.

*Escaria 33-garren orrian.*

**SAN JOSERI XVI.-en BISITA.**

Añ ecerez eta ezjaquiña naiz, ne-  
re Aita chíit maitea, nun, fedeác  
eracusten dizquidalaric Jaungoi-  
coaren eta ceruetaco bere errei-  
nuaren anditasunac, nere zale eta  
deseo guciác gauza añ andi eta  
miragarrietara zucendu bearrean,  
creaturen eta lurreco gauzen on-



doren joaten uzten diedan ala zori  
 gaiztoan. Iguertzen det graciaren  
 garaitasuna, icusten det bere eder-  
 tasuna, ezagutzen det bere balio  
 gucizcoa, eta guciaz ere nayago  
 ditut bicitza onetan sentidúai atse-  
 guiñgarri zaizten, eta griña gaiz-  
 toaipozcarriago zaizten jostallúac  
 ;Ceñ bestera eguiñ cenduen Zuc  
 San José gloriatsua! Lurrean bic  
 ciñan, baña biotza cerura jasoa  
 iduquiaz; zure anima chit garbia  
 bicitza onetaco circillqueríac bañ  
 gorago egatzen zan; eta Jaungoi  
 coagan ezpazan, onic etzuen; eza  
 gutzen cenduen ezagüeradun crea  
 turaren garaitasuna, eta befico zu  
 re lana egunetic egunera inolac  
 aldartegabe Jaunaren antzecoag  
 eguitera al guciaz sayatzea zar



bada, Ebangelio santuac eracusten digun becela, Beraren antzeco izan bear guera gure bicitza garbiaren eta gure animaco birtuteen bidez. Mundutárrac aguitz necatzen dira gorputzeco beren prenda eta bentajac aguertzen; mundua berengana beguira ipintzea, eta jendeac gauz anditzat iduquitzea billatzen dute; baña nic, Santu gloriosoa, zure antzera nere biotz guciaz Jaungoicoaren gracia maite izan nai det, birtutera iristera sayatu, eta mundu zoroác añ maite duena galgarria becela beguiratu nai det. Zuc cere bitartecotzarequiñ lagundu, eta irichizadazu nere asmo santu oyetan sendo irauteco gracia. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. San José glo-



riosoa, irichi zadazu eciñ gueya-  
goraño ascoan Jaungoicoaren gra-  
cia nie iduquitzea.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

## **AMAZAZPIGARREN ECUNA.**

**SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.**

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Jauna, gu emen egotea  
on da. (*Matth. XVII, 4.*)

**A**lcarri asco nai diotenac alcarre-  
quiñ egotean baño poz atseguña-  
goric ez dute. Baldiñ biciro maite  
badegu Jesucristo, chit pocic eta  
nai erara egon bear degu Sacra-  
mentu chit Santuaren aurrean, ce-  
ren bere aurrean gauden. Jesus-  
ec or icusten gaitu, eta aditzen  
gaitu; eta guc jecer esango eztio-



gu? Poztu gaitean bere laguntasunarequiñ; atseguñ izan bequigu beraren gloria, eta aimbeste animac amorio añ iracequiaz Sacramentu chit Santuan Bera adoratzea; iduqui zagun guciac Jesus sacramentatua maita dezaten, eta beren biotzac Jaun oni esqueñi deguiozcaten egarri bicia: guc guere aldetic ipiñi ditzagun bere serbitzura gueron zale eta deseo guciac, emendic aurrera gure deseo eta amorio bacar Jesus izango dan eran.

Aita Salesio, Sacramentu chit Santuaz itzeguiten aditzean, poz atseguñaren indarrez gozotoro cordegabetua gueratu oi zan, eta bera bisitatzeaz beñere aspertzen etzan: ateetara deitzen bazuten,



edo bere celdara itzultzen bazan, derech guci ayez baliatzen zan bere Jesus maiteari icus-aldia eguiteco, alatan, nun, icus-aldi hura eguiñgabeco orduric egun gucian igarotzen ez altzitzayon, azque-  
nean Sacramentu onen eguia on eguiteco fedegabeen atzaparretan hiltzea merecituaz. ¡Oh nic ere, Jesus maitagarria, guri diguzun onguinayaren anditasuna aditzera emateco ipiñi cenduen Sacramentu onen eguiatasuna on eguiteagatic hiltzeco suerte zori onecoa banu? Jauna, Sacramentu miragarri onetan aimbeste mirari eguiten dituzun ezquero, beste berri bat orañ eguizu: guci au oso ceregana eracar nazazu eta nere biotz guciaz Zu maitatzeco indár-



rac indaizquidatzu. Mundu oneta-  
co ondasunac nai dezunari eman  
zaizquiotzu, nic diran guciac uz-  
ten ditut eta; nic nai dedana, eta  
egarri biciaz billatzen dedana Zu-  
ganaco amorioa da; au da orañ es-  
catzen dizudana, eta beti escatuco  
dizudana. Maite zaitut ene Jesus,  
indazu Zuganaco amorioa, eta  
beste ecer escatuco eztizut.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Oh nere Je-  
sus gozoa! ; noiz ondo eta utsaldi-  
gabe maiteco zaitut?

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI

### XVII-EN. BISITA.

; Oh Jaungoicoaren Ama! bada-



quit guci ori onguillea cerala, eta amorio guciz bigunaz maite gaituzula. ¿Cembat bider gozaten eztezu gure juezaren aserrea, gure culpacgatic mereci ditugun castiguac guera eraciaz? Jaungoicoaren urricaltasunen ondasun guciac zure escuetan daude. ¡Ah nere Ama maitea! Zuc, beren pecatuaz damututa zugana datoquitzun errucarriac salbatzeco, eta Zuc daucazan gloriaz gozatzera eramateco era eta derechic galtzen eztezun orrec, arren ez utzi inoiz ere guri laguntzea, bada Jaungoicoaren arpeguia icusteaz, eta Jaungoicoaz gozatzeaz osteronzean izan al guenzaquean gloria-ric andiena secula gucietan Zuc icustea eta zure mantupe atsegu-



ñean egotea da. Entzun itzazu, oh  
Maria, gure erreguac, escatzen  
diozun gucia emanaz zure Semeac  
onratu nai zaituen ezquero.

ITZ-ALDI LABUARRA. ¡Oh nere A-  
ma Maria! maite zaitut, eta secu-  
la gucian maitatu nai zaitut.

*Escaria 33-garren orrian.*

**SAN JOSERI XVII.-en BISITA.**

¡Nor guizónen artean Zu baño  
maiteago izan lezaque Zure Seme  
gozoac, oh Aita gloriatsua? Eguia  
da, egun batez berac esan zuela,  
bere amorioa gueyago zucentzen  
zala Jaungoicoaren itza aditu eta  
itz arrec ciona eguiten 'zuteneta-  
ronz, bere aideacganontz baño;  
ordea Zuc, San José maitagarria,  
Cristoganaco alde biac dauzcatzu.



Berarequiñ beste iñor baño batua-  
go egoteaz , eta odolaren aldetic  
aideen urcoena izateaz gañera,  
bere itzari añ leyal beti izan ci-  
tzaizquiolaco ere, amorioaren lo-  
carri sendoaz Jaungoicoarequiñ  
batua zaude. Jesusec aditzera e-  
man cizun gucia añ gogoz zuc e-  
guiteac, eracusbide eta ispillutzat  
serbitzen digu; suertaldiric gaitz  
eta nequezcoenetan ere dudan eta  
zalanzan jarri, eta iñolaco apuco-  
ric ematen eztezu; ceruco isill-  
mandatu eta arguiac itsu-itsuan  
jarraitzen dituzu, cere jayeterri  
maitea deserri gogorragatic, Is-  
raelco lur atseguña Egiptoco lur  
cicoitzagatic trucatzen dituzu, a-  
raguiaren gogóac Jaungoicoaren  
gobernu zucenac erabaquitzen



duenera ipiñiaz. Zure antzera onela eguiteco asmoetan nago ; nere bicieraren zucén-bide, nere atseguincontentu eta griña galgaríac izango eztira, ezpada Jaungoicoaren borondatea izango da beti ; bere itz santua, Jaungoicoác buruagotzat eman dizquidan ayec aguintzen, didatena artuco det nere bicitzaren zucén-bidetzat, Jaungoicoari atseguin eguiteco, eta bere gloria santura joateco bideen onena au dalacoan seguru egonaz. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Patriarca santua, arren irichi zadazu Jaungoicoác nai duen gucira obedienci itsuaz egoteco gracia.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## EMEZORTZIGARREN EGUNA.

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Aingueruen aurrean cantatuco ditut alabanzazco cántac, zure eliz santuan adoratuco zaitut, eta emango diozcat alabanzac zure icenari, zure urricaltasun eta eguiagatic. (*Psalm. CXXXVII, 1, 2*).

**E**gunen batean anditasun eta zulentasunezco tronu batean jarrita, aguertuco da Jesucristo Josafateco ibarrean; baña orañ amoriozco tronu batean jarria dago Sacramentu chit Santuan. Baldiñ Erregue bat arzaicho bati dion onguinaya aguertzeco, oni bere echolara etortzen balitzayo, an berarequin bicitzera ¿cer esquergabe-



queria izango ez litzaque arzai o-  
nena, chit ascotan etorrico ezpali-  
tzayo Erregueari, jaquiñic, bera-  
requiñ egoteagatic etorri zayola  
echola artara?

¡Ay ene Jesus! nic jaquiñic  
nere amorioz etorri ciñala beti eta  
utsunegabe gurequiñ egotera, al  
banuque gau eta egun beti emen  
zure aurrean egon nai nuque; ce-  
ren, baldiñ Ainguerúac, ¡oh ene  
Jauna! guri diguzun amorioaz ar-  
rituta badaude, gauza justu eta  
bidezcoa da, Zu nere onguina-  
yez aldare orretan icusita, ni ere  
zuri atsequiñ eguitera sayatzea,  
beintzat creatura circill oni aguer-  
tzen diozun ontasun eta amorioa  
alabatzen emen zure aurrean ego-  
naz.



¡ Oh Jaungoico sacramentatua!  
¡ oh Aingueruen oguia ! ¡ oh janari  
jaungoicozcoa ! maite zaitut, ba-  
ña ez Zu, eta ez ni betetzen gaitu  
nere amorioac; maite zaitut, bai,  
baña chit guchi maite zaitut; arren  
eguizu, nere biotzac lurreco gau-  
zaganaco zale eta deseo guciac  
beregandic bota, eta lecu gucia  
zure amorioari ematea. Zure on-  
tasun zoragarriaz itsu nadiñ, eta  
nere animarequiñ batu zaitean,  
jeñten cera Zu egun oro cerutic gu-  
re aldareen gañera; arrazoi da, ba-  
da, nic ere Zu maitatzecoa, adora-  
tzecoa eta zuri atseguñ eguitecoa  
beste contu eta arretaric ez idu-  
quitzea. Maite zaitut nere anima  
guciaz, eta nere gogo guciaquiñ.  
Amorio au ordañdu nai badidazu,



Jauna, indazu amorio gueyago, iracequico nauten, eta Zu beti serbitzera, eta zure borondate santuari beti obeditzera muguieracico nauten sugar gueyago.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh nere Jesus ! indazu amorioa, eta beti amorioa.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

MARIA CHIT SANTARI  
XVIII-EN BISITA.

¡Oh ceruco Erreguiña ! Jaungoicoac gracia guciaz ornitu cinduen, eta graciaz betearen icenaz deitzen cera, ceren bederatzi illabetean graciaren Eguillea zure sabel garbico sagrarioan iduqui cenduen. Enzun itzazu, bada, ¡oh Doncella chit santa, gure erregúac



eta gogora gaitzazu, zure aberas-  
tasunetatic cerbait guri emanaz,  
eta añ ugari dauzcatzun graci o-  
rietatic zaticho bat gure gañera i-  
ñuriaz. Graciaz betea deitzen dizu  
Aingueruác bere agurrean; errei-  
nu guciác aoa betean doatsu eta  
zori onecoa cerala deadar eguiten  
dute; guc ere lurrean bici gueran  
chiqui eta andiác gucioc esango  
dizugu orañ: agur, oh graciaz be-  
tea! Jauna da zurequiñ, erregu-  
zazu gugatic, Jaungoicoaren Ama  
gure Erreguiñ eta Amandrea.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh Maria  
peccatarien gorde-lecua, salba na-  
zazu!

*Escaria 33-garren orrian.*



**SAN JOSERI XVIII.-en BISITA.**

¿Nola sartuco ote naitzazu go-  
goan, Patriarca chit santua, zure  
escu indartsuaren laguntza onela  
irichiaz? ¿Cer birtute neretzera  
sayatuco ote naiz bišita onetan zu-  
re santutasun miragarritic artuta?  
¿Cer birtute icastera sayatuco ote  
naiz zure bicitza chit santutic? Bi-  
citz onetan, beste birtute ascoren  
artean icusten det argui eta garbi  
mansotasunaren birtutea, ceñetara  
muguieraci nai gaituen zure seme  
jaungoicozcoac itz chit eztitsu o-  
yen bidez: *icas zazute nigandic,*  
*biotzez mansoa naicen onegandic.*  
Itz oyec béroc zuc en zaizquigutzu-  
que Zuc guri, Patriarca chit gar-  
bia, zure bicitzac bere aimbeste



gora-berétan utsunegabeco mansotasun bat beti aguertzen duen ezquero. Ez Egiptoco atzerrian igaro cinduen sufricari gogórrac, ez Herodesen persecucio látzac, ez zure bicitza umilleco ezizan eta pobrezác galeraci cion zure genio gozoari Jaungoicoaren gobernu zucenac idiquitzen ciozcan bidéac irmetasun andiaz jarraituaz dijoan, eta justúac bere nezcoa duten paque eta sosegua, bada cere uste eta confianza Jaungoicoagan ipiñi eta cetorquizun cernai gaitz eta neque, ez suerte charrean eguicaria becela, ezpada Jaungoicoaren escu onguilletic datorrena becela, beguiratzen cenduen. Nic ere onela eguiten jaquiñ dezadala, bada, nere Aita chit



maitea. Aserre edo irac secular  
nere biotzari sosegua galeratzi  
ezteguiola, eta inquietacioac ere  
nere espiritua goibeldu eztezala;  
nere animan beti paquea egon de-  
dilla, inolaco guertacari, ceñ eta  
miragarria dan, lurreco sosegua-  
ren eta ceruco zori onaren señale  
eta prueba becela, zure antzera  
neretu nai nuquean mansotasun  
hura niri galerazteco asco izan  
eztedilla. Amen,

ITZ-ALDI LABURRA. Oh Patriarca  
santua, mansotasunaren ispillu bi-  
cia, irichi zadazu neri ere biotzeco  
mansotasuna.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## EMERETZIGARREN EGUNA.

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

¡ Ceñ ona dan Jaungoicoa Israel-entzat! (*Psalm. LXXII, 1*).

Gauz atseguinagoric eztago, norc bere adisquideen maiteenaren ondoan egotea baño: eta ¿guretzat eciñ gueyagoraño atseguin-garri izango ezta negarrezco bici-lecu onetan daucagun adisquideric leyalenarequiñ, ondasun guciac ematen dizquigunarequiñ gueyeguirañ maite gaituenarequiñ, eta orregatic beti gure artean dagoenarequiñ egotea? Or daucagu Berá Sacramentu, chit Santuan; or itzeguin guiniozaque cernai garaitan nai e-



rara, zabal guñiozaque gure biotza  
aguer guñiozcaque gure premiaç,  
eta esca guñiozcaque bere gra-  
ciac eta mesedeac. Sacramentu or-  
retan confianz osoazitzeguiñ guen-  
zaque ceruetaco Erreguearequiñ.

Suerte chit onecoa izan zan  
José, -- Escritura Sagraduac dion  
becela, bera cegoen presondeguira  
Jaungoicoa bere graciarequiñ je-  
chi citzayonean, bera consolatzera;  
baña aguitz suerte obecoac guera  
gu, Jaungoico guizon-eguiñac be-  
rac laceriaz betetaco mundu one-  
tan, guganaco alaingo onguinai  
eta urricaltasunez beteta, gure-  
quiñ itzeguiteco, eta bere mese-  
deac guri eguiteco, azquen juicio-  
co eguneraño gurequiñ egon nai  
duelaco. ¡Cer poz atseguña litza-



quean presondeguian dagoen ga-  
jo batentzat berarequiñ itzegui-  
tera, bera poztutzera, berari la-  
guntzera, eta andic laster ateraco  
duelaco uste eta esperanza ema-  
tera lijoaquion adisquide bat idu-  
quitzea! Orra or, bada, gure adis-  
quide on Jesucristo, Sacramentu  
jaungoicozco onetan indartzen eta  
poztutzen gaituena, esanaz: Emen  
nago zuenganaco onguinayez; bes-  
te bearguibague bacarric zuec poz-  
tutzera, zuei laguntzera, eta zuec  
libratzera nator cerutic zuen pre-  
sondegui onetara. Nerequiñ itze-  
guiñ, eta nere borondatearequiñ  
batu zaitezte, eta zuen neque eta  
penac sentituco ez dituzute, eta  
guero nere erreinura etorrico ce-  
rate, eta eciñ gueyagoraño doa-



tsu an eguingo zaituztet.

¡ Oh ene Jaungoicoa ! ¡ oh amorio gogora al baño andiagoa ! zurre creaturaquiñ añ biguñ eta gozatsu izan nazun ezquero, nun, oyequiñ egoteagatic gure aldareetara geñten ceran, nic zure onguite eta mesedeetan parte izan nai det, eta Zurequiñ maiz egoteco asmo sendoa eguiten det, ceruan Santuac doatsu eguiten dituen zure arpegui jaungoicozcoaren aurre zoragarrian egoteaz gozatzeco. ¡ Oh ! zure majestade jaungoicozcoaren aurrean beti emen egon al banedi, Zu adoratzeco, eta al guciaz maitatzeco ! Nere epeltasunez, edo munduco arazóacgatic bisitatzen etzaitudanean, contura eracar nazazu, eta beti emen zure



ondoan egoteco zale eta deseo an-  
di bat nigan piztu zazu. ¡ Ay nere  
Jesus̄ amoriotsua! ¡norc beti mai-  
te izan cintzaquean! Baña gu-  
chienez poztutzen nau, oraindic  
ceruan ezecic lurrean ere Zu mai-  
tatzeco dembora guerutzen zada-  
la burutatzeac. Onela eguiñ nai  
det, eta ciñez eta benaz maitatu  
nai zaitut, nere ondasun andien, ne-  
re amorio, nere aberastasun eta ne-  
re gauza guciac cerana: nere al  
eta indar guciac maitatu nai zaitut.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡ Ene Jaun-  
goicoa! maite zaitut, eta emendic  
aurrera Zu maitatzeco ezpada bi-  
cico ez naiz.

*Gogozco Comunioa 27-garren orrian.*



MARIA CHIT SANTARI  
XIX.-EN BISITA.

Eracar nazazu ceregana, Maria  
Doncella, zure usai gozoen lur-  
ruñ atseguñ ondoren lasterca  
joan nadiñ. Eracar nazazu, bada,  
nere pecatuen carga aztunác, eta  
nere etsayen gaiztaqueriác guera  
eracitzen naute. Jaquintasun e-  
guiazcoa eracusten duena Zu cera,  
Zu peccatariai gracia iristen die-  
zuna, ceren bitarteco eta amparoa  
ceran. Azquenic, onratzen zaitue-  
nai gloria esqueñtzen diezuna Zu  
cera, Zu ceralaco Jaungoicoaren  
ondasuntegui aberats eta bere  
ondasun gucien zabaltzallea.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡O eire Ama!  
Zori onecoa Zu maite zaituena,



eta bere ustea Zugan daucana

*Escaria 33-garren orrian.*

**SAN JOSERI XIX.-en BISITA.**

**A**la zori gaiztoan munduco gauzetara itsututa, gure burua lurreco gaucetan ipiñita, gure espiritu astunác eztaqui gueyen dijoaquior aren gañean, betico bere señalpe na izango dan aren gogoracioan ceruco gaucetan, arretaz eta contuz beguiratuaz atseguñ artzen Legue eta arrazoi guciaz bestera itsumen izugarri batec beregan eramanta, mundua da eciñ ase dan gure biotzan jaqui eta jateco; eta onegatic asetzen ezta. ¡Cer beste laco eracusbide eta ejemploa ematen diguzun Zuc, Patriarca chi Santua! Zuretzat ezpazatequean



becela zan mundua, zure biotzac goragoco gaucetara beguiratzen zuen, eta zori on guciaren iturburu eguiazco eta beticoan becela, Jesus eta Mariagan bere atseguin contentuac topatzen cituen zure demboraco andizquiac atseguin contentuac urrearen costura billatzen cituzten, baña alperric billatzen cituzten; eta orren ordañez Zuc, bearguille beartsua, zoriontasun bacarra, au da, Jaungoicoaren Jabe izatea, cere echecho umillaren barrumbean ceudenean. Iri-chi zadazu au bera, san José gloriatsua. Ebangelioco andrea becela desitsatsi nadilla munduac añ biciro estimatzen duen guci artatie, nere Jaungoicoaren adisquidetasun zoragarria iristeco: Je-



sus eta Mariarequiñ Zurequico a-  
disquidetasunezco tratabidea izan  
dedilla nic deseaa dezaquedan, ne-  
re biotza aseco duen, bicitz one-  
taco nere neque eta pénac goza-  
tucodituen, eta gañera betico glo-  
riaren uste eta confianza osoa  
izango dan, zoriontasun bacarra.  
Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. José chit  
doatsúa, irichi zadazu zorionta-  
sun eguiazcoa.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## OGUEIGARREN EGUNA.

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Etorrico da garaya, noiz eta Jerusalentarrentzat inoiz ere agortzen eztan iturri bat David-en echean izango dan, peccataria an garbi dediñ. (*Zach. XIII, 1.*)

Sacramentuan Jesús da guztientzat beti idiquia dagoen iturria, nun, nai gucian, egun oro eguiten ditugun peccatuen mancha gucietatic gure animac garbi guñtzaquean. Gutaco nornai utseguiteren batean erortzen danean. ¡ah! ¡sendagai, ceñ egoqui, eder eta eraguillea dan bereala Sacramenttu orretara joatea! Bai nere Jesús, beti onela eguiteco asmoan



nago; eta aguitz gueyago jaqui-  
 ñic iturri onetaco úrac garbitu  
 ez eñic, ematen ere dizquidatela  
 indarrác eta arguia ez berriz eror-  
 tzecco, eta nere griña eragabeac es-  
 curatzeco, eta berotzen eta mu-  
 guieracitzen nautela Zu maitatze-  
 ra. Badaquit onetaraco zaudela  
 nere bisiten beguira eta zure ser-  
 bitzarien bisitac mesede chit and  
 eta ugariaquiñ pagatzen dituzula  
 ¡Ay nere Jesus! urrical zaite pe-  
 catari andi onez, eta barca zaiz-  
 quidatzu gaur eguiñ ditudan utse-  
 guite eta palta guciac. Biciro da-  
 mu det oyequiñ Zu ofenditzeaz  
 indaizquidatzu, ostera ez erorteco  
 indárrac, eta iracequi zazu nere  
 animan Zu asco maitatzeco zale  
 eta deseo bici bat ¡Oh ceñ egon



litequean beti Zure ondoan, Santa  
Teresaren demboran zure serbi-  
tzari leyal Maria egon oi zan be-  
cela, nori Avilaco Obispo jaunac  
eliza bateco tribunan bicitzeco es-  
cudancia eman eta an beti Sacra-  
mentu chit Santuari bella eguiten  
cion, iñoiz ere andic aldeguin ba-  
gue confesatzeco eta comulgatze-  
co ezpazan, Sacramentu oni bere  
auzo urraren icenaz deituaz. Oñ-  
utsetaco carmelita Aita Francisco  
Aurcho Jesusena, Sacramentu  
chit Santua cegoen elizen baten  
ondotic igarotzean, eciñ aurrera  
joan oi zan, bera icustera sartu ga-  
be, esanaz, lotsagabequeri andia  
zala, adisquide bat bestearen ata-  
ditic, au icustera edo beintzat oni  
agur eguitera sartugabe igaro-



tzea; baña bera onembestez asetzen etzan, baicic bere. arazóac uzteñ cioten dembora gucian bere Jaun Sacramentatuaren aurrean egon oi zan.

¡Ah Ondasun mugabaguea! ondo daquit, nic maita zaitzadan eguiñ edo ipiñi cenduela Sacramentu jaungoicozco au, eta Aldare orretan zaudela eta onetaraco eman didazula Zu maita zaitzaquean biotz bat. Baña nic esquergabetzar onec ¿cergatic maite etzaitut? ¿edo cergatic añ epel maite zaitut? Ez, orrelaco ontasun maitagarria guchi edo azaletic maitatzea gauza justu eta bidezcoa ezta. Zu izanic neurri eta ondogabeco Jaungoico bat, eta ni lurreco ar char ecerez bat, ecer guchi li-



tzaque ni orañ Zugatic biltzea,  
nigatic hill, nigatic Sacramentu  
orretan gueratu, eta egun oro gu-  
re amorioz gure aldareen gañean  
sacrificatzen ceran orregatic, bicia  
galtzea. Zuc biciro maite izatea  
mereci dezu, eta nic al nezaquean  
gucia maitatu nai zaitut. Indar  
nazazu, ene Jesus, deseo on au  
betetzeco zure gogoco dan, eta  
nic eguitea naizun gucia eguiteco  
gracia eta laguntza emanaz.

ITZ-ALDI LABURRA. Ene Jauugoi-  
coa, maite zaitut, eta beti eta uts-  
aldigabe gueyago eta gueyago  
maitatu nai cinduquet.

*Gogozco Comunioa 27-garren orrian.*



MARIA CHIT SANTARI

-- XX.-EN BISITA.

¡Oh Doncella chit eztitsua! Zuc Jaungoicoaren beguetan gracia arquite cenduen, izan ciñalaco jatorrizco pecatuaren cutsugabe sortua, Espiritu santuz betea, eta beraren mirariz Jaungoicoaren Semea cere sabel garbian artu cenduena. Baña Zuc gracia guci oyec zuretzat ecezic, guretzat ere artu cinduen gure neque eta pena gucietan guri laguntzeco. Eguia da, Ama maitea, ala eguiten dezu-la, justuac gracion gordeaz, eta gaiztoac Jaincoaren urricaltasuna escatzera eta artzera eracarriaz. Zuc laguntzen diezu hiltzen dau-denai azqueneco estutasun gogor



artan demonioaren lazoetatic gordeaz, eta hillondoan ere laguntzen diezu, beren animac artu, eta ceruco gloriara eramana. ¡Oh Ama chit urricaltsua! Zori onecoa zu serbitzen zaituena, eta bere ustea Zugan ipiñtzen duena.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh Maria! Zugana nator, eta zugan daucat nere ustea.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSERI XX.-en BISITA.**

Argui eta garbi Zugan agui da, Patriarca gloriatsua, beraren jabe dana Jaungoicoaren eta guizonen zoragarri eguiten duen doai chit noble eta eder bat. Gueyenen grina nagusia da birtuteac campora aguertzea, merecimentuaz arrotzea,



gaurco egunean; utseguite chit galgarri onetatic gordetzen diranac chit banácac izanaz. Mundua eciñ gueyagoraño iritzia eta andinaya da. Baña Zu, nere santu maitea, modestiaren ispillua, ceruco doayen eta cerezco prenden ere estaltzallea cera; onegatic Jaungoicoac añ maite zaitu. Creaturac Zu maitatzea billatzen eztezu, eta orregatic Eguilleác atseguin andiaz maite zaitu. Zuc ematen didazun eracusbide onez probechatu nai nuque, Jaunaren amorioa irabazteco; Zuc becela billatuco det modestia, igueseguingo det guizónen alabanz eta itz leunetatic, ez naiz izango ayec ni ezagutzearen zale, ezpada bere atseguin contentuac chiquichoen



eta pobrechoen artean dauzcan Jaungoicoac ezagutzearen zale. ¿Cer eman lizaquet mundu zoroác? Bacarric poz atseguin uñi bat, secular ez cristauác billatu bear duen paque eta sosegu eguiazcoa. Irichi zadazu, ene santua, munduac eciñ eman lezaquean, eta zure debotoai Zuc irisiten diezun, eta umiltasun guciaz nic escatzen dedan paque eguiazcoaren iturri, modesti atseguin au. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. David Erreguearen odoleco seme umilla, zure modesti ederragatic irichi zadazu niri ere bertute au.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## OGUEITA BATGARREN EGUNA.

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Non ere gorputz hilla dagoen,  
ara egatueo dira arrano edo agui-  
lac. [ *Luc. XVII, 37.* ]

**M**unduaren asieran ipiñi zuen Jaungoicoác *turreco paradisoaren erdian ibai andi* edo ur chiqui garbizeo iturri bat *baratz aberats artaco landare eta belárrac bustitzeco* ( Gen. II, 10 ). Onela Eliza-co lorabartz edo paradisoan ere ipiñi zuen, dio san Juan Crisostomoc, Sacramentu jaungoicozcoaren iturria, gure animac busti eta onguirotuaz, bertuteen lore eder-rac, eta santidadearen frutu uga-



ritsuac eman ditzaten. (Homil. XLV.) Arrazoi onegatic Santuac negarrezco bicilecu onetan egarri diran basauntzen guisa, Sacramentu jaungoicozcoaren iturrira beti lasterca etorri ciran, non gozotasun, poz atseguña topatu zuten.

Aita Baltasar Alvarez-ec, cernai lanetan jardun cedilla, beguñac goratu, eta Sacramentu chit Santua cegoen lecuronz beguiratu oi zuen; bere aguer-aldiac ascotan eguiten ciozcan, eta bere oñetan gau osóac igarotzen cituen, lurreco ondasun ecerez, galcor eta egun guchiren buruan utsera biurtzen dan bat ozta eman lezaquean guizon bat onratzeco, munduco andien echéac gendez beteac eta e-



men lurrean amorezco tronu batean jarrita, cabugabeco ondasunez b̄etea bici dan Erregue andienaren echea ascotan iñorgabe icusita, negar eguiten zuen; eta esaten zuen, erligiosoen dicha gucizcoa zala, bada, calera irtengabe, beren comentuetan, egunaren eta gauaren cer nai ordutan egon citezqueala Jaun andi onequiñ Sacramentu chit Santuan.

¡Ay nere biotzeco Jaun chit amoriotsua! alaingo ontasunaz deitzen nazun ezquero, zure amorioaren apurric mereci eztedala eta zure amorioaganaco añ esquergabea naicela icusten badezu ere, nere uste eta esperanza galdu nai ez ditut, nere argaltasuna eta eguiñ ditudan aibeste pecatu beguira-



tuta, Zuc nornai pecatari puntu batean ondu dezazuqueala, jaquiñic. Ondu nazazu, bada, ni peccatarien andien au; atera zaizquidatzu sustraiz zure ontasun neurrigabeari beguiratzen eztioten cernai amorio, Zure gogoco eztan cernai zale eta deseo; Zure serbitzura zucentzen eztan cernai pensamentu. Nere Jesus, nere maitea, nere ondasuna eta on gucia, bacarric Zuri atseguin eguin nai dizut, bacarric Zuc mereci dezu nere amorioa eta bacarric zu maitatu nai zaitut nere biotz guztiaz. Urrutira nazazu Zu ez beste gauza gucieta- tic, eta batu zaite nerequin; baña seculan Zugandic apartatuco ez naicen eran, ez bicitza onetan, eta ez bestean.



ITZ-ALDI LABURRA. ; Oh Jesus  
nere ondasun gozoa, arren ez na-  
zazu utzi Zugandic urrutiratzen!  
*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

MARIA CHIT SANTARI  
XXI.-EN BISITA.

**Z**ugana nator, Jaungoicoaren  
Ama, Eliza guciác *Ama urricalt-  
tsua* deitzen dizuna. ;Badateque  
Jaungoicoari añ gogoco zayon eta  
beti pocic artzen duen cere bitar-  
tecotasuna Zuc peccatariai ucatzea?  
Zure urricaltasunaz gueyago ez  
bedi itzeguiñ, Doncella sagradua,  
dio San Bernardoc, baldiñ bere  
premi-ordu, estura eta penetan  
deitu dizunen bat Zuc aditu eta la-  
lagundugabe secular gueratu ba-  
da. Niri ere ucatuco eztidazu, ba-



da, uste oso betearequiñ esca-  
tzen dizudan oni, zure urricalta-  
suna; bai, neronec baño ere o-  
raindic biciago erregutuco dezu-  
lacoan, eta neronec esca al nitza-  
quean baño mesede eta on andia-  
goac Jaungoicoagandic irichico  
dizquidatzulacoan, seguru nago.  
¡Oh Ama urricaltsua! Zugan guciac  
arquitzen duten ondasun andi ar-  
gatic ¿uca leguidazuque zure la-  
guntza galtzeco eta condenatzeco  
daucadan peribulu andi onetan?  
¡Oh Maria gozoa! alabaña guci  
au zurea naiz, lagun zadazu nere  
anima salbatzen.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡O Ama ur-  
ricaltsua! Zugatic salbatuco naiz.

*Escaria 33-garren orrian.*



**SAN JOSERI XXI.-en BISITA.**

Baldin peccatarien ama eta bitartecoa, Maria Doncellaren icenaz deitua bada, eta alacoari becelacristau guciac otseguiten badiote. ¿cristau hilcor onbear tristeen es-talpe eta bitartecotzat iduqui bear eztá Mariaren Esposo chit garbigure Aita san José gloriatsua ere? Egiptoco erregue Faraonen adisquide cutun antziñaco José bere anaya desdichatuen bitarteco eta itzal osasungarri izan zan, eta eguiaz eta beguiaz hura, cristau erriaren bear eta premien erremedioa escatzeco Jaungoicoaren gobernu zucenác ceruco Erregue Jesucristoren aldamenean ipiñizuen gure Joseran antz eta irudi



bat baño etzan. Zugana bidegui-  
teco escu eta derecho bat daucat,  
bada, ene santua, gañeratzen zaiz-  
quidan cernai neque, bear eta pre-  
mi-orduetan. Ezagutzen det, orre-  
taraco diña ez naicela, chit ondo  
icusten det nere gaiztotasuna; ba-  
ña guci orren damuz ere Eliz Ama  
Santac escua eman, eta oraindic  
mugueracitzen nau Zugana bide-  
guitera. Ceruco principeac pobre  
eta onbear tristeac icusi nai ez di-  
tuzten lurrecoen guisacoac eztira;  
orrez guciz bestera, cembat oyec  
beartsuago, aibat bere laguntza-  
ren escabide gueyago daucate.  
Enzun itzazu, bada, Patriarca glo-  
riatsua, nere erregu-escari umillac,  
eguizu zure urricaltasunaren pa-  
rean ipintzean bere miseriac ica-



ratzen ez duten, zure deboto onen bitartecotza; eutsi zadazu cere beso indartsuaz, libra nazazu gaiztoenaren lazo eta sare gucietatic, gorde nazazu peligro gucietatic, eta sar nazazu gloriaco portu seguruan. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Nequepean dauden gucien amparatzallea, arren ez aztu nizaz.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

## **OGUEITABIGARREN EGUNA.**

**SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.**

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

¿Icusi dezute bear bada nere biotzeo maitea? (*Cant. III, 3*).

**E**scritura Sagraduco Cantetaco  
Esposa sagradua bere maitearen



billa cebillen eta ez topaturic, ar-  
quitzen cituen guciai ciñez eta  
benaz galdetzen cien: *¿ Bear bada  
icusí dezute nere animac maite  
duena? Orduan Jesus lurrean e-  
tzan, baña orañ, baldiñ Bera mai-  
te duen anima batec billatzen ba-  
du, beti topatzen du Hostia sagra-  
duan. Avilaco Aita Juan Maisu  
beneragarriac esan oi zuen, eliza  
gucien artean Sacramentu chit  
Santua cegoen hura gogocoen  
citzayela.*

*¿ O amorio cabugabea mereci  
duen, nere Jaungoicoaren amorio  
ondogabea! ¿ Nola, Jauna, irichi  
cera, guizónaquiñ bicitzeagatic e-  
ta beren biotzaquiñ batututzeaga-  
tic, oguiaren antz-irudien bean es-  
taltzeraño beeratzera? ¿ Oh Jaun-*



goicoaren Seme guizon eguiña!  
 zure umiltasuna gueyeguia izan  
 zan, ceren guri diguzun amorioa  
 gueyeguia dan. ¿Nola negoque  
 Zu nere biotz guciaz maitatugabe,  
 nere amorioa ceretzeagatic eguiñ  
 dituzun gueyeguiac jaquiñic? Mai-  
 te zaitut, ene Jesus, maite zaitut  
 nere indar guciaz, eta onegatic na-  
 yago det Zure adisquidetasuna,  
 nere irabaci eta atseguin conten-  
 tu guciac baño. Nere poza zuri  
 atseguin eguitea da, ene Jaungoi-  
 coa, nere amorio eta nere on gu-  
 cia. Iracequi zazu nigan zure  
 Sacramentuaren aurrean beti ego-  
 teco, Comunio sagraduan Zu maiz  
 artzeco, eta beti Zurequiñ egote-  
 co zale eta deseo bici bat. Zu,  
 Jauna, aldare orretatic, deica za-



gozquit, eta urricaltasunic mereci  
ez nuquean esquer beltzeco bat i-  
zango nitzaque, baldiñ zure gom-  
bit añ gozoa pocic artzen ezpanu.  
¡Ay nere Jesus! arras deseguizu  
nigan lurreco gáuzaganaco zale e-  
ta deseo gucia, bada bacarric Zu,  
nere Salbatzallea, nere zale eta  
deseo gucien eta nere amorioaren  
gai izan bear cera. Maite zaitut,  
ontasun chit maitagarria, eta Zu-  
zaz campora beste ecer nai eztet.  
Gaurdanic despreciatuco ditut ne-  
re atseguñ-contentu gogo eta za-  
le guciac, ceren gauza gucietan  
zure borondate santua eguitea ba-  
carric nai dedan. Ontzat ar zazu,  
ene Jesus, Zu maitatzeco asmoe-  
tan dagoen peccatari baten deseo  
on au: lagun zadazu cere gracia-



requiñ; eguizu, Jauna, aimbeste demboran nere zori gaiztoan demonioaren escupean egon naicen becela, gaurtic aurrera zure amorioaren serbitzari leyal izatea.

ITZ-ALDI LABURRA. Maite zaitut, ¡oh Jaungoico amorioatsua! eta eriotzeco orduraño maiteco zaitut.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI XXII-EN BISITA.

¡Oh Jaungoicoaren Ama! zure urricaltasunac seculan despreciatu eztu, bere pecatuaz damututa, Zugana bideguin duen pecatariric. ¿Cer bada, engañatu ote da Eliza santa, *pecatarien bitarteco eta gordelecua* zuri deitzean? ¡Ah! nere pecatúac galeraci ez deguiotela



beñere zure urricaltasunari, peccatari gañoentzat estalpe segurua dan, urricaltasun orri. Seculan guerta ezpedi, Jaungoicoaren Amác, urricaltasunezco iturria beragandic jayo zan Ama batec beraganatzen zayon peccatari bati urricaltasuna ucatzea. Zure beargaya Jaungoicoarequiñ guizónen arteco bitartecotza eguitea da; nere peccatu guciac ere gañez eraguiten eztioten zure urricaltasun andi orrec mugui zaitza, bada, niri laguntzera, guci ayez biciro damutua nagoen ezquero.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡O Maria, gure bitartecoa! gorde nazazu zure Semearen Tribunal bildurgarrian arqui nadiñean.

*Escaria 33-garren orrian.*



**SAN-JOSERI XXII.-en BISITA.**

**B**ertutearen zale eta egarria; ona emen, nere amparatzalle gloria-tsua, zure bitartecotasun indartsu eta eraguillearen bidez biciro irichi nai nuquean birtutea. Lurreco bicitza onetaraco laguntzac, gorputzeco osasuna, emen bicitzeco bearra zadan gucia, Zugandic uste det; baña biciroago eta aleguiñ andia-goaz escatzen dizut, irichi deguidazula bertutea. Zuc, bertutea estimacioric andienezan iduqui cenduen, esan al baño maiteago iduqui cenduen, nola gañeraco beste ondasunen zale eta deseo guciac bertuteari toqui eman bear dioten, gañeraco cristauai cerorrec eguiñaz eracutsiaz. Zure bertuteac bere



contraco berogarri, zalegarri eta  
 engañagarri guciac azpiratu ci-  
 tuen; ezcontzan, andre gucien e-  
 derrenarequiñ garbi eta casto izan  
 ciñan; Jaungoico baten Amaren  
 esposoa becela, guizon bat igo  
 litequean mallaric goratuenean  
 umill; David Erreguearen odole-  
 coa ciñala, cequizularic, pobreza  
 iñolaco errencura gabe eramán  
 cenduen; nic, ene Santua, suertal-  
 di gucietan onela gorde dezadala  
 bertutea, bertuteac atera dezala ba-  
 za nigan cernai guertacaritan; jar-  
 rai dezadala beti eta utsaldigabe  
 bertutea eriotzeraño. Erregu zazu  
 nigatic, indar nazazu nere argal-  
 tasunetan, argui nazazu nere pen-  
 samentuetan, ezagüeraci zadazu  
 Zuc Jaungoicoaren aurrean dau-



cazun balimentu andia, nere animara etortzen barrunda ditudan graciaquiñ; eta graci oyec serbi deguidātela nere bicitza zucendu, eta eriotza on bat segurutzeco. Amen.

· ITZ-ALDI LABURRA. Bertute gucien ispillu bicia, cere antzeco eguiñ nazazu.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## OGUEITA IRUGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Ni topatzen nauenac topatuco du bicitza. (*Prov. VIII, 35*).

**C**ristau asco bidaje luce, neque eta peliburu andicoai equiñ oi zaizte, gure salbatzalle maitea jayo zan,



Jaun onec bere Pasioa padecitu  
 zuen eta berá hill zan lecu santu  
 eta beneragarri ayec icustea bes-  
 te eguiñquizungabe ; Ah! nola or-  
 relacoen lan santu oyec, gure za-  
 barqueri eta esquer beltz itsusia  
 arpeguian ematen dizquiguten,  
 bada ascotan gueron echearen on-  
 doan daucagun elizan bici dan  
 Jauna, bisitatu gabe gueratzen  
 guera. Erromesac guciz ascoan  
 daucate, dio san Paulinoc, Jesus  
 jayo zan gambelatic, edo bera se-  
 pultatu zuten obitic lur piſca bat  
 ecartzea ; bada ; nolaco eresi eta  
 berotasunaz, cembaterañoco zale  
 eta egarriaz joan bear eztegu Je-  
 sus bera eguiaz eta izatez dagoen  
 Sacramentu chit Santua icustera,  
 onetaraco alaco neque eta arris-



curic igaro bearric eztaucagun ez-  
quero?

Sacrāmentu chit Santuaganaco  
amorio irazaquia Jaungoicoac e-  
man cion persona birtuteoi batec,  
bere cartetaco batean beste gauz  
ascoren artean ipiñtzen ditu itz  
oyec: « Ezagutzen det, dio Sacra-  
« mentu chit Santuagandic dator-  
« quidala nere on gucia; beraga-  
« tic naicen guci au Jesus sacra-  
« mentatuari eman eta ofrendatu  
« natzayo. Conta al baño gueya-  
« go graci eta ondasun icusten di-  
« tut emangabe, ceren Sacramen-  
« tu jaungoicozco onetan oyec bi-  
« llatzera joaten eztan, eta gañe-  
« ra beguietaratzen zat, ceñ andia  
« dan aldareco Sacramentuan gra-  
« cia eta mesedeac zabaltzeco gu-



« re Jaunác daucan zale eta de-  
« seoa »

« ¡ Oh misterio santua! ¡ oh Hos-  
« tia sagradua! ¿ cer beste gauza-  
« tan aguertzen du Jaincoác bere  
« al-izate eta escu neurrigabea  
« Hosti onetan becela?, ceren gu-  
« gatic eguiñ zuen gucia emen  
« sartua dagoen. Ceruco doatsuai  
« ez imbidiaric izan, ceruan Jaun-  
« goicoaz gozatu al izatearen di-  
« cha daucatelaco, ceren ayec  
« ceruan daucaten Jaungoicoa be-  
« ra, amorezco aimbeste mira-  
« rirrequiñ emen lurrean gueroquiñ  
« daucagun. Saya zaite, bada, al  
« guciatz zurequiñ itzeguiten duten  
« guciac Sacramentu chit Santua-  
« ganaco jayera eta debociora ci-  
« ñez eta beuaz eman ditecen. O-



« nela itzeguiten det, ceren miste-  
« rio onec neregandic ateratzen  
« nauen, eta ceren aimbeste amo-  
« rio mereci duen Sacramentuaz  
« itzeguiñgabe eciñ egon naicen.  
« Cer eguiñ eztaquit nere Jesus  
« on Sacramentatuaren amorioz.»  
Onela azquentzen du carta..

¡Oh Aingueruac! zuec amorio go-  
zoz erretzen zaute gure Jaunaren  
inguruan, eta guciatz ere ez zuec-  
gatic, ezpada nigatic gueratu nai-  
izan zuen Sacramentu orretan ce-  
ruco Erregueác. Utzi nazazute,  
bada, oh Aingueru amorioitsuac,  
ni ere Sacramentu orreganaco a-  
morioan iracequitzen, edota iraza-  
cequi nazazute zuec daucazuten  
amoriozco su bici orretan, onela  
gucioc alcarrequiñ sutu gaitean,



¡Oh nere Jesus! ezagüeraci zadazu  
Zuc guizónai diezun onguinai eta  
amodioaren anditasuna, orrembes-  
terañoco amorioa icusita, Zu mai-  
tatzeco deseo eta zalea egunetic  
egunera gueitu daquidan. Maite  
zaitut, Jesus maitagarria, eta Zu-  
ri atseguin eguiteagatic bacarric  
maitatu nai zaitut.

ITZ-ALDI LABURRA. Ene Jesus,  
sinisten det Zugan, Zugan daucat  
nere esperanza, eta gauza guciaz  
gañ maite zaitut.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI

### XXIII.-EN BISITA.

Gogora ecartzu Andre guciz ur-  
ricaltsua, secular aditu eztala esa-  
ten, zure amparoa billatu, zure



bitartecotza escatu eta bere erre-  
gu-escariac Zuri zucendu dizqui-  
tzunetaco inor zuc despreciatu eta  
utzi dezula. ¡Oh María! erregu  
zazu guciocgatic, baita ere niga-  
tic, bada besteac baño peccatari  
andiagoa ni izanic, beste inor ba-  
ño zure bitartecotzaren bearrago  
naiz.

ITZ-ALDI LABURRA. Doncellen A-  
ma, oritzu nere biotza eta anima.

*Escaria-33-garren orrian.*

**SAN JOSEKI XXIII.-en BISITA.**

Jaungoicoaren Seme guizon e-  
guiñac lurrean aitaric etzuen, be-  
ragatic, san José gloriatsua, aita-  
ren ordeac Zuc eguiñ cñiozcan,  
bere aurtasunean bere gordetzalle  
cintzo eta amoriotsu izanaz; nic,



pecatari onbear triste onec, orrez  
bestera, galdu det ceruco nere Ai-  
ta, ascotan eguiñ dedan pecatua-  
ren bidez berarequico adisquide-  
tasun biguña erdi-erditic autsiaz.  
Zugana nator, bada, amparo billa;  
gorde zazu bere aitaren echetic  
eta bere beso amoriotsuetatic i-  
gues eguiñic, orañ munduco itsaso  
irabiatu onen erdian, eta puntutic  
puntura bere olatu aserréac irens-  
teco zorian iñoren laguntzega-  
be dabillen anima umezurtz au.  
Salba nazazu, Patriarca gloria-  
tsua, ar zazu cere contura ne-  
re anima, eramán nazazu ecer e-  
ciñ ucatuco dizun aren aurrera,  
eta zure erregu indartsu eta era-  
guilleaquiñ irichi zadazu nere pe-  
catu izugarrien barcacioa; nere



biotzeco mancha guciac guera bitez borratuac, ciquiñqueri guciac garbituac, culporen lepra sendatua, eta ceruco Aitarequiñ añ gozotoro batutzen ninduten tratabide zoragarri ayec ostera berri-túac. Goza zazu, san José gloria-tsua, Jaungoicoaren aserre bidez-coa, esqueñ zaizquiotzu Jaunari nigatic cere merecimentuac, eman zayozu nere zorren alderaco ordañ-sari ugaritsua, umilltasun guciac deitzen dizun peccatari onbear triste onen alde bere urricaltasuna macur eraciaz.

ITZ-ALDI LABURRA. Nere Aita san José gloriatsua, arren arzazu ceregana zure contura ematen dan umezurtz au.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## OGUEITA LAUGARREN EGUNA.

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Eguiaz Zu Jaungoico ezcutatu  
eta beguiaz icusten etzerana ce-  
ra. ( *Isai. XLV, 15.* )

Jaungoicoaren jaquintasun ondo-  
gabearen inolaco lan edo obratan,  
eztira añ ongui eguicaritzen esan  
diran itzac, nola Sacramentu chit  
Santuaren misterio arrigarri one-  
an, ceñean gure Jaungoicoa oso  
ezcutatua dagoen. Guizon eguiñ  
zanean, Jaungoicoaren Seme be-  
ticoa bere jaincotasuna ezcutatu,  
eta guizon eguiña aguertu zan  
mundura: guero, Sacramentu chit  
Santuan gurequiñ gueratuaz, be-



re guizatasuna ere ezcutatu zuen, eta bacarric oguiaren antz-irudia icusten degu, onela obeto aguertze-co, dio san Bernardoc, guri digun amorio gueyegua.

¡ Nere Salbatzalle maitea ! onembesterañoco onguinai au icusita, neregandíc irten, eta cer esan eztaquit. Zuc, guganaco amorez, cere anditasuna estaltzen eta cere gloria gordetzen dezu Sacramentu orretan, eta gure aldareetan egonaz, eztezula dirudi beste eguiñquizunic, ezpada guizónac maitatzea, eta diezun amorioa oyei aguertzea. Baña oyec cer eguiñ alco dute mesede añ señalatuaren esquer eta ezagüeran ? ¡ Oh Jesus chit amoriotu, guizónacganaco onguinayez betea ! ( utzi zadazu



onela itzeguiten) cere onra baño  
ayen ona lenago billatzen icusten  
zaitudan ezquero; ¿etziñaquizon  
cembat desprecioren beguira Sa-  
cramentu orretan jartzen ciñan?  
Icusten det, eta nic baño obeto  
cerorrec icusten dezu, guizonetaco  
ascoc eta ascoc adoratzan etzai-  
tuztela, eta Jaungoicotzat ezagu-  
tu ere nai etzaituztela Sacramentu  
orretan; badaquit ascotan irichi  
dirala Hostia sagradúac lurrera  
botatzera, edo urtan edo surtan  
sartzera. Gañera icusten det, ¡oh  
ene Jaungoicoa! cristau asco ere,  
orrembeste desprecio beren ado-  
racionaquiñ nolerebait ordañtzera  
eguiñal guciáz sayatu bearrean e-  
do etortzen dirala elizetara beren  
moldacaizqueriaquiñ Zuri naigabe



gueyago ematera, edota uzten zaituztela aztua eta utsa baciña becela, ascotan ez argui eta ez bearbearreco apañgarriric daucaten aldareetan.

¡ Ah! eta zure amorioa, eta zure biotz biguña Sacramentu orretan aimesteraño osticoperatuac eta despreciatuac izan diran lecu triste ayec nere negárraz eta nere odolaz ere, garbi al banitza, ¡ nere Jesus! Baña au eciñ dedan ezquero, beñic beñ eguiten det, gaur, Zu ascotan adoratzeco asmo sendoa guizónacgandic Sacramentu jaungoicozco orretan artzen dituzun desprecioen ordañez. Ontzat ar zadazu, ¡ oh Ait Eternoa! guizon gucien ecerezenen onec zure Seme sacramentuari eguiten



zaizean aimbeste charqueri eta bi-  
degabequeri nolerebait ordaintze-  
co, gaur eguiten dizun ofrenda la-  
bur au; ontzat ar zazu Jesucristoc  
gurutzean eman cizun, eta Sacra-  
mentu santuan egun oro ematen  
dizun, onra neurrigabe arequiñ  
batera. ¡Ah nere Jesus! Sacra-  
mentu orretan creatura guciac Zu  
guciz maitatzea eguiñ al baneza,  
chit pocic eguiño nuque, cernai  
neque, eta sacrificio costatzen ba-  
litzat ere.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh Jesus  
chit maitagarria! eguizu guizon  
gucioc Zu ezagutzea eta maita-  
tzea.

*Escaria 33-garren orrian.*



MARIA CHIT SANTARI

XXIV.-EN BISITA.

¡Oh Andre chit maitagarria ! Zuc peccatariai laguntzeco zalez zauden orrec, ona nun daucazun zugana datorren peccatari bat; lagun zadazu laster, eta biciro, eta zure urricaltasunaren gloria izan bedi milla infernu mereci lituquean peccatari bat Jesucristogan salbatzea. Zure bitartecotasuna zure Semearentzat chit indartsu eta eragui-ilea da: eta ala, chit ondo irichi deguizquidatzuque añ beárrac zaizquidan bertute ayec. Eguizu bada onela, Jesusi diozun amorio-gatic. ¡Oh Doncella chit garbi eta gaitzgabea ! beti aitortuco det san Bernardorequiñ, Zu cerala



Jaungoicoagan eta Jaungoicoaren  
urrena nere uste eta confianz an-  
diena.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh Maria!  
erruqui zaite nizaz.

*Escaria 33-garren orrian*

### **SAN JOSERI XXIV.-en BISITA.**

Gure andiuste eta niquezcoaren  
damuz ere, eciñ gueyagorañoco  
argaltasun eta aultasuna da guizo-  
naren izatea cer edo nolacoa dan  
onguien aguertzen duena. Alde-  
aldean gauz onic eciñ eguiñ guen-  
zaqueanac guera, gaitzeraco chit  
gai eta gogotsuac gueran bitar-  
tean; naigabe arin bat onez era-  
maten eztaquigu, cargarie ariñe-  
nac macurtzen gaitu, naierara ez  
datorquigun gauzarie chiquienac



goibeltzen gaitu, eta guci orren damuz ere, gure andiusteac sinistera-citzen-digu, cernai ecinquizun eta aldaparen aurrean eciñ icaratu litequean indar eraguille eta sendotasun portitz bat daucagula. ¡Ceñ beneric izan ciñan Zu, nere Aita maitea! Zuc cere burua ecertaco etzalacotzat cendeucan, gañeraco guizónac baño gueyago balio cenduelacotzat seculan egon etziñan, eta guciáz ere sendotasunezco espiritu miragarri batez ornitua ceunden. Nequeric andienen pisuác iñoiz ere macurtu etzinduen, eta iñolaco duda eta bildurrec zure espiritua icaratu etzuen, eta ezbear eta gaitzegoquiric gogorrenac azpiratu etzuten. Jaungoicoaren gobernu zuc enaganaco uste eta confian-



zarequiñ perill eta estutasunguciai  
arpegui eman, eta neque eta eciñ-  
quizun guciac garaitu cinduen eta  
anima ongui maneatu eta graciaz  
apañdutaco bat aguertzen duten  
paque eta sosegu eder hura zu-  
re biotzac iñoiz ere galdu etzuen,  
ceñ eta estura larrietan icusi ciñan.  
Irichizadazu niri, Patriarca santua,  
cristauác bear duen, sendotasuna-  
ren bertute eder au, beraren bidez,  
salbacioco bidean topa nitzaquean  
aldapa eta eciñquizun guciac az-  
piratu, eta iñoren leunqueri eta  
lorenchac ni engañatzen, eta nai-  
gabe eta pénac icaratzen utzi ez  
nadiñ, baicic eta cristau-bicitza on  
batean beti jarrai dezadan, glo-  
rian sartu nadineraño. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Patriarca san-



tua, sendotasunaren ispillua, indar zazu nere biotz aula.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## OGUEITA BOSTGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Eriotzeraño obeditzalle eguinta.  
(*Philip. II, 8*).

Gorätzen du San Pabloc Jesucristoren obedientzia, esanaz eriotzeraño obeditu ciola Aita Eternoari. Baña Sacramentu chit Santuan aguitz andiagoa da bere obedientzia, ceren emen bere Ait Eternoari ezecic guizónai ere obeditzen dien; eta au ez bacarric eriotzeraño, baicic munduac iraungo duen dembora gucian. Guizon bati obedi-



tzeagatic cerutic jechi, eta uzten da aldareetan ipintzen, guizónac nai duten gucian; ipintzen duten lecutic muguitugabe dago, dala custodi batean aguirian, edo dala sagrarioan sartuta; uzten da cale eta echetara eramaten, eta naiz peccataria naiz justua izan, norinai uzten zayo comunio sagraduan Bera artzen. Munduan bicitu zan artean Maria chit Santarequiñ san Joseri obeditzen ciela, dio san Lucas-ec; baña Sacramentu orretan munduan cembat sacerdote, aimbeste creaturi obeditzen die.

Utzi zadazu, bada, ene Jesus, gaur zure Biotz chit amoriotsua-requiñ itzeguiten, nondic Sacramentu guciac irten ciran, batez ere amoriozco Sacramentu ori. Ar-



gui itzazu, oh Biotz jaungoicoz-  
coa, Zu ezagutzen etzaituzten gu-  
ciac. -Cere merrecimentuen bidez  
atera itzazu purgatoriotic, gaur-  
danic betico zure esposa diran a-  
nima gaño ayec, edo beintzat ariñ  
zaizquietzu béren neque eta pénac.  
Adorätzen, alabatzen eta maita-  
tzen zaitut, gaur ordu onetan ce-  
ru-lurretan Zu maitatzen dauden  
anima guciaquiñ batera. Garbi za-  
zu, oh Biotz chit garbia, garbi za-  
zu nerea creaturaganaco cernai a-  
morio eragabecotic, eta bete zazu  
zure amorio santuz. Eguiñ zaite  
oh Biotz chit eztitsua, nere biotz  
guciaren jabe, aurrerontzean gu-  
cia oso zurea izango dan eran.  
Josi itzazu, oh Biotz chit santua,  
nere biotzean, aimbeste urtean ne-



re amorioz lurtean eramán cin-  
duen naigabe eta pena garratz a-  
yec, bicitz onetaco neque, pena e-  
ta eramánquizun guciac zure amo-  
rioz pacienciaz eramán ditzadan.  
; Jesusen Biotz chit umilla, biotzez  
umill eguiñ nazazu! ; Biotz chit  
mantsoa! zure mansotasuna itsa-  
tsi zadazu, quen zazu nere biotze-  
tic zuri gogoco etzazun gucia, eta  
oso ceregana biur nazazu, Zuc nai  
dezuna ezpada nai eta deseatu ez-  
tezadan. Azquenic, bacarric Zuri  
obeditzeco, Zu maitatzeco, Zuri  
atseguiñ eguiteco bici nazazu.  
; Ah ene Jesus! ezagutzen det ceñ  
asco zor dizudan, eta ceñ beartua  
guerätzen naitzazun zure Biotz  
jaungoicozcoaren fiñecen aurrean;  
guchi eguingo nuque, bada orda-



ñez guci au zure amorioz urtuta  
iltzen banitz ere.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh Jesusen  
Biotz sagradua! zu icequitzen zai-  
tuen suan erre nazazu.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

MARIA CHIT SANTARI  
XXV-EN BISITA.

¡Nere Erreguiña chit amoriotsua!  
Zu cera Jaungoicoaren ondasun  
aberats, eta Jaungoicoac eguiten  
dizquigun urricaltasun guciac gü-  
gana iristen diran bidea. Cerorre-  
esaten didazu, Zurequiñ daudela  
ondasun guciac, Zu maite zaituz-  
tenac aberasteco. Aberastu itzazu,  
bada, oh Andre miragarria, Zu bi-  
llatzen zaituzten guciac. Nere A-  
ma maitea, eguia da, peccatari an-



di bat naicela; baña eguia da Zu biciro maite izan nai cinduquedala ere; Erruqui zaite, bada, nizaz, ez nazazu bota ceregandic, eta lagun zadazu bicitzan eta eriotzan, egunen batean ceruan icusi alzaitzadan.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Ene Ama! Jaungoicoaren urrena Zu izango cera beti nere esperanza.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSERI XXV.-en BISITA.**

Nic neregan senti dedan, nere buruaganaco amorio eragabeac asco galerazten dit, nic gueyen tratatu bear dedan lagun urco edo projimo ayequiñ lurraren gañean gure bicitza atseguingarri eguiten duen gozotasun eta eztitasun hura



iduquitzea. Niquezco arróac, beste guciac baño goragoan gueratu nai du, eta emendic guizónen artean erroidu eta iscambillac sortzea, Jaungoicoác bere creatura on-bear tristen aringarri izateco eguin zuen bicitza, garratz eta samíñ eguiñaz. Onegatic, san José gloriatsua, Zuri beguiratzean, ingurutzen zaituzten gucientzat paque eta alcartasunaren prenda seguru, paquezco iturri Zu beti icustean, eciñ negoque Zuri deitugabe, nere gríñac beren neurritic irtetea galeraciaz, alcarrequiñ bici bear duten ayen arteco erroiduac hiltzen dituen, nere buruaren gañeco nagusitasun eta aguinte hura irichi deguidazun. Ni paquearen causa eta bide beti izan nadilla,



ni naicela bide nere aide eta adis-  
quideen artean paquea beñere  
galdu eztedilla, cernai erroidu i-  
tzaltzen, aserreac gozaten eta  
gucien genioac alcarrequiñ ongui  
datocen eran ipintzen nic jaquiñ  
dezadala, gaurco eguneco cris-  
tauaz esan al izan dediñ, gentill  
edo fedegabeac lenengo cristauac-  
gatic ciotena: beguira alcarri  
cembat nai dioten. Bai, irichi  
zaguzu neretzat eta cristauerri  
guciarentzat paquezco eta alcar-  
tasunezco espiritua, gure fede eta  
erligioaren bidez betico glorian  
gucioc alcarrequiñ gozatzeco se-  
ñalpenduac gaudenoc, lurrean ere  
alcarrequiñ ongui etorriaz paquean  
bici gaitean. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Aita gloria-



tsua, gozatu zazu nere genio mu-  
querra, aide eta senide gucien  
artean paquearen prenda arqui  
dediñ.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

## OGUEITA SEIGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Eciñ gueyagoraño poztu, eta Jau-  
na alabazazute ó Sion-tarrac, bada  
zuen erdian andi aguertzen da Is-  
raelco santua. (*Isai. XII, 6.*)

¡Oh nere Jaungoicoa! ¡cer poz-  
atseguña iduqui bear guendu-  
quean, eta cembaterañooco amo-  
rioac bete bear luquean gure bio-  
tza, jaquiñic nola Santuen santua,  
Jaungoico eguiazcoa, Bera icuste  
utsez ceruco Santuac doatsu egui-



ten dituena, amorioa bera dan hura emen gure artean, gure elizen barrumbean, gure auzoan bertan Aldareco Sacramentu chit santuan bici dan! Sacramentu au amoriozco Sacramentua ezecic, da amorioa bera ere, edo bere creaturai dien amorio neurrigabeagatic amorioa deritzan Jaungoicoa berá: *Deus charitas est.* Baña aditzen det nola cere espac aguertzen dituzun, nere Jesus, esanaz: *Hospes eram, et non collegistis me;* au da, mundu onetan gure oneraco gurequiñ bicitzera etorri ciñala, eta guc guere artean artu nai izan etzaitugula. Arrazoi dezu, Jauna, arrazoi dezu: Zurequiñ egotera aguertu ere gabe Zu baccarric utzi izan zaituzten esquergabe gaizto orietatic bat ni naiz.



Culpa onegatic nai dezun eran castiga nazazu, baña arren ez zu icustea galeraci lizadaquean castiguren batequiñ, bada berealatic eguiten det oquer au zucendu, eta erremediatu eta oraindaño aguer-tu dizudan esquer beltz itsusi eta zabarqueria osatzeco asmo sendoa, gaurtic aurrera Zurequiñ ascotan egoteaz gañera, Zurequiñ alic luzaroen egon nai det. ¡Oh Salbatzalle chit urricaltsua! arren lagun zadazu Zuganaco leyal izaten, eta beste guciai ere, neronec eguiñaz, Sacramentu chit Santuan Zurequiñ egoteco buruzpidea ematen. Aita Eternoari aditzen nagoquio nola dion: *Auda nere atsequiñ contentu guciac beragan dauzcadan nere Seme chit maitea.*



Bada baldiñ Jaungoico batec Zuggan arquitzen baditu bere atseguin-contentu guciac ; nie ere negarrezco bicilecu onetan nere poz atseguin gucia Zure ondoan egoten topatuco ez tet ? ; Oh Jaungoicoaren amoriozco sutegui bicia ! erre eta deseguin zaizquidatzu lurreco gauzacganaco zale eta deseo guciac , ceren bacarric oyec desleyaldu eta nere Salbatzalle gozoagandic urrutiratu nazaqueen ; eta oraindaño aimbeste on eguin dizquidatzun ezquero, gañerra orañ escatzen dizudan au ere eguidazu : eta da, sustraiz atera zazula nere biotzetic zurea eztaubeste cernai amorio. Zure escujaungoicozcoetan jartzen naiz, eta gueratzen zadan bici gucia Sacra-



mentu chit Santuaren amorio eta adoraciona esqueñtzen det gaur. Zu, ñere Salbatzallea, Zu izan bear cera nere eguiñal eta amorio gucien gai bacar, ala bicitzan, nola eriotzean. Arren eguidazu nere bicitzaren azquen orduan bideraco janaritzat Zu artzeco eta guero zure erreinu doatsura eramateco gracia. Nic uste dedan becela guerta dedilla.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Oh nere Jesus! ; noiz izango ote det Zu arpeguiz-arpegui icusteco dicha paregabea?

*Gogozco Comunioa 27-garren orrian.*



MARIA CHIT SANTARI

XXVI-EN BISITA.

¡Oh Doncella chit gozoa! orañ e-san bear dizut san Bernardore-quin: *Zu cera urricaltasunaren Erreguiña*. Eta ¿ceñ dira urricaltasunaren aguindupecoac ezpada beraren bear diranac? Zu urricaltasunaren Erreguiña cera, eta ni pecatari gucien on bear eta gaiztoena. Bada, Ama maitea, Zu urricaltasunaren Erreguiña bacera, eta ni pecatari gucien andiena, eta beragatic zure aguindupecoena, beste gañeraco guciaz baño nizaz contu andiagoa iduqui bear dezu. ¡Oh nere Bitarteco andiena! Zuc ondo daquizu ceñ andia dan nere



bear eta premia; gorde nazazu, eta erruqui zaite nizaz.

ITZ-ĀLDI LABURRA. ¡Oh Ama erruquitsua! izan zaite nere indar, eta nere animaren osasun eta paquea.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSERI XXVI.-en BISITA.**

Oraño guizaldia zoratua darabilen, atseguin contentuacganaco amorioac, gueyago edo guchiago gucioc cutsutzen gaitu, beragatic nequegarri edo mortificacioaren birtutea etorri da chit guchic iduquitzera cristauen artean. Ustetzen da ecen, aimbeste balio duen bertute onec bacarric erligiosoaren persona apañdu bear duela, eta bestelaco cristauac bertute o-



nequiñ icustecoric ez dutela; eta guciáz ere Zu, ez eremutarraren biciera, ezpada esposo eta familia-co buruaren biciera munduan e-guiñ cenduen ori cristau mortificacioaren ispillu eta icasbide e-guiña izan ciñan. Cere sentidúai eta cere araguiari ere gozaldiric secular eman etziñien, atseguñ-contentu eragabeen palacu eta pozcarriric secular billatu etzen-duen; zure atseguñ contentu gucia espiritucoa zan, eta zure poz atseguñac animaren jatordu garbietan ceuden. Cristau gucioc onetara griñatu bear guiñaque; baña ala zori gaiztoan, gure araguiaren griña macurra dala bide, uzten guera berontz eramaten, ceren aragui onen berogarríac mun-



dúac biciro esnatzen dituen. Zuganator, bada, Patriarca santua, eta mortificacioaren bertutean añ biciro argui eguiten duen zure bicitza guciari beguira jarrita, umiltasun guciaz zure escu eta laguntz esque nagoquizu, jaquiñ dezadan nere sentiduac escuratu eta beren neurrian iduquitzen, atseguñ contentuac utsean iduquitzen, nere gogo eragabeac atzera eracitzen, eta Jaungoicoaren antz-irudira utsetic eguindaco, eta nere zatiric baliozcoena dan, animaren atseguñ contentuetan nere zori on eta dicha gucia ipintzen, lurreco atseguñ contentuac eciñ eman lezaqueen, eta zurequiñ batera, oh nere Aita maitea, gozatu uste dedan betico atseguñ contentu hura iris-



teco prestatuaz onela joan na-  
diñ. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Nere Aita  
laztana, arren irichi zadazu nere  
burua mortificatzeco zale eta de-  
seo eguiazcoa.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## OGUEITA ZAZIPGARREN ECUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Eliza santac Sacramentu chi San-  
taren eliz-pestan cantatzen du:  
*Bere jaungoicoac añ aldean dauz-  
catzien erriric ezta, nola gure  
Jaungoico ona gure aldean dagoen.*  
(Deut. IV, 7.) Gentill edo fede-



gabeac gure Jaungoicoaren amoriozco lanaz itzeguiten aditzean, esaterätzen cirau: *¡Oh ceñ ona dan cristauen Jaungoicoa, ceñ ona dan.* Eguiaz, fedegabe oyec bérac nai zuten becelaco jaungoicotzacoac eguiten bacituzten ere, beren historietan eztegu iracurtzen guizó-nacganaco amorioan añ itsutua cegoen jaungoico bat somatu zutelacoric, nola dan gure jaungoico eguiazcoa; norc pecatariai bere onguinai eta amorioa aguertzeco, eta oyec bere graciaz aberasteco, amorezco mirari bat eguiñ zuen, au da, betico gure lagun bera eguitea, eta puntu batean ere gugandic eciñ aldeguiñ bacezaquean becela, gau eta egun gure aldareetan gordea gueratzea.



¡Ah nere Jesus chit gozatsua!  
ondo daquit gure artean, gure on-  
doan egotea cere zale eta egarri-  
bicia betetzearren eguiñ cenduela  
zure mirari gucien andiena. Baña  
¿cergatic igues eguiten dute, Jau-  
na, guizónac zure aurretic? ¿Eta  
nola egon alditezque aimbeste  
demboran Zugandic urruti, Zu añ-  
guchitan icusiaz? Zure aurrean e-  
goten añ laster gogaitzen eta as-  
pertzten dira, nun, iñoiz an igaro-  
tzen duten ordu laurden bat, eun  
urte iruditzen zayen. ¡Oh nere  
Jesusen eraman andi eta pacien-  
cia! eta ¡ceñ andia ceran! Baña eza-  
gutzen det, Jauna, cergatic dan an-  
dia, ceren guizónai diezun ongui-  
nai eta amorioa chit andia dan; eta  
amorio onec beartzen zaitu aimbes



te esquergaberen artean egotera.

¡ Ah nere Jaungoico , gañeraco  
bestē gauza gucietan becela, amo-  
rioan ere azquen gabea cerana! ,  
arren aurrerontzean ez nadilla  
izan, oraindaño becela, esquerga-  
be orietacoa. Indazu zor dizudan  
aimbateco amorio bat. Izan zan  
dembora, zori gaiztoco dembora,  
Zurequiñ itzeguiten aspertzen ni-  
tzana, ceren maite etzindudan,  
edo chit guchi maite cindudan; ba-  
ña, baldiñ zure graciarequiñ bear  
becela Zu maitatzera iristen ba-  
naiz, orduan ez naiz aspertuco  
gau eta egun Zure aurrean auz-  
peztuta egoten, ¡ Oh ceruco Aita!  
cere Semea bera esqueñtzen di-  
zut, eta bere merecimentuacgatic  
escatzen dizut, Sacramentu chit



Santuaganaco amorio bat, añ andi eta eraguillea, nun Bera dagoen elizen baten ondotic igarotzen naicen bacoitzean Sacramentu adorgarri au bururatu, eta beraren aurrean aldicho bat eguiteco deseo eta zale andi bat iduquico dedan.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Nere Jaungoicoa! Jesusen amorez indazu Sacramentu chit santuaganaco amorio bici bat.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

MARIA CHIT, SANTARI  
XXVII-EN BISITA.

Agur, ceruaren apañdura miragarri eta lurraren gordetzallea. Agur, ceruco Erreguearen Ama, milla bider zorionecoa. Zuc, oh Andre



miragarria, zure seme bacarraren  
urrena, Zuc daucazu gauza gucien  
gañecō escu eta aguintea. Chiqui  
eta andi, aberats eta pobre, lénac  
eta oraingoac, Zure aurrean guciac  
umillatzen dira, mundu gucia auz-  
peztzen da zure oñetan, zure ice-  
na aditzearequiñ izutzen dira de-  
monioac; zure argui-errañua a-  
guertzen ez alda, ayenatzen dira  
illunabar guciac, eta ozta Zuc a-  
guintzen dezu, zabaltzen dira ce-  
ruco atéac. ¡Oh zure Seme Jesu-  
cristoren urrena cristauen uste eta  
esperanza! ¡Oh Erreguiñ urrical-  
tsua, bicitzaren eztitasuna! Ne-  
garrezco bici-lecu onetan erbeste-  
tua becela, negarrez deica nago-  
quizu: poztu nazazu, Ama mai-  
tea, nere nequeetan, indar nazazu



nerre erori aldietan, eta deserri on-  
bear triste onen ondoren aguer za-  
dazu zure sabeleco frutu bedein-  
catu Jesucristo, dembora gucien  
demboretan erreinatuz bici da-  
na. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh Maria!  
Zure icena izan daquidala nere  
estalpe seguru.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSERI XXVII.-en BISITA.**

¿Nola legoque anima cristaua  
poz-atseguñez gañez eguiñgabe,  
nere Aita chit maitea, zure antz-  
irudi edo imagiña guciz nobleari  
beguira jartzean? Icusten degu,  
araco mundua beatz batez daucan  
Hura, zure zori on eta dicha egui-  
ñaz Zuc cere besoetan daucazula;



zure escuco maquilla sagradua  
iñolaco manchagabeco lirio zuri  
ederraz coroatua dagoela; icusten  
zaitugu Belenen Aingueruen soñu  
eta canta zoragarrien erdian Aur-  
cho jaungoicozco biguñaren glo-  
ria oso eta eguiazcoaren parte iza-  
ten, bere oñetan auzpeztuta ceu-  
den Erregue mairuacgandic atera  
zuen triunfoaz gozatuaz, eta berriz  
an temploan batzarrean ceuden ja-  
quiñtsuagoagandic atera zuen ar-  
rigarrizco bictorian parte izanaz.  
Zorioneco izateco jayo zan nere  
biotzac ere, atseguin-contentua nai  
luque: ¡ ay eta utseguiten ezpalu,  
baicic eta atseguin-contentuaren  
iturri eguiazcora bideguiten balu!  
Zu, san José maitea, izan zaite  
nere maisu, sar nazazu poz atse-



guiñ eguiazcoaren erdi-erdian, bada au progatzera iristen danac, berealatic despreciatu eta oñperatzen du munduac ematen duen atseguñ contentu palso engañagarria. ¡Oh nere Aita chit doatsua! Espirituz Cristoren senidea naiz, beragatic arren eguizu berealatic nere biotzean asitzea Jaungoicoagandic datorren atseguñ-contentu chit garbi hura; onela munduaren lausenga eta atseguñ-contentu guezurrezcoac engañatuco ez naute; onela joango da nere anima lasterca, Zuc gozatzen dezun, eta zure merecimentuen eta bitartecotzaren bidez nic ere irichi uste dedan zorion eguiazco eta beticoaren ondoren, Jesus, Maria eta zurequiñ batean secula gucien se-



culetan bicitzeco. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Patriarca gloriaz betea, Zuc, guizonen doatsuena ceran orrec, irichi zadazu iñoiz ere aldarteric eztuen poz atseguiñ eguiazcoa.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## OGUEITA ZORTZIGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeeraco oracioa 29-garren orrian.*

¿ Nola, bere Semea bera eman digun ezquero, beste cernai gauza guri ematea utzico du?  
(Rom. VIII, 32).

Jaungoicoac guri, San Pabloc dion becela, bere Semea berá emanic, ¿ cergatic izango guera escatzen diogun cernai mesede ucatu digun beldur? Badaquigu Aita



Eternoac duen gucia Jesucristori ematen diola. Gora zagun, bada, gure Jaungoico amariotsuaren ontasun, urricaltasun eta escu ongullea, ceren bere Seme maitea Aldareco Sacramentuan emanaz, bere doai eta ondasun guciaz aberastu nai izan guinduen.

¡Oh munduaren Salbatzallea!  
¡Oh Jaungoicoaren Seme guizon eguiña! orañ esan dezaquet Zu nerea eta oso nerea zaitudala; baldiñ nic nai badet. Baña ¿orobat esan nezaque ni Zurea naicela, Zuc nai cenduqueñeraño? ¡Ah Jauna! arren eguizu gueyagoren gueyago munduac onelaco irabia eta esquer beltz itsusiric ez icustea; alabaña, Jauna, ¿badateque nic nai gucian Zu nere izatea, eta



Zuc nai dezunean ni Zure ez iza-  
tea? Ez, nere Jauna, arren ez e-  
man aurrerontzean onela guerta-  
tzeco lecuric. Berealatic asmo eta  
propositu sendoaz oso zure serbi-  
tzura esqueñtzen naitzazu; es-  
queñtzen dizquitzut nere bicia,  
nere nai eraguille edo borondatea,  
nere gogoracioac, eta eguiten di-  
tudan gauza guciac; berealatic e-  
rabat uzten ditut creatúrac, eta  
jartzen naiz Zuc gogo dezun gu-  
cira. Iracequi nazazu zure amo-  
riozco sugar bicietan. Eztet nai  
creaturec nere biotzean toquiric i-  
zatea, bada nic maite etzinduda-  
nean ere Zuc emandaco onguina-  
yaren señaleac ematen didate o-  
rañ, Zu maite zaitudanean, eta  
naicen gucia ematen naitzazunean



Zue artuco nazulaco uste eta esperanza.

¡ Oh Aita neurri eta azquengābe ona! Esqueñtzen dizquitzut Zure Seme maite Jesusen Biotz chit Santuaren birtute guciac, esan eguiñ guciac, zale eta deseo guciac: ar itzazu nere icenean, eta Berac emanta, diran guciac nereac diran bere merecimentuacgatic, indaizquidatzu Jesusec nigatic escatzen dizquitzun graci ayec. Merecimentu oyequiñ ematen dizquitzut eguiñ didazun alaingo urricaltasunagatic zor dizquitzudan esquerac ere: oyequiñ ateratzen ditut nere peecatuen zórrac; oyen bidez Zugandic uste ditut gracia guciac, barcacioa, onean irautea, cerua, eta guciacz gañ Zure amorio eguiacz-



coaren doai paregabea. Ondo icusten det, neronec galeraci diodala guci oni nigana etortzea, baina au ere cerorrec erremedia cenzaque, eta erregutzen dizut erremedia zazula Jesucristori diozun amorioagatic, bada Berac esaten digu, Bere icenean escatzen dizugun cernai gauza emango diguzula. Zu maitatzea beste ecer nicnai eztet, bacarric naicen guci au oso Zuri ematea, eta oraindano becela, gueyagoren gueyago Zuganaco esquergabe ez izatea, naidet. Enzun nazazu, Jauna, ontzat ar zazu nere escaria. Eguizu arren gaurco eguna ni oso eta bici, eta seculan ez aldeguiteco, Zugana biurtzen naicen egun. Maite zaitut, ene Jaungoicoa, maite zaitut,



ontasun ondogabea, maite zaitut  
nere biotzeco cutun, nere paradi-  
so, nere ondasun, nere bicitza eta  
nere on gucia.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh nere Je-  
sus! Zuc maite nazu, nie ere Zu  
maite zaitut.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

BIRGIÑA CHIT SANTARI  
XXVIII.-EN BISITA.

¡Oh Maria! poz atseguñez zora-  
tzeco moduan jartzen nau Eliza  
santac, eta zure serbitzari leyálac  
Zuri *Mater amabilis* deitzean e-  
guiten dizuten dei amoriotsu arc!  
Bai, eguiaz Zu cera creatura gu-  
cien artean nobleen, garbien, e-  
derren, biguñen, santuen eta mai-  
tagarriena. ¡Oh eta baldiñ Zuc



mereci becela, guciac ezagutzen eta maitatzen bacindute! Nere zale eta deseoa au da, Erreguiña chit maitagarria, bai, chit maite izan nai cinduquet; baña nic nere indar áulaz eciñ irichi dedan amorio au bera ere Zuc irichi deguidazuque Jaungoicoagandic. Onela eguizu, Ama laztana, umiltasun guciatz au escatzen dizut eta. Gaurdanic zure serbitzura ematen naiz zure serbitzarien iracequienetaco bat izateco zalez eta deseoz.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡ Erreguiñ maitagarria ! irichi zadazu amorio garbiaren doaya.

*Escaria 33-garren orrian.*

**SAN JOSERI XXVIII-en BISITA.**

**N**ere biotzeco Aita san José, zure



bicitza ondo beguiratuta, icusten zaitut, ez bacarric zure biotza lur-reco gauzaz gora alchatu eta Jaungoicoarequiñ batuaz, baicic, gañera, icusten zaitut Jaungoicoaren gobernu zucenác zure contura utzi cizquitzun eguiñquizun eta lánac betetzen, eta cere obligacio chiquienetarañocoac ere zucen eta leyal cumplitzen. Era miragarrian Zugan icusten det, [cristauaren bertute eguiazcoa eztagoela, iñoiz gueyenac uste duten becela, oracio eguite utsean; baicic gañera bear dala, eta escatzen zagula, bearreguitea ere. Zuc Patriarca miragarria, bear edo laneguiten cenduen, zure familiac bicitzeco bear zuena, zure becoquico icerdiaz irabazten cenduen; Erregueen



odol noblecoa ciñan, eta guciaz ere zure escúac arotziaco tresnac erabiltzeco uzcurtasunic etzuten. Baña, ¡nola zuc lan au espirituraco ongarrí eguiten cenduen! Lan onec gorputzaren janaria irabazteco ezecic, beste bicitzaraco, ceruco ondasun andíac irabaciaz joateco ere serbitzen cizun. Zugan icasten det, bada, gorputz-lan eta arazóac pocic artzen, oríec nere burua santificatzeco, birtutean aurreratzeco gai eta bideac becela beguiratzen; bearreguiño det bada, Jaungoicoaren borondate santuari obeditzeco zalez eta deseoz, nere pecatuen zórrac ateratzeco, nere griña eragabeac buruzperatzeco ere; bearreguiño det, itz batean, Zure antzera, nere Aita



gloriaz betea, emen lurreco bici-  
tza onetan Zuc becela eguiñaz,  
guero ceruco glorian zure ondoan  
egongo naicelaco uste osoaz.

ITZ-ALDI LABURRA. Nere Aita  
maite san José, berealatic eguiten  
det bicitza onetaraco ezecic, beti-  
coraco ere zure antzera bearre-  
guiteco asmo eta propositusendoa.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---

---

## OGUEITA BEDERATZIGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Ona ni emen zure biotzeco a-  
tean deica. (*Apoc. III, 20*).

**C**ere ardien amorioz gurutzeco  
aldare gañean beñ bicia emateaz



ez aseric, dembora gucien azque-  
neraño beti gurequiñ egoteagatic  
Sacramentu jaungoicozco orretan  
gueratu nai izan cenduen Arzai  
chit amoriotsua ! ; Ah, zure ondoan  
egote zoragarriaz gozaten nic ba-  
nequi, zure esposa santac becela,  
ceñac esaten zuen: *Araco alain*  
*deseatzen nuen aren itzalpean ese-*  
*ri nitzan!* (Cant. II, 3.) ; Ah, e-  
guiaz eta benaz maite bacindut,  
nere Jesus maitagarria, orduan  
cembat naico nuquean, eta ceñ  
ciñez eta benaz iraungo nuquean  
gau eta egun custodi baten oñean!  
eta an, oguiaren anz-irudien estal-  
quipean ezcutatua, baña beti ce-  
requiñ daucazun Anditasun jaun-  
goicozcoaren ondoan nere descant-  
tsu gucia topatuta, arquituco ni-



tuque Zu biciro maite zaituzten animac gozaten dituzten atseguin contentu ayec!

¡Oh Jauna! cere edertasun zoragarriaren locarriaz eta Sacramentu orretan aguertzen didazun onguinai paregabearen indarrez ceregana dei nazazu. Au onela eguiten badezu, nere Salbatzallea, utzico ditut munduco creaturac eta atseguin contentu guciac, eta corrica etorrigo naitzazu Sacramentatua zauden lecura. ¡Oh bertute santuen nolaco frutuac ematen diozcaten Jaungoicoari, amorioz eta iraupenaz Zure aurrean egoten diran, suerte oneco anima ayec! baña ez nic, bertutez aũ pobre eta solla nagoelaco, arrazoiz eta bidez Zure Majestade jaungoi-



cozcoaren aurrean jartzen lotsa naicen onec. Zuc, ene Jesus, agundu dezu, zu onratzera alderera dijoacenac, Zuri doairen bat ofrendatugabe joan ez ditecela: *Nere aurrean escutsicjarrico etzera* (Exod. XXIII, 15.) ¿Cer eguiñ bear det bada? ¿Zurequiñ egotera ez etorri? Ez, nere Jesus chit maitagarria, Zuri gogoco zatzuna au ezta; naicen becela pobre eta beartsu etorrico naitzazu; eta cerorrec emango dizquidatzu niri escatzen dizquidatzun doay eta ofrendac bérac ere; ceren ondo daquidan, cere maitatzalleac ordañ saritzeco ezecic, peccatariaquiñ Aita Eternoaren bitarteco izateco, eta bearrean daudenac ondasunez betetzeco ere gueratu ciñala Sacra-



mentu jaungoicozco orretan. Ea, bada Jauna, gaur nerequiñ asi zaite, enzun nazazu, erruqui zaite nizaz, poztu zazu cere creatura onbear triste au.

Adoraten zaitut, nere biotzaren Jaun eta Jabea, guizónen maitatzalle eguiazcoa, cere ardiacgana itsututaco Arzai biguña. Zure amorioaren bicilecu orretara natorquizu gaur, eta Zuri esqueñtzeco beste gauzaric ez iduquiric, ipiñtzen dizut aurrean nere biotz chatar au, gucia zure amorio eta borondateari ofrendatua guera dedíñ. Biotzarequiñ maita zaitzaquet eta biotzarequiñ maitatu nai zaitut, al nezaquean gucia. Zuc garbi zazu, Jauna, biotz au, zure borondate santuac nai duen gucira-



co prest jarri bedi; Zurequiñ estu-  
estu batu nazazu, eta lurreco gau-  
za guciacganaco, eta nere burua-  
ganaco ere, zale eta deseo eraga-  
beac utzi eraci zaizquidatzu, Zu  
serbitzecoa eta maitatzecoa nere  
contu eta arretic andiena izango  
dan eran. Maite zaitut, nere Jaun  
Sacramentatua, nere biotz guci-  
az, nere indar guci-az, nere anima gu-  
ci-az maite zaitut.

ITZ-ALDI LABURRA. Arren egui-  
zu, oh Jaun chit amoriotsua, iñoiz  
ere ni Zugandic ez urrutiratzea.

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

MARIA CHIT SANTARI  
XXIX.-EN BISITA.

¡Oh nere Ama! zure mantupean  
gorde-lecua billatzen duten peca-



tarien bitartecoa cere. Bada, Andre miragarria, zure babesera datocen peccatari guciac gordetzea dan ezquero zure beargaya, emendancazu peccatari bat, Billanueba-co Santo Tomasequiñ esaten dizuna: Ea, bada, gure bitartecoa, eguizu cere beargaya, eta ar zazu cere contura ni gordetzea. Eguia da, luzaroan peccatari andi bat izan naicela, baña Ama maitea, gaizquia eguiña dago; orañ balio deguidazuque, Zuc lagun zazuque, ona nun naucazun oso damutua. Baldiñ Zuc esaten badiozu Jesusi, barca dizadala, dudagabe barcatuco dit, eta salbatuco nau. Arren onela eguizu, ene Ama.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Oh Maria!  
zure bitartecotzat irichi leguiquet



gloria, Zugandic ala eguiño de-  
zula uste det.

*Escaria 33-garren orrian.*

**SAN JOSERI XXIX.-en BISITA.**

Zure itzalpera nator, Aita chit  
maitea, birtute eguiazcoaren bide  
estuari equiteco argal nere burua  
barrundatuta; gaitza da norc  
bere burua santificatzeco bearga-  
ya, onec bici gucico lana escatzen  
du, eta lan au eguiñ-naya Zuga-  
nicusten det. ¿Cristau birtutea bi-  
llatzea cer da, ezpada Cristo bi-  
llatzea? Eta ¿orretaraco cintzo e-  
ta sayatuagoric ceñ Zu baño, San  
José biotzecoa? An Jerusalenen  
aurchojaungoicozcoa zure ondotic  
ezcutatu zanean, Bera topatu ar-  
teco onic izan etzenduen; ceruco



Erregue aren aldamenean ezpa-  
zan, bici etziñan, eta zure bici gu-  
cia Beraren serbitzura eman cen-  
duen. Jaungoicoaren urricaltasu-  
narequiñ, gure animaren bicitza  
dan Jesucristo secular galduco  
eztedalaco uste eta ezperanza dau-  
cat, bada; baña onelaco zorigaitza  
guertatzen balitzat, berealatic or-  
duraco Zuri deitzen dizut, Patriar-  
ca santua, orduan bial zazu ne-  
re animara, iñuri zazu nere bio-  
tzean galera añ izugarriaren pena  
eta naigabe miña, etzadazu sose-  
gatzen utzi nere eguiñal eta indar  
guciaz Jaun au billatu eta topa  
dezadaneraño. Baldiñ ezbear tris-  
te au guertatzen balitzat, nerequi-  
co gogor izan zaite, nere erraye-  
tan menenoa sentituco nuquean



baño biciroago Jaungoicoaren etsaitasuna nere conciencian sentitzen dedan eran. Irichi zaizquidatzu nere adimentuarentzat arguía, eta nere borondatearentzat indárrac; cerorrec eramán nazazu Jaungoicoarequiñ ongui jartzea, beragandic iñoiz ere urrutiratuco ez nauen, bere amorioa ecere galleracico eztidan, eta bere zori ona nerea ere secula gucietan izango dan eran. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Patriarca santua, irichi zadazu zugandic urrutiratua iñoiz ere ez bicitzeco gracia.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## OGUEITA AMARGARREN EGUNA.

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian,*

¿Cergatic ezeutatzen didazu cere arpeguia? [*Job. XIII, 14.*]

Damu miña ematen cion Job Santuari Jaungoicoác bere arpeguia estaltzen ciola icusteac. Baña Jesucristoc aldareco Sacramentu chit Santuan bere anditasuna ezeutatzeac, beldurra ez, baicic amorio eta confianza eman bear digu; alabaña, baldiñ bere gloriaren argui-errañu bicíac aldareetan aguertzen balitu, ¿nor benturatuco litzaque Beragana alderatu, eta bere zale eta deseoc Jaun oni a-



guertzera? ¡Ah nere Jesus! Zu Sacramentu orretan oguiaren anzirudien estalquipean gordea zaudede, guizónac maiteago izan zaitzaten, eta billatu nai zaituzten cernai ordutan topa zaitzaten. Arrazoi andiaz esaten zuen bada Isaias profetac, deadar eguiten zuenean: itzeguiñ cezatela guizónac, eta mundu gucitic oju eguiñ cezatela, gure Jaungoico onác aguertzen digun amorio eta onguinai gueyeguia aditzera emanaz: *Notas facite in populis ad inventiones ejus. (Isai. XII, 4.)*

¡Oh creatura gucien biótzac bear cinduzquean, nere Jesusen Biotz chit maitagarri, guciori amorio garbizco sugar bicietan beti iracequia zaudena! ¡Oh su bi-



cia ! oso erre nazazu, eta bicitza berri bat, amoriozco eta graciazco bicitza bat nic eguitea, eguizu ; iñoiz ere apartatuco ez naicen eran cere borondatearequiñ bat eguiñ nazazu. Animen gordelecu izateco beti zabalic zauden Biotza, cere barrubean arnazazu. Guizarrazaren pecatuacgatic gurutzean añ tormentatua izan ciñan biotza, nere culpa gucien damu eguiazcoa indazu. Bada ondo daquit, nigatic gurutzean hill ciñanean ciñituen amoriozco zale eta deseo beraquiñ zaudela Sacramentu jaungoicozco orretan, eta orregatic ni Zurequiñ batutzea biciro nai cenduqueala. ¿ Badateque, bada, oraindic ere ni, Zuri gogor eguiñ, eta zure zale eta amorioac nai



lutequeenera ez jartzea?

¡Oh nere Jesus maitea! Zure mereçimentuacgatic Zure amorioan iracequi, lotu eta zure Biotzarequiñ oso batu nazazu; bada gaur bertan eguiten det, Zure graçiarean laguntzarequiñ Zuri alic onguien atsequiñ eguiteco asmoa. Bai, bertatic oñperatu nai ditut au galeraci litzadaqueen, munduaren beguiramentu, gaitzeraco griña eta oneraco aldapa guciac. Indazu, Jauna, zuc, gaurdanic nere pensamentu, itz, obra eta zale eta deseo guciac zure borondatearequiñ batutzeco bear dedan laguntza. ¡Oh nere Jaungoicoaren onguinaya! atera zazu sustraitic nere biotzean legoquean creaturacganaco cernai amorio eragabe-



co. ; Oh nere Jesus ! arren eguidazu nere amorioa zureari dagoquion eracoa izateco gracia, eta gañera eguizu eriotzeraño nic Zubiciro maitatzea. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Jauna ! nere anima Zurequiñ batu bedi, eta secula guciraco ceregana ar nazazu. Amen.

*Gogozco Comunioa 27-garren orrian.*

## MARIA CHIT SANTARI

### XXX.-EN BISITA.

Ama chit amoriotsua, Zu cera san Buenabenturac dion becela, umezurtzen ama. Ume zurtzac peatuaren bidez beren Aita Jaungoicoa galdu duten peccatari onbear tristeac dira. Ni, ala zori



gaiztoan, beretaco bat naicen au, Zugana nator, óh Ama urricaltsua, ceren onelaco ezbear negargarrian lagundu deguidazuquela daquidañ. Biciro poztutzen naute eta biotz on ematen didate Inocencio III.ren itz oyec: “¿Nor seculan Zuri deitu, eta Zuc enzugabe gueratu da? ¿Ceñ bere pecatuaz damutu eta umillatu eta zure mantupera etorri ezquero, beñere galdu da? Bacarric Zuganaten eztan hura galtzen da., Zure mantupean jartzen naiz bada gaur, nere Ama laztana, erruqui zaite nizaz, eta arren ez nazazu utzi.

ITZ-ALDI LABURRA. Cere mantupean arnazazu, oh Maria, cerea becela, eta zurea becela saya-



tuco naiz nere burua salbatzera.

*Escaria 33-garren orrian.*

**SAN JOSERI XXX.-en BISITA.**

**B**icitza hillcor onetaco bidearen  
acaballa estutasun portitzen gai  
eta bide izango litzaquet, baldiñ  
ipintzen ezpanitu beguiac Zugan  
Mariaren Esposo chit garbia. Bal-  
diñ osasun onean, eta nere argui-  
tasun osoan nagoela infernuco  
gaiztoenaren erasoai burutzea as-  
cotan gaitz eguiten bazat, ¿Cer-  
izango da ordu artan, noiz Sata-  
nas gu galtzera sayatzeco dembo-  
ra badijoaquiola icusita, bere e-  
guiñal eta catazcac gueyago eta  
gueyago bicitu, eta gure betico  
galera iristeco derech guciaz ba-  
liatzen dan? Baña ordañez Jaun-



goico urricaltsuac ordu bildurgar-  
garri artaraco zure laguntza indar-  
tsu eta eraguillea eman digu, Eliz  
Ama santac au bera bequietara-  
tzen digu, eta cristau eguiazcoac  
seguranza andiaz zure laguntza  
indartsua escatzen dute: zure de-  
botoac mundutic irteteco garayan,  
eta eternidadearen ateetan arqui-  
tzen diranean, argui eta garbi  
sentitzen dute. Erruqui zaite ni-  
zaz, hiltzeco zorian daudenen la-  
guntzalle gloriosoa, lurreco bicitza  
au uzteco dembora estua datorre-  
nean; bertatic eguiten det nere  
bicio egun gucietan Zu onratze-  
co, egun oro Zuri erregutzeco, e-  
gunoroco nere oracio eta erregua-  
quiñ Zure biotz on amoriotsua ni-  
ri laguntzera macurtzeco asmo eta



propositua. Arren ez nazazu utzi, nere san José laztana, eriotzeco orduan, ariñ zaizquidatzu nere pena garratz miñac, alai zazu nere espiritua, salbacioaren etsimenac azpian artu eztezan, irichi zadazu Jaungoicoagandic une chit illun ayetan fedearen argui biciaz ni arguitzea, esperanzaren arnasac ni indartzea, eta amorioaren berotasun chit atseguinac biotz on eta animoa eman, eta Aitarequiñ, Semearrequiñ eta Espiritu Santuarequiñ secula guciraco batutzea. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. Eriotzeco orduan nere mingañ hillotzac Zuri eciñ deitu dizunean, atoz, nere Santua, niri laguntzera.

*Oracioa 35-garren orrian.*



## OGUEITA AMAICAGARREN EGUNA.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI BISITA.

*Prestaeraco oracioa 29-garren orrian.*

Baldiñ zuc ezagutzen bacendu  
Jaungoicoaren doaya. (*Joan. IV, 10.*)

**A**ndia izan zan Samaria-co andreari Jesucristoc aguertu cion onguinaya, hura ondu eta salbatzeagatic Sicar-co iturriaren ondoan jarrita, aimbeste demboran beraren beguira egon citzayonean; baña oraindic andiagoa da cerutic aldareetara egun gucietan jechita, animai deica, guciac bere amorigora eracarrinayez, berarequiñ egoterra noiz etorrico zaizcan beguira egotearequiñ guizónai aguertzen



dien onguinaya. Dirudi, berá sacramentatua dagoen aldaretic Jesucristoc barrunen itzeguiten digula, esanaz: ¿Cergatic zabil-tzate nere aurretic iguesca? ¿Cer-gatic etzatozte, cergatic alderatzen etzaizquidate, añ maite zaituzte-dan, eta zuen amorioz añ umilla-tua emen nagoen ezquero? ¿Cer bildur modu da zuen bildurra? Ez naiz orañ munduan aguertzen mundua juzcatzeco; ezpada ezcu-tatzen naiz amoriozco Sacramentu onetan, ni icustera datocenai on-dasun asco emateco, eta Nigana datocen guciac salbatzeco.

Anima birtutecoi eta debotóac, jaquiñaren gañean egon zaitezte. Jaun au ceruan *biciric dagoen be-cela, beti gugatic erregutzen* (Heb.



VII, 25. ), guis artan bertan ari dala aldareco Sacramentu chit Santuan beti gure bitartecoaren beargai urricaltsu au eguiten, bere burua Aita Eternoari ofrendatuaz, conta al baño gueyago mesede eta urricaltasun guretzat iristeco. Persona jaincoci batec oicion, confianza osoaz, bildur eta errece logabe, adisquide batec besteari itzeguiten dion becela, Jesus sacramentatuarequiñ itzeguitera joan bear guiñaqueala.

Bada orrembesteraño iristen bada zure ontasun esan al baño andia goa, Jauna, utzadazunere biotz gucia Zuri idiqui eta confianza guciaz esaten: ¡Oh nere Jauna! ¡Oh animagana itsutua! ongui ezagutzen det esquer ceñ gaiztoaz guizónac



tratatzen zaituen. Zuc maite dituzu guizónac eta berac maite etzaitue; on asco eguiten diezu, eta desprecioaquiñ pagatzen zaitue; ayec zure dei amoriotsuac aditzea nai dezu, eta bérac aditunai etzaitue; cere graciac esqueñtzen dieztetzu, eta graci oriee artu nai ez dituzte. Baña ; oh nere Jesus! ; bear bada eguia ezta, ni ere garai batean esquergabe gaizto orietacoa nitzala? ; Ah nere Jaungoicoa! eguia, eta andia, da; baña aurrerontzean ondu nai det, eta ordañdu nai dizquitzut nere bicico egun gucietan, oraindaño eman dizquitzudan nairgabeac, aurrerontzean Zuri atseguin eguiteco al dezaquedan gucia eguiñaz. Esazu, Jauna, cer nic eguitea naizun eta zalanzan egon-



gabe gucia eguiño det; obedien-  
tzia santuaren bean aguin zadazu,  
eta gucia batere luzapengabe e-  
guiño det. Nere Jaungoicoa, be-  
realatic eguiten det Zuc nai de-  
zula deritzadan ecer ere ez uzteco  
asmo .sendoa, orretaraco aide, a-  
disquide, ondasun, eta osasun eta  
bicitzarañoco gucia galdu bearra  
banu ere; bai, ordu onean gucia  
galdu bedi, Zuri atseguin eguiten  
badizut. ¡ Zori oneco galera, Zure  
Biotz maitagarriari atseguin egui-  
teagatic guertatzen danean!

¡ Oh nere biotzeco Jaungoicoa!  
maite zaitut, ontasun ondogabea,  
gauza guciáz gañ maite zaitut, eta  
nere biotz otzaren zale, gogo eta  
deseo guciac Aingueru iracequi  
edo Serafiñen berotasun arequin



batu nai nituzque. Bacarric Zu maite zaitut, eta bacarric Zu maítatu nai zaitut secula gucietan.

ITZ-ALDI LABURRA. ¡Jauna, cere escutic iduqui nazazu, urrical zaiten nízaz!

*Gogozco comunioa 27-garren orrian.*

## BIRGIÑA CHIT SANTARI

### XXXI-EN BISITA.

¡Oh Maria, Doncella chit gozatsua, Jaungoicoaren Ama, peccatarien bitartecoa, naigabe eta pénetan daudenen gordelecua! macur itzazu zure urricaltasunaren belarriac zure serbitzari desleyal onen erregu umilletara, eta arren iduqui nazazu Zuc maite dituzun, eta cere serbitzari eguiazcotzat artuac dauzcatzun suerte oneco ayeta-



cotzat. Garbi zazu, oh Doncella manchagabea, cernai pecatutatic nere biotza; quen zazu nigandic zurre beguiari gogoco etzayen gucia; borra zazu nere animatic lurreco gauza galcor eta ecerezacganaco zale eta deseo gucia, eta irichi zadazu ceruco ondasun beticoen zale eta deseo iracequi bat. Erregu zayozu, oh Doncella chit santa, Zure Semeari nigatic, orañ eta beti, eta nere eriotzeco orduan, nolata beguira dagoquidan juicioo trance, estu bildurgarri artan, auda, nere lan gucien contu estua eman bearco dedanean, zure bitartecotasunez betico infernutic libratu, eta zure laguntasun zoragarriaz beticotasun gucian ceruan gozatzera igo nadiñ. Doncella chit



garbia, arren ez itzazu quendu zure beguíaac pecatari urricalki-zun onegandic; zure urricaltasunaren contura uzten ditut nere anima eta gorputza; zucen nazazu, goberna nazazu eta gaitz eta peligro gucitic eta etsai gucíaac gandic gorde nazazu; nere pecatuac barcatu, eta fede bici, esperanza sendo eta amorio iracequi bat Espiritu Santuaren graciarequiñ batera deguidala, zure Semeari erregu zayozu, onequiñ beti bere borondate santua eguiñdezadan. Azquenic erregutzen dizut, oh Doncella santa, arren bere urricaltasun andiagatic gorde dezala erri au guerra, izurri edo peste, gosete eta lurricaren azote izugarrietatic, eta ui, nere aide eta adis-



quide eta onguilleaquiñ, nola ta  
cristau fededun guciac, gaitz gu-  
citic. Amen.

ITZ-ALDI LABURRA. ; Nere Ama  
Maria! Zu nere Ama cera, eta zu-  
re seme izan naico det beti.

*Escaria 33-garren orrian.*

### **SAN JOSERI XXXI.-en BISITA.**

; Ceñ atseguingarría izango dan,  
oh nere san José, zure debotoen-  
tzat ceruetaco gloria esan al gu-  
ciac baño andiago artan eterni-  
dade gucian Zure ondoan errei-  
natu al izatea! Orañ zure antz-iru-  
di edo imagiñen bidez bacarric e-  
zagutzen zaitugu; orduan arpe-  
guiz-arpegui becela arguiro icusi-  
co zaitugu; orañ Zugan pensatuaz,  
Zure anditasunaren misterioa cer-



bait ezagutzera iristen guera; ba-  
ña orduan gucia beguien aurrean  
jarrico zagu, eta zure gloria bera  
gure gloriaren gai eta bide izan-  
go da, zure anditasunac andi e-  
gingo gaitu, eta Zure zori onac  
gu ere zori oneco eguiteco lagun-  
duco du. Baldiñ guizon andi eta  
sonatu bat ezagutzeco zale eta  
deseo utsac bide lucéac igarotzera  
asco mugueracitzen baditu, ¿nola  
animatuco ezta zure debotoa ce-  
ruraco bidean dauden neque eta  
aldapa guciai biotz andiaz equi-  
tera, zure aldamen atseguingar-  
rian egoteco suerte onagatic, Zu  
ezagutzeagatic, adisquide batec  
bestearequiñ becela Zurequiñ i-  
tzeguiteagatic bacarric ere? Zuri  
eguiten zaizquitzun eliz-pestac, o-



riec eguiten dizquitzuten debotoen atseguin-contentu izaten badira; Zure anditasunetan pensatzean baccarric anima poz atseguinez betetzen bada; Zure imagiñari beguiratze utsac biciro alaitzen bagaitu, ¿cer izango da Zure ondoan bici alizatea, esan al baño andiagoco gloria baten argui biciac darizquion Zure persona chit sagraduari beguira egotea? Ceruco Jaun eta Jabe andiaren aita-usteco eguiazcoa, ango Erreguin zoragarri eta escu andicoaren Esposoa cera; beragatic ceruco Corte andi aren goyeneco lecua betetzen duen famili jaungoicozco artaco personetatic bat cera. ¡ Ah ! nic ceruan azquen-lecuetaco batean egon-bearra banu ere, lecu



artan ar nazazu, onelaco gracia  
baten diña eguiñ nazazu, bada  
biotz biotzetic escatzen dizut me-  
sede au, esaten dizudala nere ani-  
maren indar eta berotasun guciaz.

ITZ-ALDI LABURRA. Mundu one-  
taco cernai irabaci eta bentaja ba-  
ño gueyago, lurreco ondasun gu-  
ciac baño gueyago nai nuque, eta  
escatzen dizut, ene Santu maitea,  
nere animaren betico salbacioa.

*Oracioa 35-garren orrian.*

---



## **BERROGUEI ORDÚAC.**

**BERROGUEI ORDUETAN  
JESUS SACRAMENTATUA BISITATZECO  
ETA  
EJERCICIO SANTU AU EGUITEN DUTENAI  
EMANDACO INDULGENCIAC IRABAZTECO  
MODU EGOQUIA.**

*Ondo ciñatu, eta esango da ondorengo*

### **ANTIFONA.**

**A**toz, oh Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa: atoz doayen emallea; arguizazu nere adimentua, nic nere utseguiteac ezagutzeco. Mugui zazu nere biotza oen gañean damutzeco.

### **ORACIOA.**

¡Oh Espiritu Santuaren arguiaz zure serbitzari leyalen biotzac ar-



guitzen dituzun Jaungoicoa! arren eguizu Espiritu onec berac animata, gauza on eta justua eguiten guc beti jaquitea, eta Espiritu onen poz atzeguiñez beteac gu gueratzea. Jesucristo gure Jaunagatic. Amen.

*Bereala atzerago ipiñidiran, Sacramentu chit Santuaren bisitetaco nai dana iracurri, eta esango da ondorengo.*

ORACIOA.

Jauna, irabaci nai nituzque, aldarean aguirian zaudenean Zu bisitatzen zaituztenai Aita Santuac eta Elizaco beste puru nagusiac emandaco indulgenciac. Onegatic umiltasun guciaz Zure majestade jaungoicozcoaren aurrean auzpez-



tu, eta erregutzen dizut, gure fede santuaren aurrerapen eta gloria-gatic, principe cristauen arteco paque eta adisquidetasunagatic, erregen dotriña galgarriren galeragatic, Aita Santuac eta Elizaco gañeraco buru nagusiac osasuna dezaten, eta Eliza ondo goberna dezaten, eta guci onetaraco esqueñtzen dizquitzut bisita oyec.

*Errezatzen dira bost Aita gure, bost Ave-Maria eta bost Gloria Patri Jesucristoren bost Ilaga sagra-duen erreberencian, bacoitzaren ondoren esanaz:*

Ÿ. Alabatua eta adoratua izan bedialdareco Sacramento chit Santua.

R. Dembora gucietan izan bedi bedeincatua eta alabatua.



*Sacramentu chit Santuari eguiten  
zaizcan charqueri itsusiac alic on-  
guien ordaiñtzeco Aita Santu Paulo  
VII-nac ontzat emandaco*

ORACIOA.

¡Oh nere Jaungoico, eta nere Sal-  
batzalle Jesucristo, Jaungoico e-  
guiazco eta guizon eguiazcoa! fe-  
deac berac ematen didan beguira-  
mentu eta errespetic umillenaz  
adoratzen eta biotz guciac maita-  
tzen zaitut, aldareco Sacramentu  
adoragarri orretan ezcutatua, nere  
zori gaiztoan oraindano eguiñ nitza  
quean beguiramentu eta erreberen-  
ciaren paltac, charqueri eta sacri-  
legio itsusiac, eta oraindano eguiñ  
zaizquitzun, eta aurrerontzean e-  
guiñ lizaizquitzun guciac nolere-



bait ordantzeco. Adoratzen zaitut, bada, adoratzea chit ongui mereci dezun, eta nic adoratu bear cindu-quadan aibat ezpadere, beintzat nere indárrac al dezaqueeneraño, eta ezagüera duten creatura guciac eguiñ al dezaqueen bezañ ongui eguiñ nai nuque lan au. Bai, orañ eta beti adoratu nai zaitut, adoratzten etzaituzten eta amoric ez-tizuten cristau fededunacgatic eze-cic, erege, elizaren barrutietatic campoan bici diran, fedegabe itsu, Jaincoric ezagutzen ez duten, blasfemari, mahomatar, judu eta jainco palsoen adoratzalleac bide zucenera etorri ditecen ere. ¡Oh! bai ene Jesus, guciac Zugar sinistea, eta guciac Sacramentu chit Santuan Zu beti ezagutzea, adoratzea, mai-



tatzea eta bedeincatzea nai nuque.  
Amen.

ITZALDI LABURRA.

¡ Oh ceruco ogui bicia, oh Sacramento andia! adoratzen zaitut orañ eta beti.

¡ Oh Jesus, oh Mariaren biotza! Erregutzen dizuet bedeinka zazutela nere anima.

¡ Oh Jesus chit santua, oh nere Salbatzallea! Zuri ematen dizut nere biotza.

(Iracur bedi liburu onen azquenean dagoen, indulgencien lista,)

---



---

**SACRAMENTU**  
**CHIT SÂNTUAREN ONRAN ELIZAC CANTATZEN**  
**DITUEN HIMNOAC.**

Pange lingua gloriosi  
Corporis mysterium,  
Sanguinisque pretiosi,  
Quem in mundi pretium  
Fructus ventris generosi  
Rex effudit gentium.

Nobis datus, nobis natus  
Ex intacta Virgine,  
Et in mundo conversatus,  
Sparso verbi semine,  
Sui moras incolatus  
Miro clausit ordine.

In supremæ nocte cænæ  
Recumbens cum fratribus,  
Observata lege plene  
Cibis in legalibus,  
Cibum turbæ duodenæ  
Se dat suis manibus.



Verbum caro, panem verum  
Verbo carnem éfficit.  
Fitque sanguis Christi merum,  
Et si sensus deficit:  
Ad firmandum cor sincerum  
Sola fides suficit.

JAUNA GORDETZECO.

Tantum ergo Sacramentum  
Veneremur cernui,  
Et antiquum documentum  
Novo cedat ritui:  
Præstet fides supplementum  
Sensuum defectui.

Genitori, Genitoque  
Laus et jubilatio,  
Salus, honor, virtus quoque  
Sit et benedictio:  
Procedenti ab utroque  
Compar sit laudatio. Amen.

Ÿ. Panem de cœlo præstitisti eis,  
(alleluia.)

R). Omne delectamentum in se ha-  
bentem, (alleluia.)



ORATIO.

Deus, qui nobis sub Sacramento mirabili passionis tuæ memoriam reliquisti, tribue quæsumus, ita nos Corporis et Sanguinis tui sacra mysteria venerari, ut redemptionis tuæ fructum in nobis jugiter sentiamus. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. Amen.

HIMNO BERA EUSQUERAZ.

Canta beza mingañac Gorputz gloria-tsuenaren, eta amorioz gañez eguinta, mundua zucentzeco iñuritaco Odol preciosoaren misterio andi eta goratua, izanaz sabel oparo baten frutua cerulurretaco Erreguea.

Guretzat emanac, eta Doncellagarbi eta manchagabe bategandic jayoac, munduan itzeguiñaz, eta bere itzaren aciric garbiena zabalduaz, modu arrigarri miragarrian emengo bere bicitzaren dembóra bucatu zuen.

Aparico gau sagraduan bere anayaquiñ



apaltzen jarri, eta legueác aguintzen cituen janariac jan ondoan. Berac bere burua Amabi Apostoluai janari eman cien.

Gure araguiz jantzita, Jaungoicoaren Semeác, bacarric bere itzaren indarrez oguia bere Araguira eta ardoa bere odol eguiazcora biurtu cituen, eta, sentiduac eciñ ezagutu badute misterio au, fedeac sinisteracitzen dio biotzari.

#### JAUNA ISPEAN SARTZECO.

Deguiogun, bada, gucioc burua macurtuta, onra eta adoracioa Sacramentu añ andi oni, eta antziñaco legueác lecu eguiñ bizayo orañ berriro jarritaco legueari eta gure fedeác sendo iraunaz, bete beza sentiduai palta zayen arguiaren utsunea.

Aitari Semearequiñ batera, beguizquio atseguña, alabanza eta gloria secula gucietan, osasun, birtute eta onra azquengabea, bendicio eta laudarioa erreberenci andiaz, eta biacgandic datorren Espiritu Santuari gloria eta alabanza berdiña. Amen.



SACRI SOLEMNIIS.

Sacris solemniis juncta sin gaudia,  
Et ex præcordiis sonent præconia,  
Recedant vetera, nova sint omnia:  
Corda, voces et opera.

Noctis recolitur cœna novissima,  
Qua Christus creditur agnum et azyma.  
Dedisse fratribus, juxta legitima  
Priscis indulta patribus.

Post agnum typicum, expletis epulis,  
Corpus dominicum datum discipulis,  
Sic totum omnibus, quod totum singulis  
Ejus fatemur manibus.

Dedit fragilibus corporis ferculum,  
Dedit et tristibus sanguinis poculum,  
Dicens: Accipite, quod trado vasculum,  
Omnes ex eo bibite.

Sic sacrificium istud instituit,  
Cujus officium committi voluit  
Solis presbyteris, quibus sic congruit  
Ut sumant, et dent cæteris.

Panis angelicus fit panis hominum,



Dat panis coelicus figuris terminum.

O res mirabilis! manducat Dominum

Pauper, servus et humilis.

Te, trina Deitas unaque, poscimus,

Sic nos tu visita, sicut te colimus,

Per tuas semitas duc nos quo tendimus,

Ad lucem quam inhabitas. Amen.

### BERAU EUSQUERAZ.

Festa añ sagradu oyei eranzun bizaye atseguin-contentu eta poz-eracutsiac; sonu eguin bezate bularrac bialtzen dituen alabanza aguiriac; aldeguin bezate azcar gauza zarrac, izan bedi gucia berria egun onetan, biotza, lan edo obrac eta itzac.

Gaur eguiten degu apari misteriotsu, edo antz-irudi utsa zan aren oroipen eguiatzcoa, ceñean gloriaco Erregue andi Cristoc, legueac aguintzen zuen erara emancien bere anayai arcumea eta legamigabeco oguia, bada Jaungoicoac antziñacoai aguertu cien Escriturac onela aguintzen zuen.

Arcume misteriotsu onen urrena, le-



gueác aguintzen zuen aparía eguiñon-  
doan, janari sagradu eguiñic, samurtasu-  
nic andienaz bere gorputza icasleai eman-  
cien, segurutuaz, ecen, guciai gucia bere  
escuaz emanaz, beretaco bacoitzac gucia  
artu zuela: onela aitor degu cristauoc.

Errocor, argal, eta laguntzagabeai be-  
cela, borondate guciaz, bere gorputza  
jaten eman cien; eta onbear triste, bear-  
tsu eta atsecabetuai becela bere odol chit  
sagrada edaten, esanaz: Bicitzaren pren-  
da preciotsuena dan caliz santu au artu,  
eta gucioc nere odol chit ongarria eda-  
zute.

Cristoc berác sacrificioa onela eguiñ e-  
ta piñi zuen, eta Berác eguiñ zuen lan an-  
di eta goratu au eguiteco escua sacerdo-  
teai eman cien; eta bacarric oyei dago-  
quie beguiramenturic andienaz Jaun au  
berác artu eta cristauetaco bacoitzari bear  
becela ematea.

Ainguerúen ogui ederra dana, guizo-  
nen janari eguiten da, ceruco ogui mi-



ragarri onec betetzen du lengo anz-irudi eta errañúac adierazten zutena. ¡ Oh urricaltasun arrigarria! ¡ Oh miraria! bada Sacramentu añ andi eta goratua artzen du pobrechoac, serbitzariac, umillatzen danac.

Zuri, Jaungoico irurqui eta bacarra, erreberencia guciaz, biotz umillaz, erregutzen dizugu, argui gaitzazula cere argui biciaz auzpez adoratzen zaitugunoc eta zure bide estu zucenetic gabiltzanoc, zucen gaitzazu billatzen degun arguira, Zu bici ceran lecucoc argui jaungoicozcora. Amen.

---



---

## ORACIOAC.

---

### CONFESIOCO ETA COMUNIOCO SACRAMENTUAC

---

*Pecatu guciac ezagutzeco arguia  
escatuz*

#### ESPIRITU SANTUARI ORACIOA.

• **O**h Espiritu Santu consolatzalle eta argui guciaren iturria! argui zazu nere adimentua zure graciaz, eta iracequi zazu nere biotza zure amorioan, nere conciencia zuceu eta ondo beguiratu eta examiñatzeco, nere pecatuac umiltasun andiaz aitortu eta confesatzeco, eta beren damu edo contricio eguiatzeco bat iduquitzeo. Au onela escatzen dizut Jesucristo nere Jau-



naren merecimentuacgatic, Birgi-  
ña chit Santaren bitartecotza in-  
dartsuagatic, eta ceruco cor-tean  
dauden Aingueru eta Santu gu-  
cienacgatic. Amen.

### CONFESIO AURRERACO

#### **Oracio labur iracequiac.**

I<sup>n</sup>daizquidatzū, Jauna, damu-  
bicizco negárrac nere biotzaren  
gogortasuna bigundu, nere peca-  
tuac ondo confesatu, eta barca-  
cioa iristeco.

¡Aita erruquitsua! erruqui zaite  
nizaz; ez nadilla quendu ni zure  
aurretic zure urricaltasungabe,  
nondic aimbeste eta aimbeste bar-  
catuac biurtu diran.

Eztizut escatzen barcacioa nic  
mereci dedanagatic, ezpada Zu



cerana ceralaco, Zure urricalta-sunagatic, Jesucristoren eta bere Ama-chit Santaren merecimentuacgatic.

Beguirazadazu, Jauna, beguerruquitsuaz, itzul itzazu beguíanere zauri edo llaga oyetara, nere naigabe eta neque gogorraz erruqui zaitean, nere bear eta premiatic biguñ zaitzan.

Arren ez beguiratu berandu natorquizunari, ezpada beguirazayozu damutua eta humillatua natorrenari. Ondo ezagutua, eta desengañatua nator, Jauna, ecerguchi aurreratzen dala Zugabe, ceren Zuzaz campora gauz onic eztagoen.

Lotsatua eta buruz beeratua eta ecereztua nator. Eta alabaña pe-



catariac ceregana artzen dituzu,  
idiqui zayozu atea peccatari gucien  
andienari; beguira zadazu, Jauna,  
begui amoriotsuaz, eta sendatua  
gueratuco naiz; beguira, Jauna,  
orretan salbacioa dijoaquidala.

Zu cerana ceralaco, Jauna, be-  
tico condenatuco ez naicelaco us-  
tean nago.

Gogora zazu, Jauna, zure ur-  
ricaltasuna nere miseri andia icu-  
sita.

Gogora zazu, nola Zure Seme  
Jesucristo étorri etzan mundura  
justuen billa, ezpada peccatariac  
billatzera: esqueñtzen dizut Berác  
nigatic eraman zuen gucia nere  
culpa gucien zorren alderaco.



CONFESIO ONDORACO.

Zure Ama doatsu Maria beti garbiaren merecimentuacgatic, eta Santu gucienacgatic humiltasun guciaz erregutzen dizut, nere Jesucristo Jauna, gogoco izan daquizula orañ eguiñ dedan confesio au; zure urricaltasunaz osa itzazu confesio onetan eguiñ nitzaquean utzaldíac, zure odol preciotsuaren merecimentuacgatic irichi deza dan nere peccatu gucien barcacio oso eta betea. Amen.

COMULGATZERACO

**eguiñ bear diran Actóae.**

Nere Salbatzalle chit maitagarria; nola cere Majestade jaungoicozcoa beeratu cenduen Sacramentu



chit Santu onetan nerequiñ batu-  
tzeco! Jainco ciñalaric guizon e-  
guiñ ciñan; neurrigabea ciñalaric,  
aurcho eguiñ ciñan; Jaun eta ja-  
bea ciñalaric serbitzari eguiñ ci-  
ñan; jechi ciñan Aita Eternoagan-  
dic Doncella baten sabelera, ce-  
rutic estrabi batera, gloriaco jar-  
lecutic gaitzquilleen hilitoqui ba-  
tera; eta góiz onetan, sagrario or-  
retatic, nere bularrean bicitzera  
etortzeco irteten cera.

Ona emen, ¡oh nere anima! Zu-  
re Jesus amoriotsua, nor zugatic  
gurutzean hillaz, izan cizun ongui-  
nai eta amorio artan bertan sututa,  
dagoen sacramentu jaungoicozco  
orretan, bera artzera etorri zaquiz-  
quion beguira; ortic zure gogora-  
cio, asmo, zure amorio, zure zale



eta deseo, zure escariai eta aurean ipintzera zoazquion ofrendai beguira dago.

Ea, bada, anima nerea, presta zaite Jesus artzeco, eta lenen esan guiozu fede biciaz: ¿Badateque, nere Salbatzalle maitea, aurqui nigana etorri bear dezula? ¿Cabu eta neurrigabeco Jaungoico bat ni becelaco pecatari andi eta esquer beltzeco bategana? ¡Oh Jaungoico ezcutatu eta guizonen gueyenac ezagutzen etzaituztena! Aitortzen, sinisten eta adoratzentzaitut Sacramentu chit Santuan nere Jaun eta Salbatzalletzat, eta eguia au aitortzeagatic eta on eguiteagatic pocic emango nuque nere bicia bera. Ni graciaz aberasteco eta nerequiñ batutzeco za-



toz Zu nigana! ¡Ah nere Jesus gozoa! ¡cembaterañooco confianza iduqui bear dedan, batez ere gai eta bide añ amoriotsuagatic zato-cela jaquiñic!

II.-EN ACTO CONFIANZAZCOA.

Anima nerea, biotz on, Jesusec on gucia eguiñ deguizuque, Berác gueyeguirañ maite zaitu, uste itzazu bada on eta mesede andiac Jaun amoriotsu onegandic, bere amorio andiac muguituta, zu poz-tutzerá datorren Jaun onegandic. Bai, nere Jesús maitea, uste oso betean nago, zure ontasunac orañ nere bularrean sartuta, iracequico duela nere biotz onbear tristean Zuganaco amorio garbiaren sugar bicia, eta piztucó duela gauza gu-cietan zure borondate santua e-



guiteco zale eta deseo eraguille bat.

III.-EN AMORIOZCO ACTOA.

¡Oh ene Jaungoicoa, ene Jaungoicoa, nere animaren maitatzalle eguiazco eta bacarra! ¿Cer gueyago eguiñ cenzaque nic Zu maitatzeco? etzizatzun asco izan nigatic hiltzea, baicie gañera eguiñ edo ipiñi nai izan cenduen Sacramentu andi ori, guci ori niri eman eta zure Biotza nere biotzarequiñ batutzeco, ni naicen bezañ creatura gaizto eta esquergabe baten biotzarequiñ batutzeco. ¡Oh amorio eta onguinai ondogabea! ¡buruac eman eciñ lezaquean amorioa! ¡amorio azquengabea! ¡Jaungoico bat bera niri eman nai izatea!

Nere anima ¿au sinisten dezu?



Bada ¿ cer eguiten dezu? ¿ cer.  
diozu? ¡oh Jaungoicoa, oh Jaun-  
goicoa! ¡oh amorio azquen eta on-  
dogabea, nere amorio guciaren di-  
ña ta gueyago cerana! maite zai-  
tut nere biotz guciatz, maite zaitut  
gauza guciatz gañ, nere burua ba-  
ño, nere bicia bera baño maiteago  
zaitut. ¡Oh Zuc mereci aibat  
creatura guciac Zu maitatzea e-  
guiñ al baneza! ¡Nore eman liza-  
daquean Serafiñac dizuten amo-  
rioaz, nere Ama Birgiña chit  
Santac dizun amorioaz Zu mai-  
tatu al izatea! Irten zaitezte  
nere biotzetie lurreco gauzacga-  
naco zale eta deseoa; amorio  
ederraren Ama, Maria Birgiña  
chit santa, lagun zadazu mai-  
tatua añ icusi nai cenduquean



Jaungoico hura maitatzen.

IV. EN UMILTASUNEZCO ACTOA.

¿Zū etzera, nere anima, orañ Jesucristoren gorputz sagradua artzera zoacena? ¿bear bada mesede añ garai eta arrigarri baten diña cera? ¡Ay ene Jaungoicoa! ¿nor naiz ni, eta ceñ cera Zu? On-do daquit, eta chit biciro sinisten det, neurrigabeco eta buruac eman al dezaquean baño majestade andiagoco Jaungoico bat cerala; baña ni cer naizen, au Zuc daquizu, Jauna. ¿Badateque, ene Jesus, Zuc, garbitasun mugabague orrec nere anima bezañ loi eta bere pecatu andien locatzaz manchatua aimbeste bider izan dan batean sartu nai izatea? ¡Ah Jauna! zu-



re majestade neurrigabea eta nere miseri gucizcoa beguiratuta, Zure aurrean aguertzeco lotsa naiz. Bildurrác eta beguiramentuac Zugandic urrutiratu nai naute; baña Zugandic urrutiratzen banaiz, ¿nora joango naiz? eta ¿cer izango da nizaz? Ez, Jauna, Zugandic aldeguin nai ez tet, baicic eta guerro ta Zure alderago egon nai nunque. Emen nator, bada, ¡oh Salbatzalle gozatsua! emen nator goiz onetan Zu artzera, nere peccatuacgatic humillatua eta lotsatua, baña Zure urricaltasunean eta didazun onguinai eta amorioan uste eta confianza gucia ipiñita.

V. EN DAMUZCO ACTOA.

¡Oh nere biotzeco Jaungoicoa!



¡ eeñ damu dedan nere bicico dem-  
bora gucian Zu maitatu ez izana!  
Igaroco demboretan, Zu maitatu  
bearrean, asco ofenditu zaitut, eta  
charqueri asco eguiñ dizquitzut,  
eta nere zale eta deseo gaizto era-  
gabeac asetzeagatic ascotan go-  
goan jo zaitut, atzaldea eman eta  
zure gracia eta adisquidetasuna  
despreciatu ditut. ¡ Oh ceñ damu  
dedan, Jauna, ¡norc eman lizada-  
quean damuaren indarrez biotza  
erdibitzea! Gaitz guciai baño gor-  
roto biciagoa diet eguiñ ditudan  
pecatu, ala mortalai nola ariñ edo  
benialai. Gaurguero Zuc barcatu  
dizquidatzulaco ustean nago, ba-  
ña, baldiñ oraindic irichi ezpadet  
barcacioa, arren barca zadazu Zu  
artu baño len.



VI. EN ZALE ETA DESEOZCO ACTOA.

Ea, bada, anima nerea, noizbait irichi da araco Jesus ona zure biotzean sartzeco ordu zorionecoa. Orara or ceruco Erregue, zure Salbatzalle, eta Zure Jaungoico zugana datorrena; presta zaite amorio guciaz Bera artzera, otseguiozu deseoiracequi batequiñ. Atoz; oh nere Jesus! atoz zure zalez eta egarriz dagoen nere animara. Baña Zu eman zatzaizquidan baño len, ni naicenguci au Zuri eman nai zatzaizquit: emen ematen dizut nere biotz onbear tristea, arren onez .ar zazu, eta atoz laster nere jabe eguitera.

Birgiña gucien gañeco Birgiña eta nere Ama, bereala zure Semea artzera noa. Indazu, Andrea,



goiz onetan zure Jesus, Simeon zar santuari eman ciñion becela; nic zure escu chit garbietatic artu nai det, esan guiozu zure serbitzari eta debotoa naicela, ceren onela begui amoriotsuagoaz beguiratuco didan: lagun zadazu eta izan zaite nere alde.

COMULGATU ONDORACO ACTOAC.

I. FEDEZCO ACTOA.

Nere Jaungoicoa jechi da ni bisitatzera, eta nere Salbatzallea etorri da nere animan bitcitzera. Nere Jesus nere barrunen dago. ¡ Oh ontasun baztergabea! ¡ oh urricaltasun ondogabea! ¡ oh amodio mugabaguea! nerequiñ batutzera eta gucia nere eguitera Jaungoico bat etortzea! Anima nerea, orañ Jesusequiñ añ batua zauden one-



tan. ¿cer eguiten dezu? ¿cer esaten diozu? ¿eztezu itzeguiten cere barrumbean dagoen cere Jaungoicoarequiñ? Ea, bada, bicitu zazu berriz zure fedea, beguira Ainguerúac zure inguruan daudela, zure bularraren barrumbean dagoen beren Jaungoicoa adoratzén. Adora zazu, adora zazu zuc ere cere barrumbean cere Jauna, ceregan bildu zaite, eta bota itzazu ceregandic beste gogoracio eta burutacio guciac; batu itzazu cere zale eta deseo guciac cere Jaungoicoarequiñ eta esan guiozu:

## II. UMILTASUNEZCO ACTOA.

¡Ay nere Jesus! ¡nere maittea, nere ondasun azquenbaguea!  
¿Non zaude, Jauna? ¿nere bio-



tzaren barrumbean? ¿nere burua-  
ganaco amorio eragabez eta gogo  
eta zale gaiztoz añ betea dagoen  
biotz baten barrumbean? Esan  
nai nizuque san Pedrorequin: Al-  
deguizu, Jauna, nigandic, neurri-  
gabeco majestadezco Jaungoico  
bati nere barrenge ostatu pobrea e-  
matearen diña ez naizta; baña ¿cer  
diot, ene Salbatzallea? ¿cer izango  
litzaque nizaz baldiñ Zuc' uzten  
baninduzu? ¿Nora joango nitzaque  
Zugabe, ezpada nere burua betico  
galtzera? Ez bada aldeguiñ ni-  
gandic; ni Zurequiñ, nere bicitza e-  
guiazcoa ceran orrequiñ batutzen  
naiz; zure borondatetic secular ur-  
rutiratu naieztet; nere zale eta de-  
seoa Zure Biotz sagraduarcquiñ  
beti bicitzecoa eta hiltzecoa da.



Birgiña chit santa, Serafiñac, amorio garbiaz Jaungoicoa maite dezuten animac, itsatsi zaizquidatzute zuen biotzeco berotasunac, bear becela egon nadiñ nere Jaun maitearequiñ.

### III. ESQUERRAC EMATECO ACTÓAC,

Nere Jaun eta Jaungoicoa, millata gueyago esquer dizquitzut goiz onetan eguiñ didazun on eta mese-deagatic nere anima gañoan bicitzera etortzeaz; nic züre magestadeari eta eguiñ didazun onra andiari dagoquien diñaco esquer eta ezagüera aguertu nai nizuque; baña ¿cer esquer eracutsi leguizunque ni becelaco creatura onbear triste batec? Baldiñ Tobias gazteác iñola ere eciñ topatu bazuen



Aingueru andi san Rafaeli bera-  
gandic artu cituen lurreco mese-  
deacgatic zor cion esquer eta eza-  
güera ona aguertzeco moduric  
; nola aguertuco dizut nic, Jauna,  
ez aimbeste egun oro eguiten diz-  
quidatzun on eta mesedeen, nola  
nere janari eta edari izateco orañ  
eman didazun zure gorputz eta o-  
dol sacramentatuen doai parega-  
bearen esquer eta ezagüera ona?

Nere Ama maite Birgiña chit  
santa, nere bitarteco Santu, nere  
guardaco Aingueru Jaungoicoaren  
amorioan iracequiac bici cerate-  
nac, atozte orañ eguiten didan  
gueyeguirañoco mesedea icusi eta  
mesede onez arritzera, eta eman  
guiozcatzute esquérrac nigatic.



IV. ESQUEÑTZAZCO ACTOA.

¡Ah Jauna! nere animaco eche pobrea biñitatzera etorri nai izan dezun ezquero, Zuri eman nai dizut eche au nere libertade eta borondate guciarequiñ; Zu ceran gucia niri eman zatzaizquit, eta nic nere burua oso eta bici Zuri eman nai dizut; bai, nere almen edo potenciác eta sentidúac izan bitez bertatic zure, Zu serbitzen ezpada jardun ez ditecen; adimentuac zure ontásun neurrigabea pensa-tzeco bacarric serbi bizat, eta borondateac Zu maitatzeco. Esqueñ-tzen dizut gañera goiz onetan zure serbitzuraco, nic dedan gucia ere, nere gogoracioa, nere zale eta deseoa, nere gríñac, nere gustoac eta nere libertadea. Azque-



nic, zure escu urricaltsuetan ipiintzen ditut nere gorputza eta anima.

Ontzat ar zazu, oh Majestade ondogabea, lurrean izan diran peccatarien esquergabeenac bere buruaz eguiten dizun sacrificio edo ofrenda, bada orañ beretzat ecer gordegabe, dan gucia Zure escu jaungoicozcoetan ematen eta entregatzen da. Eguizu, Jauna, nizaz gogoco zatzun gucia, atoz ¡oh sugar biciac darizquitzun amorio jaungoicozcoa! eta erre, quiscali eta deseguizu nigan Zure beguichit garbiai ongui erorten etzayen gucia; arren eguizu emendic aurra ni guci au zure izatea, eta zure aguindu eta consejuac ezecic, zure deseo santuac eta zuri gogocoen zatzuna ere eguiteco eta cum-



plitzeco bacarric ni bicitzea.

Birgiña chit Santa, nere ofrenda au cere escu chit garbiaz Trinidadede chit Santuari aurrean ipiñi, eta irichi zadazu ontzat artua izatea, eta eriotzeraño berari leyal izateco gracia nere gañera išurtzea.

#### V. ESCARIZCO ACTOA.

Anima nerea, ¿cer eguiten dezuz? Etzazu galdu escatzen dituzun on eta mesede guciac artu ditzazuquean dembora preciatu au. ¿Eztezu icusten Aita Eternoa, zure barrumbean dagoen bere Seme laztanari beguira, ceñegan bere amorioac daucan bere atseguin contentua? Bota itzazu campora lurreco gauza gucien gañeco gogoracioac, bicitu zazu fedea, zabal



zazu cere biotza, eta esca zazu nai dezun gucia.

¿ Eztiozu aditzen Jesucristo berari, nola esaten dion zure biotzari: Anima, esazu nigandic cer naizun? zu aberasteco eta contentatzeco etorri naiz ni, uste eta confianza osoaz esca zazu, eta escatzen dezun gucia irichico dezu. ¡ Ay nere Salbatzalle chit atseguña! zure on eta gracia nere gañera ísurtzera, nere animara etorri ceran ezquero, eta on eta gracia oyec zuri escatzea deseaten dezun ezquero, ez ditut billatzen, Jauna, lur-reco ondasúnac, añ guchi mundutarren ónrac eta atseguñ contentuac, orañ umiltasun guciac escatzen dizudana da, nere pecatu guciendamu andi bat, munduaren zo-



raqueria ceñ andia dan, eta neur-  
rigabe maitatzearen ceñ diña ce-  
ran ezagüeracico didan argui bat.  
Au da, Jauna, escatzen dizudana.  
Nere biotz au truca zazu, eta gu-  
cian Zure borondate chit santuaren  
eracoa izango dan biotz bat, zure  
amorio santua beste ecer billatuco  
eztuen biotz bat indazu. Mesede  
oyec ez ditut mereci, baña Zuc me-  
reci dituzu, Jesus biotzecoa; zure  
merecimentuacgatic, zure Ama chit  
santarenacgatic, cere Aita Eter-  
noari diozun amorioagatic esca-  
tzen dizquitut.

*Emen esca lezaque bacoitzac be-  
retzat eta bere lagun progimoaren-  
tzat beste gracia señalaturen bat.*

*Ezpedi aztu peccatariaz, eta añ-  
guchi purgatorioco animaz.*





**MEZAREN ASIERA.**



---

---

## MEZA SANTUA

**PROBECHU ANDIAZ ENZUTECO CRISTAUAREN  
JARDUN-BIDEA.**

---

MEZAREN ASIERAN.

**N**ere Jesucristo Jauna, Aita E-  
ternoaren Seme eguiazcoa, indaiz-  
quidatzu sacrificio adoragarri au  
bear becela Zuri ofrendatzeco bear  
ditudan prestaerac. Esqueñtzen di-  
zut meza au, ene Jaungoicoa, Eli-  
zarequiñ batera, Zure on eta me-  
sede guciacgatic Zuri esquérrac  
emateco, nere pecatugucien ordañ  
sarian, eta zure urricaltasuacgan-  
dic betico bicitza iristeco. Amen.



CONFESIOAN.

Ondo daquit, Jauna, nere peccatúac ezagutzeco nic oríec aitortu bearric eztezula; baña nere gaiztaqueri gucíac nere biotzean iracurten badituzu ere, diran gucíac aitor ditut zure majestade eta ontasun ondogabearen aurrean. Bai, ene Jesus, aitor det ofenditu zaitudala nere pensamentuaz, nere ítzaz, eta nere lan edo obráz. Ezagutzen det nere culpa, nere culpa, nere culpa chit andia, eta umiltasun guciáz escatzen dizut bere barcacioa. Eta zuec, Birgiña chit Santa, ceruco Aingueru, Santu eta Santac, izan zaitetze nere bitarteco eta erregu zazute ni peccatari onbear triste onegatic, betico con-



denaciotie libratzea mereci deza-  
dan. Amen.

SACERDOTEA ALDARERA IGOTZEAN.

Nere Jaun eta Jaungoico Je-  
sucristo, Zure urricaltasun ondo-  
dogabearen bidez Apaiza zure al-  
darera igotzeco lecu eman dezun  
ezquero Zurequiñ gu ongui jar-  
tzeco, erruqui zaite nizaz, eta ar-  
ren ez nazazu utzi Zure adisqui-  
detasuna galtzen.

INTROITOAN.

Nere Jaun eta Jaungoicoa, on-  
dasun andien eta eguiazcoa, zula  
zazu nere animã Zure amorio chit  
santuaz, eta indazu zure Seme  
Bacarra icusteco Patriarca San-  
tuai eman ciñien deseo eta egar-



ri biei artatic apurcho bat, eta e-  
guizu nie nere burua alatan gor-  
detzea, gobernatzea eta nere bi-  
cia acabatzea, non nere eriotzeco  
loa paquea izango dan, eta nere  
descantsua Zugan izango dedan.

KYRIE ELEISONETAN.

Ceru-lúrren Eguille soberanoa,  
beguira zayozu begui urricaltsuaz  
nere anima gajo oni, erruqui zai-  
te nere miseriaz eta barca zaiz-  
quidatzu nere pecatu eta culpa  
guciac.

GLORIA IN EXCELSIS-EAN.

Gloria Jaungoicoari goyetan e-  
ta paquea lurrean borondate one-  
co guizónai. Jauna, alabatzen, be-  
deincatzen, adoratzen eta gloria-



tzen zaitugu, eta zure gloria ca-  
bugabeagatic esquérrac dizqui-  
tzugu, Jaun Jaungoico, ceruetaco  
Erregue, guciraco escua dezun  
Aita Jaungoicoa, Seme bacar  
Jaun Jesucristo Jaun Jaungoico,  
Jaungoicoaren Bildots Aitaren Se-  
mea. Zuc, munduco pecatuac quen-  
tzen dituzun orrec izazu guzaz ur-  
ricaltasuna. Zuc, munduco peca-  
tuac quentzen dituzun orrec, ar i-  
tzazu onez gure erregu-escariac.  
Zuc, Aita Jaungoicoaren escutic  
jarria zauden orrec, izazu gure er-  
ruquia, ceren bacarric Zu ceran  
santua, bacarric Zu gure Jauna,  
bacarric Zu Jesucristo chit goi-  
coa, Espiritu Santuarequiñ batera,  
Aita Jaungoicoaren glorian, A-  
men.



ORACIOETAN.

¡Oh nic billatzen zaitudan, eta biciro maite zaitudan Jaungoicoa! Ar itzazu onez guc zucentzen dizquitzugun erregu-escariac; igüizquigutzu zure esposa Elizác gure alde escatzen dizquitzun on eta mesedéac; eguizu gu amorio santu batez Zurequiñ batuac beti ego-tea. Eguia da, Jauna, eta aitor det, aditzeco toquiric ematea mereci eztegula; baña guciac ere ezagutzen det, ceñ eta mereci eztegun, Zu serbitzea, berealatic mereci degula secula gucien seculetan Zurequiñ bici dan eta erreinatzen duen Zure Seme Jesucristoren merecimentuacgatic. Amen.



EPISTOLA.

¡ Oh nere Jaungoicoa, biotzen argui, animen bicitza eta adimentuaren sendotasuna ! Nere biotzera etorri, eta iñuri zaizquidatzu aguintzen didazuna eguiteco indárác. Zuc, Jauna, Profetai eta Apostoluai beren cartetan aguertu zutena aditzera eman ciñien orrec, erregutzen dizut, indazula zure zalez eta deseoz egoteco, eta nai nuquean eta bear nuquean aibat zu maitatzeco gracia, ayen guisa Zurequiñ bicitzea, Zurequiñ ibiltzea, zurequiñ batutzera iristea, eta Zugan atsedetea irichi dezan. Amen.

EBANGELIOAN.

Nere Jaun eta Salbatzalle Je-



sucristo, zutic jartzen naiz, dedan guztiaren eta nere biciaren costura ere. Zure Ebangelio santuaren eguia on eguiteco pres nagoela aditzera emateco. Bitartean, Jesus chit gozoa, gucitu itzazu nere animaren indárrac, eta eracus zazu an, nere biotzaren barrunean, Zure legue santua zucen eta leyal cumplitzeco modua, añ sendo eta firme, nola legue ori sinisteco arguia ematen didazun, Zure icaslea naicenac becela, secula gucien seculetan bedeincatu, eta alabatu zaitzadan. Amen.

CREDOAN.

Esazu credoa, onela: Sinisten det Aita Jaungoico gucia dezaquean, ceruaren eta lurraren E-



guilleagan: eta bere Seme Bacar  
Jesucristo gure Jaun Espiritu  
Santuaren eguitez eta graciaz sor-  
tuagan: eta jayo zan Maria Birgi-  
ñagandic, padecitu zuen Poncio  
Pilatos-en aguiñdupean; izan zan  
gurutz-iltzatua, hilla eta obiratua:  
jechi zan infernuetara, eta irugar-  
ren egunean piztu zan hillen ar-  
tetic: igo zan ceruetara: eta anda-  
go Aita Jaungoico guciz altsua-  
ren escuitic jarrita: andic etorrico  
da bicíac eta hillac juzgatzera. Si-  
nisten det Espiritu Santuagan:  
Eliza Santa guciona, santuen co-  
munioan: becatuen barcacioan: a-  
raguiaren piztean eta betico bici-  
tzan. Amen.



OFERTORIOAN.

Jaungoico betico eta gauza gucien Eguillea, creatura ecerezbat banaiz ere, benturatzen naiz Zure Seme Jesucristoren gorputz eta odol biurtuac izan bear diran ostia garbi eta caliz precioitsu au sacerdotearen escuen bidez Zuri ofrendatzera gure pecatuen alderaco. Arzazu, Jauna, sacrificio au, eta eguizu guc misterio au bear becelaco onraz beti beneratzea. Gloriatua izan bedi zure Majestade jaungoicozcoa seculagucien seculetan. Amen.

LABATORIOAN.

Jauna, sacrificio santu au gogoz artu, eta garbi itzazu nere culpen manchac zure Seme ba-



carraren sayetseco ur eta odolaz,  
biotza beti garbi iduqui dezadan,  
eta bear becela serbi zaitzadan.  
Amen.

PREFACIOAN ETA SANTUSEAN.

¡Oh jaquiñtasun ondogabea, oh  
Jaungoicoaren seme beticoa, ce-  
ñen bidez gauza guciac eguiñ ci-  
ran! idiqui zazu nere aoa, eta in-  
daizquidatzu alabanzazco itzac,  
zure onguite eta mesede guciac  
bazter gucietan aditzera eman di-  
tzadan. Gora zazu, Jauna, gora  
zazu nere biotza Zugandaño, eta  
arren utzadazu nere canta aula  
Aingueruen canta zoragarriaquiñ  
batuaz, zure gloria, onra eta an-  
ditasuna beti eta aspertugabe can-  
tätzen, esanaz:



*Santu, Santu, Santua* da E-  
jercituen Jaun eta Jaungoicoa,  
ceru gucia eta lurra bere gloriaz  
beteac daude. *Hossana* goyetan.  
Bedeincatua izan bedi Jaunaren  
icenean datorrena.

CANON-EAN.

Nere Jaun Jesucristo, gure ani-  
men Arzai nagusia, oyec eroste-  
gatic hiltzerañoco amorio eta on-  
guinaya izan ciñiena, gorde zazu,  
santifica zazu eta zabal zazu baz-  
ter gucietara zure Eliza santua.  
Erregutzen dizut, Jauna, Zugan  
sinisten duten eta Zure amorioz  
bearreguiten duten cristau guciac-  
gatic, gucioc espiritu batean ber-  
tan, eta biotz batean alcarrequiñ  
batuta, lan ónac eguiten beti iraun



eta guero betico cerua iristea con-  
seguí dezagun. Amen.

CONSAGRACIOAN.

Erregue gucién Erregue beti-  
coa, umiltasun guciáz escatzen di-  
zut, erruqui zaiteala nere aide, a-  
disquide eta espirituco eta gorpu-  
tzeco onguilléaz. Era berean es-  
catzen dizut, bidegabequeri edo  
charqueriren bat eguiñ didaten  
persona ayecgatic, aztu beguiz-  
quitzu ayen pecatuac eta neréac,  
eta zure Pasio chit sagraduaren  
merecimentuacgatic lagun zaguzu  
gucioi, gure premiác escatzen du-  
ten eran, Zuc secula gucién secu-  
letan bici ceran orrec. Amen.

OSTIA GORATZEAN.

Adoratzen zaitugu, gure Jaun



Jesucristo, Jaungoico eta guizon eguiazcoa, guizarraza gaitzetic ateratzeco gurutzeco arbolan bear diñaco ostia izan, ciñana.

CALIZA GORATZEAN.

Adoratzen zaitugu, gure Jaun Jesucristoren odol chit preciotsu, gurutzeco arbolan iñuri cenduen odol chit preciotsuaz gure peccatuac garbitu cinduen.

BEREALA ESATEN DA.

Cristoren anima, santifica nazazu.  
Cristoren gorputza, salba nazazu.  
Cristoren odola, ceruco amorioz zora nazazu.

Cristoren sayetseco ura, garbi nazazu.

Cristoren icerdia, graciaren bici-



tzaz bete nazazu.

Cristoren Pasioa, indartsu eguiñ  
nazazu.

¡ Oh nere Jesus ona ! adi nazazu.  
Zngandic aldeguiten, arren utzi  
ez nazazu.

Cere llaguen barrumbean gorde  
nazazu.

Etsai galgarriagandic gorde na-  
zazu.

Nere eriotzaco orduan dei nazazu.  
Ceregana eraman nazazu.

Eta cere ondoan ipiñi nazazu.

Zure Santu eta Aingueruaquiñ  
secula gucian alaba zaitzadan.  
Amen.

#### BIGARREN MEMENTOAN.

Jaun guciz urricaltsua, gaiztoe-  
naren morrontza gogorretic gu a-



teratzeco Zure Seme bacarrác išu-  
ri zuen odol chit preciotsuagatic,  
oroi zaite purgatorioan negarrez  
dauden anima bedeincatuaz. Zu-  
reac dira, Jauna, adi itzazu bada  
beren negárrac, eta adi itzazu ba-  
tez ere nie gueyen zor diedan a-  
yenac.

CALIZAREQUIÑ OSTIA GORATZEAN.

Jaungoico gozatsu eta biotz be-  
raa, guizonac añ maite dituzuna,  
millaca esquer dizquitzut, esan al  
baño ongui nai eta amorio adia-  
goaz gu maitatu eta cere Seme ba-  
car maitearen bidez salbatu guin-  
duzulaco ; eta zure escuitic jarria  
dagoen Zure Seme beronen amo-  
rioagatic escatzen dizut, biur na-  
zazula graciaren bicitzara. Amen.



PATER NOSTERREAN.

(Aita gurea, ceruetan zaudena, etc.)

PATER NOSTERRAREN ONDOREN.

Gure Jaun eta Jaungoicoa, ondasun gucien iturria, iguzu Zugatic, eta zure icen santuagatic, zure ondasunetatic cercho bait, zure erregalo eta doai beraquiñ serbi zaitzagun, eta onela eguiaz zuri atseguini eguiñ, eta aibeste urricaltasun eta añ andiacgatic bear becela-co alabanzac egun oro deguizquitzugun, gure Jaungoico eta Jaunari becela, secula gucietan. Amen.

OSTIAREN PUSCATZEAN.

Cere nai izatearen indar eragui-leaz ecerezetic atera, eta, gu bide zucenetic cearcaturic, cere urricaltasun ondogabeaz ostera cere-



tu guiduzun Jaun eta Jaungoicoa, arren iduqui gaitzazu beti fedean sendo, eta lan onac eguiten irauncor, zure gracia jaungoicozcoaren bidez betico bicitza irichi dezagun. Amen.

PAX DOMINI ESATEAN.

Jesus jaungoicozcoa, gure zuzentzallea, zure pizte edo Erresurreccio gloriosoaren bidez betico bicitzaco ateac idiqui cizquigutzuna, betico bicitza au cere Apostoluai aldeaurrez aditzera emanaz, arren, Jauna, nere anima Zurequin piztu dedilla, eta secularan gueyago ecertan ofendi etzaiadala. Amen.

AGNUS DEI-COAN.

Jaungoicoaren Bildots, mundu-



co becatuac quentzen dituzuna,  
erruqui zaite guzaz.

Jaungoicoaren Bildots, mundu-  
co becatuac quentzen dituzuna, er-  
ruqui zaite guzaz.

Jaungoicoaren Bildots, munduco  
becatuac quentzen dituzuna, igu-  
zu barrungo eta campoco paquea.

DOMINE, NON SUM DIGNUS-EAN.

Ondo ezagutzen det, Jauna, Zu  
nere bicilecu pobrean artzearen  
diña ez naicela; baña gu zucen-  
tzeco hill nai izan cenduen ezque-  
ro, zure Erresurreccioaren misterio  
gloriatsuagatic erregutzen dizut,  
arren piztu zazula nere anima ne-  
re oitura galdu eta pecatu gucien  
sepulturatic, ceruco paradisoan i-  
piña izatea mereci dezadan. Amen.



COMUNIOAN.

Atoz, pecatarien zucentzallea, gure gaitzen sendatzallea: atoz, argalen sendotasuna, erorien laguntzallea; atoz, espiritu gucien artean gucziz santua: atoz, eta erruqui zaite nizaz. Amen.

COMUNIOAREN ONDOREN.

Gurutzean beñ ofrendatu cenduen sacrificioa bera egun gucietan aldarean berritzen dezun Jau-na, arren eguizu misterio andi o-yec celebratzen ditugun aldi ba-coitzean, guc zure erredencioaren frutu berri bat artzea. Amen.

AZQUENECO ORACIOETAN.

Adi itzazu, ene Jaungoicoa, nere erregu escariac, eta utzi zazu Zuri escatzen, adi nazazula.



Urricaltsu eta onguillea, arren e-  
tzatzaizquit aguertu biotz gogor,  
eta ez nazazu enzungabe utzi ne-  
re pecatuac dirala bide; onez ar  
itzazu, Jauna, zure serbitzari onen  
erregu escariac, eta indazu dese-  
dedana Maria Doncella gloriatsua-  
ren eta Santu gucien bitartecotza  
eta merecimentuacgatic. Amen.

BENDICIORACO.

¡Oh Trinitade chit santua, ne-  
re Jaungoicoa, gucia dezazu quean  
Jaungoicoa! guc gure Jaun eta  
Jabe bacartzat Zu ezagutzea on-  
tzat artu, eta sacrificio au gogoco  
izan bequizu. Millaca esquer  
dizquitzugu, Trinitade adoragar-  
ria, ezpañaz, biotzaz eta gure  
almen eta potenci guciaz; ez



gaitzazu bialdu cere bendicio santua guri emangabe. Amen.

**AZQUENECO EBANGELIOAN.**

¡Lurreco aldaretic ceruraño goratzen ceran nere Jaungoicoa, gurre ofrenda eta zure odola Aita Eternoari aurrean ipintzeco! eracar itzazu cereganonz sacrificio onetan parte artu degunon biótzac, Zugan egon gaitean, Zugatic ezpada bici ez gaitean, eta Zuretzat ezpada ecer eguiñ eztezagun, Zuretzat secula gucien seculetan bici ceranarentzat. Amen.

**MEZA ONDOAN**

**JAUNGOICOARI EZQUÉRRAC EMATECO**

**ORACIOA.**

Gucia dezazuquean nere Jaun eta Jaungoico iru personatan bat



cerana, beticoa eta neurrigabea ce-  
rana, gauza guciac baño len ciña-  
na, eta diran gucietan izango eta e-  
gongo cerana, secula gucietan ala-  
batua eta bedeincatua ceran Jaun-  
goicoa, alabánzac, bendicioac eta  
esquérac ematen dizquitzu nere  
anima gañoac ere gaur egun one-  
tan zure escu jaungoicozotic ar-  
tutaco on eta mesede guciacgatic,  
batez ere ceren ecerezetic sortu e-  
ta cere odol chit preciotsuaren cos-  
tura erosi cenduen. Arren zucen-  
du eta gobernatu itzazu, Jauna,  
beti nere sentidu eta lan guciac,  
zure borondatearen erara, bacar-  
ric Zugatic bici nadiñ, secula gu-  
cien seculetan bici ceran orrega-  
tic. Amen.



---

---

**SACRAMENTU  
CHIT SANTUAREN  
BEDERATZI-URRENA.**

---

**LENENGO EGUNA.**

*Asiera ematen zayo esanaz: Izan bedi secula guciraco bedeincatua eta alabatua Aldareco Sacramentu chit Santua, eta Aingueruen Erreguiña chit garbi Maria guciz Santa, Jaungoicoaren Ama, eta gure Echeoandre bere izate chit garbiaren asieratic jatorrizco peatuaren cutsugabe sortua. Amen.*

**CONTRICIOZCO ACTOA.**

¡ Jesus sacramentatu chit gozatsua, norengan sinistean dedan, no-



rengan nere uste eta esperanza  
daucadan, nor adoratzén dedan,  
eta gauza guciac baño maiteago  
dedan! Zu ofenditzeaz damuric  
miñenaz beteta, zure óñetara eta  
zure aurre chit santuan jartzera  
nator, ceruaren aurrean eta zure  
contra pecatu eguiñ dedala ezagu-  
tuta: eta Zu cerana ceralaco, onta-  
sun ondogabea, biciro damu det  
Zu ofenditu izanaz. Ar zazu, Jau-  
na nere pecatuen damu miña, eta  
gueitu eta osatu zazu, gueyagoren  
gueyago Zu ez ofenditzeco, eta  
bear becela confesatzeco eguiten  
dedan asmo eta propositua sendo  
eta irauncorra izan dediñ. Eta e-  
guiño didazula uste dedan urri-  
caltasunaren ezagüerán, cere adis-  
quidetasunera ni artuaz, Sacra-



mentu chit Santuan Zu adoratzea eta onratzera emateco asmo sendoa eguiten det, non alabatu eta bedeincatuco zaitudan nere bici gucian. Amen.

*MEDITACIOA. Egun onetacoa izango da amaicagarren eguneco Sacramentu chit Santuari bisita 117-garren orrian. Bisit hura eguiñ ondoan, errezatzen da Sacramentu chit Santuaren estacioa.*

FEDEZCO ACTOA.

Jesus chit amoriotsua, amorio piñenaren señale eta pruebac eman cizquidatzun, demonioaren morrontza gogorretic ni ateratze-co cere odol chit preciotsua išuriaz, eta gurutze lotsagarri batean hillaz; baña zure amorio cabugabeari au asco izan etzizayon. Puntu batean ere bere seme mai-



teacgandic aldeguiñ nai eztuen Aita amoriotsuac becela, gure artean gueratu nai izan cenduen Aldareco Sacramentu miragarrian, eta emen zaude, eguiaz eta benaz ceruan Aita Eternoaren escuialdean zauden becela. Bai, au eguiaz eta beguiaz sinisten det, nere Jaun eta Jabea, bicitu zazu, bada, misterio onetan nere fedea, eta egui zu nic bicitza onetan nere biotz gucitic misterio au beti aitortzea, guero zure eztitasun zoragarriac ceruan gozatu al izateco. Amen.

MARIA CHIT SANTARI ORACIOA.

¡Nere Echeoandre eta Ama laz-tana, cristauen laguntza, pecatarien gordelecua, eta naigabe eta penetan daudenen poz atseguña !



Zure biotzác eta zure Seme mai-  
tearenac alcarri cioten amorio i-  
racequiagatic, irichi zadazu nere  
Jesus laztanari areistian escatu  
diodan mesedea. Gañera eguizu,  
Birgiña chit santa, nere Salbatza-  
lle jaungoicozcoaren onguinai eta  
amorio ondogabeari nic ondo e-  
ranzutea. Eguizu cere bitarteco-  
tza indartsu eta eraguillea gucia  
dezaquean Jaunaren aurrean. Eliz  
Ama Santa eguiazco eta guciona-  
ren paque eta aurrerapeneraco.  
Bai, Andrea, esca zazu, triunfa de-  
zala laster bere etsai guciacgan-  
dic, alabaña ezta ueatuco zure es-  
carietara zure errayetaco Semea,  
Esca zayozu, ene Ama, Aita San-  
tuaren libertadea, eregeen dotriña  
galgarrien galera, fedegabeen con-



bersioa, pecatarien damua, justuen iraupena eta gure erreinu cristauaren paque eta zori ona. Escayozu iraun dezala españatarren artean, bacarric gure Eliz Ama Santa eguiazco bacarraren contra emana dagoen, eta onec oso, acatsgabe eta bere garbitasunean cinto gordetzen duen fedearen locarri atseguñac.

Ama chit amoriotsua, arren aditugabe ez utzi umiltasun guciaz zure amparopera datocen, zure laguntzac escatzen dituzten, eta zure bitartecotza billatzen dutenen oracioac. Zure Seme jaungoicozcóac semetzat eman cizquitzunai batez ere, diezun ongui nai eta amorio iracequian sendotzen dan uste eta esperanza oso eta seguruz beteta,



bada, escatzen dizut, enzun ditza-  
zula biotz biguñaz nere erregúac,  
eta zure balimentu indartsuan fia-  
tuta, uste det, ontzat artuco ditue-  
la secula gucietaco Erregueac, nor  
Zuc aibat, oh nere Ama, seculan  
iñore maitatu etzuen, eta nor nic  
ere berotasun guciaz maitatu nai  
nuquean, bicitza onetan, eta gue-  
ro secula gucian ceruan. Amen.

ESQUERREN EMANERA.

Millaca esquer, Jaun chit amo-  
riotsua, eguiten dizquidatzun aim-  
beste on eta mesedegatic, esqueñ-  
tzen dizquidatzun eztitasunacga-  
tic, eta aguertzen dizquidatzun on-  
guinai eta amorioaren aimbeste  
señalegatic. Arren, eguizu, nere  
Jesus ona, nic biciera garbi eta



santu batez nere esquer eta eza-  
güera ona Zuri aguertzea, eta in-  
dazu Zure laguntzaren bidez da-  
tozquidan burutacio ónac aurrera  
eramateco gracia. Amen.

*Ala eguiñ nai duten cristauac  
azquendu lezaquee egunoroco bede-  
ratzi-urren edo nobena, nobena be-  
ronen azquenean dauden, Sacra-  
mentu chit Santuari erregu eta o-  
raccioac eguiñaz.*

## BIGARREN EGUNA.

Izan bedi secula guciraco bede in-  
catua eta alabatua, etc. *bederatzi-  
urrenaren asieran dagoen becela.*

*Prestaeraco oracioa aurreneco egu-  
neco.*

**MEDITACIOA.** *Sacramentu chit Santua-  
ri amalaugarren eguneco bisita 140-  
garren orrian.*



ESPERANZAZCO ACTOA.

¡Jesus chit amoriotsua! Zu cera nere gordelecu, nere poz atseguin, nere atseguin contentua, aitaric biguñena, maitatzalleric leyalena, adisquideric cariñotsuena. Eguia oyec ondo ezagututa, Jauna, nere biotz guciaz eta nere anima guciaz zure amorio ondogabeari bear be-cela eranzuteco gracia indartsu eta eraguillea emango didazulaco us-te osoan nago, bicitz onetan zure seme (edo alaba) umillena, eta zure maitatzalleric leyalena izanaz, ceruetaco erreinuan ere ala izate-co. Amen.

*Escatzen da irichi nai dan mesedea.*

*Maria chit Santari oracioa 363 gar-ren orrian.*



*Esquerren emanera 366-garren or-  
rian.*

## IRUGARREN EGUNA.

Izan bedi secula guciraco be-  
deincatua eta alabatua, etc. *Bede-  
ratzi-urrenaren asieran dagoen  
becela.*

*Prestaeraco oracioa, aurreneco equ-  
neco.*

MEDITACIOA. *Sacramentu chit Santuari  
bigarren eguneco bisita 46-garren or-  
rian.*

## AMORIOZCO ACTOA.

¡Jesus chit amoriotsua! Nere a-  
nimaren eta biotzaren barrun-bar-  
rundic maite zaitut, guero eta mai-  
teago izan nai zaitut, eta zure a-  
morio ondogabeari obeto eranzun  
nai diot. Nere Jesus laztana, Zuc  
gucia oso nere izan naizun ezque-



ro, nic ere naizen guci au oso zure izan nai det, eta zure amorio jaungoicozcoaren suan iracequia egon nāi det, nere biotza zurearequiñ batua egon dedineraño. Bai, Jesus chit amoriotsua, arren egui-zu nic Zu berotasun guciāz maitatzea, bicitza onetan, guero ceruco beticoan gueratugabe maitatzeco. Amen.

*Escatzen da irichi nai dan mesedea.*

*Maria chit Santari oracioa 363-garren orrian.*

*Esquérren emanera 366-garren orrian.*

## LAUGARREN EGUNA.

Izan bedi secula guciraco bedeincatua eta alabatua, etc. *Bederatzi-urrenaren asieran dagoen becela.*



*Prestaeraco oracioa aurreneco egu-  
neco.*

**MEDITACIOA.** *Sacramentu chit San-  
tuari oqueita laugarren eguneco bisita  
223-garren orrian.*

**CHARQUERAC NOLEREBAIT ORDAINTZECO  
ACTOA.**

¡Jesus chit amoriotsua! ¡Bada-  
teque Zure amorioaren Sacramen-  
tu adoragarri orretan Zuri aimes-  
te bidegabequeri eta charqueri e-  
guiñaz Zu aimeste ofenditza?  
¡Badateque, nere Jesus laztana,  
zure onguinai eta amorio biguñari  
onela eranzuten diotenetaco bat  
nerau izatea? Barcacioa, Jesus  
chit gozoa, barcacioa, bada nere  
aldetic aguintzen dizut maiteco  
zaitudala, eta biotz biotzetic maite  
zaitut, adoratu nai zaitut, eta zure



Majestade jaungoicozcoac ematen didan beguiramentu eta errespetoric andienaz adoratzzen zaitut, aldareco Sacramentu chit Santuan eguiten zaizquitzun charqueri itsusiac alic onguien ordantzeco. Modu onetan bicico naiz beti Zurequiñ batua bicitza onetan eta bestean. Amen.

*Escalzen da irichi nai dan mesedea.*

*Maria chil Santari oracioa 363-garren orrian.*

*Esquerren emanera 366-garren orrian.*

## BOSTGARREN EGUNA.

Izan bedi secula guciraco bedeincatua eta alabatua, etc. *Bederatzi-urrenaren asieran dagoen becela.*



*Prestaeraco oracioa, aurreneco eguneco.*

MEDITACIOA. *Sacramentu chit Santuari oquei ta batgarren eguneco bisita 198-garren orrian.*

UMILTASUNEZCO ACTOA.

Jesus chit amoriotsua, ¿norc zure amorioaren Sacramentu orretan Zu icusita, esango luque, ceru-lurrac gobernatzan dituen bera cerala, itz batean ceru guciac eta mundu gucia gobernatzan dituzuna bera? ¡Oh biotzeco umiltasun eguiazcoenaren ispillu bicia! eta guciac ere ¡ceñ guchi probechatzen naicen, ene Jesus, zure eracutsiaz! Baña Sacramentu adoragarri orretan añ argui eta garbi chartzat ematen dituzun ezquero nere andi-ustea, nere arrotasuna, nere bu-



ruaganaco amodio eragabea, be-  
realatic ezagutzen det, eta aitor  
det, Jauna, utsa naicela, eta utsa  
balio dedala, nic dedan gucia Zu-  
gandic artu dedala, eta Zugabe e-  
cer eztezaquedala. Arren eguizu,  
ene Jesus gozoa, nic egui oyec  
nere adimentuan josiac beti era-  
biltzea, ni beti manso eta biotzez  
umill izatea, Zure antzeco izanaz,  
secula gucietan Zugan bici nadiñ.  
Amen.

*Escatzen da irichi nai dan mesedea.*

*Maria chit Santari oracioa 363-gar-  
ren orrian.*

*Esquerren emanera 366-garren or-  
rian.*

## SEIGARREN EGUNA.

Izan bedi secula guciraco be-  
deincatu eta alabatua etc. *Bedera-*



*tziurrenaren asieran dagoen becela.*

*Prestaeraco oracioa, aurreneco eguneco.*

MEDITACIOA. *Sacramentu chit Santuari oqueita irugarren eguneco bisita 214-garren orrian.*

### OBEDIENCIAZCO ACTOA.

¡Jesus chit maitatsua! ¿Nigandic cer naizu? Zuc maite nazun becela maita zaitzadala, eta Zu galtzera baño len gañeraco gucia galdu nayago dezadala. Obeditu nai dizut, bada, Zuc cere Aita Eternoari obeditu ciñion becela. Gueyagoren gueyago gogor eguiñ nai eztiet zure argui santuai, erio-tzeraño obediencia gorde nai dizut. Aguindu zazu, bada, Jauna, eta bereala obedituco dizut. Nere gloria eta onra andiena Zuri obe-



ditzea da, nere zale, deseo eta di-  
cha bicitza onetan, eta secula gu-  
cian ceruan biotz guciaz Zu mai-  
tatzea. Amen.

*Escalzen da irichi nai dan mesedea.*

*Maria chit Santari oracioa 363-gar-  
ren orrian.*

*Esquerren emanera, 366-garren or-  
rian.*

## ZAZPIGARREN EGUNA.

Izan bedi secula guciraco be-  
deincatua eta alabatua, etc. *Bede-  
ratzi-urrenaren asieran dagoen be-  
cela.*

*Prestaeraco oracioa, aurreneco egu-  
neco.*

**MEDITACIOA.** *Sacramentu chit San-  
tuari amargarren eguneco bisita 108-  
garren orrian.*



JAUNGOICOAREN BORONDATAERA EGOTECO  
ACTOA.

¡Jesus chit amodiotsua! ariñ itza-  
zu nere eramankizúnac, urrutira  
itzazu nigandic ezbear eta gaitz gu-  
cíac, beñgoan acaba zazu aimbeste  
bider nere espiritua illuntzen duen  
naigabe eta pena. Bai nere Jesus,  
iñoiz ere agortzen eztan ontasunez-  
co iturria, indaiz quidatzu biotz-  
biotzetic escatzen dizquitzudan  
mesede oriec. Baña nic mereci ez-  
paditut mesede oriec, onembes-  
terañoco on bat gabe utzi nai  
banazu, eguizu, Jauna, nizaz go-  
gocoen zatzuna, bada gucian zure  
borondate santura jartzen naiz;  
baña beintzat utzi zadazu nere  
penac Zuri aguertu eta nere bar-



rua lasaitzen. Orañ orañ becela legortu nai ezpadezu nere negarra, beintzat utzi zadazu zure aurrean negar au isurtzen. Nere gaitzac creaturai contatzera joan nai eztet; bacarric Zuri aguertu nai dizquitzut, ceren Zuc eguiaz eta benaz maite nazun, eta ceren nic ere biotz biotzetic maite zaitudan, bicitza onetan, beticoan maitatze-co. Amen.

*Escatzen da irichi nai dan mesedea.*

*Maria chit Santari oracioa 363-garren orrian.*

*Esquerren emanera, 366-garrenean.*

## ZORTZIGARREN EGUNA.

Izan bedi secula guciraco be-deincatua, etc. *Bederatzi-urrenaren asieran dagoen cecela.*



*Prestaeraco oracioa aurreneco egu-  
necoa.*

*MEDITACIOA. Sacramentu chit San-  
tuari zazpigarren eguneco bisita 83-  
garren orrian.*

SEME BATEN AMORIOZCO ACTOA.

¡Jesus chit amodiotsua! Aitaric  
gozatsuena cera, eta zure seme-  
alabai zori ona añ biciro opa die-  
zuna, nun inolaco beguiramentu  
gabe berac gatic aimbeste eraman  
eta hill ciñan; eta guci onen da-  
muz ere, nic secular eranzun ez-  
tiot, bear nuquean, eta eguiñ ne-  
zaquean becela Zure onguinai eta  
amodio azquengabeari.

Biotz-biotzetic damu det au, ne-  
re Aita chit maitea, barca zadazu,  
secular gueyago esquergabe izan-  
go ez naitzazuta. Gaurdanic se-



meric maitatsu eta esanguilleen izan nai det, onela eranzunaz zure amorio arrigarriari, aitaric biguñenaren amorioari, norc, bere semeac añ maite izan cituen, nun, azqueneraño maite izan cituen, orañ cerutic añ maite izanaz, nora joan nai nuquean, Zu maitatu, alabatu eta bedeincatzeco, secula gucien seculetan.

*Escatzen da irichi nai dan mesedea.*

*Maria chit Santari oracioa 363-garren orrian.*

*Esquérren emanera 366-garren orrian.*

## BEDERATZIGARREN EGUNA.

Izan bedi secula guciraco bedeincatua eta alabatua, etc. *Bederatzi-urrenaren asieran dagoen becela.*



*Prestaeraco oracioa, aurreneco eguneco.*

**MEDITACIOA.** *Sacramentu chit Santuari oqueita amargarren eguneco bisita 277-garren orrian.*

**AMORIO ANDIAZ JAUNÁC NAI DUENERA  
EGOTECO ACTOA.**

¡Jesus chit maitatsua! Zure amorio jaungoicozcoan iracequia eta sutua czpada bici bear eztet eta bici ere nai eztet. Zure Biotz Sagradua eta nereia estu-estu batuac egotea, eta amorioaren locarri au ecerc ere ez autsi al izatea da, bada, nic nai eta deseo dedana. On-do daquit, nere Jesus chit ezti-tsua, Zu cere aldetic, batasun eta alcartze onec secula gucian iraun dezan, prest zaudela; arren eguizu, bada, Jauna, ni Zugandic iñoiz ere ez urrutiratzea.



Bai, eguizu, oh nere Aita, nere biotza zurearequiñ batua beti ego-  
tea, bera sututzen duen amodio  
ondogabearen beroan beti bicitzea.  
Bai nere Jesus gozatsua, zure  
Biotz jaungoicozcoaren amodioa  
izan bedi nere amore; Zuc nai de-  
zun eta maite dezuna baicic nic  
nai eztezadala eta secular maita  
eztezadala. Guci au zurea naiz eta  
izango naiz, beti ala izan nai det,  
Zu guci ori nereea ceran ezquero.  
Au da nere zale eta deseoa, nere  
asmo sendoa, oh nere Jesus, Zu-  
requiñ estu-estu batua bicitzea, bi-  
citz onetan eta beticoan. Amen.

*Escatzen da irichi nai dan mesedea.*

*Maria chit Santari oracioa 363-gar-  
ren orrian.*

*Esquerren emanera 366-garrenean.*



## SACRAMENTU CHIT SANTUARI

### ERREGU-ESCARIAC.

Cerutic jechi ciñan ogui bicia,  
Jaungoico ezcutatu eta Salbatzallea,  
Ceruco esleituen janaria,  
Birgiñac sortzen dituzun ardoa,  
Ogui indarsu eta Erregueen erregalooa,  
Betico sacrificioa,  
Ofrenda garbia,  
Mancha gabeco Bildotsa,  
Mai chit garbia,  
Aingueruen janaria,  
Jaungoicoaren mirarien oroipena,  
Indar guciac berequiñ dituen oguia,  
Jaungoicoaren seme, aragviz jantzia,  
Zuc, gurequiñ bici cerana,  
Ostia santua,  
Bendiciozco caliza,  
Fedeco Misterioa,

ERRUQUI ZAITTE GUZAZ.



Sacramentu guciz andi eta beneragar-  
ria,

Sacrificio gucien santuena,

Biciac efa hillen alde eguiatz nai gucia  
iristen dezuna,

Gu pecatuetatic gordetzen gaituen,  
ceruco sendagaya,

Mirari gucien gañeco birari arrigarria,

Jaunaren Pasio chit sagraduaren oroi-  
pena,

Ondasun guciai gañez eguiten dien  
doaya,

Jaungoicoaren amodioaren gogoracai  
andiená,

Jaungoicoaren escu onguillearen uga-  
ritasuna,

Sacramentu bici-emalle, beguiramen-  
tu eta errespeto guciaren diña ce-  
rana,

Gucia dezaqueanac aragui eguiñdaco  
oguia,

Odolgabeco sacrificioa,

Janari eta combidatua,

ERRUQUI ZAITTE GUZAZ.



Aingueruac serbitzen duten gombit  
chit gozoa,  
Urriquimentuzco Sacramentua,  
Amoriozco locarria,  
Ofrendatzallea eta ofrendatua,  
Iturrian bertan proगतutaco eztitasun  
espiritucoa,  
Anima justuen janaria,  
Jaunagan hiltzen diranen bideraco ja-  
naria,  
Uste degun gloriaren prenda,  
Izan zaquizquigu gure alde, barca za-  
guzu, Jauna,  
Izan zaquizquigu gure alde, enzun  
gaitzazu, Jauna,  
Gaizqui eguiñdaco Comuniotic,  
Araguiaren zale eta deseotatic,  
Beguien zale eta deseo eragabetic,  
Bicitzaco andiuste edo soberbiatic,  
Pecatu eguiteco gai eta bide gucitic,  
Pazcoa au cere icasleaquiñ jateco idu-  
qui cenduen zale eta deseo argatic.  
Icasleai oñac garbitzean iduqui cen-

ERRUQUI ZAITTE GUZAZ.  
LIBRA GAITZAZU JAUNA



duen umiltasun andiagatic,

Sacramentu jaungoicozco orren egui-  
tean iduqui cenduen amorio irace-  
quiagatic,

Aldarean utzi ciguzun odol precio-  
tsuagatic,

Gugatic artu cinduen, Zure gorputz  
sagraduco bost llágacgatic,

Guc peccarioc,

Arren gueitu eta gorde zazula guban  
Sacramentu miragarri onenganaco  
sinismen edo fedea, beguiramentu,  
edo erreberencia eta debocioa,

Arren eraman gaitzazula peccatuen  
confesio eguiazcoaren bidez, maiz  
comulgatzera,

Arren libra gaitzazula eregeen do-  
triña galgarri, desleyalqueri eta bio-  
tzeco itsumen gucitic,

Arren diguzula parte Sacramentu  
chit Santu onen frutu preciotsu eta  
cerucoetan.

Arren indartu eta sendotu gaitzazula

ERREGUTZEN DIZUGU  
LIBRA GAITZAZULA.

ERREGUTZEN DIZUGU ADI GAITZAZULA.



gure eriotzeco orduan Bideraco ceruco janari onequiñ,

*Aita gurea, etc,*

Eman diezu ceruco oguia,

Eztitasun gucia berequiñ daucana,

Bedeincatua cera, Jauna, ceruetan,

Ematen zaizquitzun alabancen eta secula gucietan goratua eta gloriatua izatearren diña cera.

Jauna, adi zazu nere oracioa.

Eta irichi bedi Zugana nere deadarra.

### ORACIOA.

Zure Pasioaren oroipena Sacramentu miragarri orretan utzi ciguzun, Jaungoicoa, arren eguiguzu guc alatan beneratzea zure gorputz eta odolaren misterioac, nun zure erredencioaren frutua beti guerongan progatuco degun. Espiritu Santuarequiñ batera Jaungoico Aitarequiñ bici ceran eta erreinatzen dezun Jaungoicoa, secula gucien seculetan. Amen.

ERREGUTZEN DIZU.  
GU ADI GAITZAZULA



---

---

## SACRAMENTU

CHIT SANTUARI EGUITECO LIBURU ONEC DAZQUIEN DEBOCIOZCO LÁNAI EMANAC ZAIZTEN INDULGENTZI EDO BARCACIOAC BATERA BILDUAC.

BERROGUEI ORDUETACO ORACIORACO AGUIRIAN DAGOENEAN Sacramentu chit santua bisitatzea.—Aita Santu Clemente VIII.nac eman cituen indulgenciac, Jauna aguirian dagoen artean oracio eguiten dutenen alde, eta gueroago Paulo V.nac *Cum felicis recordationis* deritzan bere Bulda, 1606-garren urteco Mayatzaren 10.an emandacoan, indulgentzi oec ontzat eman cituen, Indulgentzi oyec *dira: oso edo plenaria*, confesatu eta comulgatu, eta Sacramentu chit Santua aguirian dogoen artan, al dezaqueen demboran, debocio andiaz eliza bat bisitatzen dutenentzat, eta *amar urte eta amar*



*berroquei aldico* beste bat eguiten duten bisita bacoitzagatic, confesatzeco asmo sendo eta eguiazcoarequiñ, eta gañera indulgentzi oyec eman litezque *purgatorioco animen alde*, Pio VII.nac 1817-garren urteco Mayatzaren 12.an eman cituen letren erara.

Iru igandez garizumaren aurreco igandetic asita Austerri eguneraño *aguirian dagoen elizan Jauna bisitatzea*.—Clemente XIII.nac 1765-garren urteco Uztaillaren 23.an emandaco letren bidez betic *indulgentzi oso edo plenaria* eman zuen, confesatu eta comulgatu, eta *munduco cristauen cernai elizatan* Septuagésima, Sexagésima edo Quincuagésimaco asteetaco bacoitzean edo beretaco batean iru egunez Jauna aguirian dagoenean bisitatzen dutenen alde, eta au, Austerri eguneraño, egun au camporatzen dala, nola ta Ostegun guicen esan oizayon egunean aguirian dagoenean bisitatzen dutenen alde.



ORDU SATUA. Ostegun Santu egunean, Corpus Cristico fest-egunean, eta urteco gañeraco ostegunetan.—Pio VII.nac 1815-garren urteco Otsaillaren 14.<sup>an</sup> eta 1816-garreneco Apirillaren 6.<sup>an</sup> eman cituen letretan, betico *indulgentzi oso edo plenaria* ematen du, Ostegun Santu egunean, aguirian edo naiz bacarrean Sacramentu chit Santua eguiñ edo ipiñi zane-co oroipenean ordu betean debocioren bat eguiten dutenen alde, egun artan, edo urrengo asteco cernai egunetan confesatu eta comulgatuaz, eta au bera Corpus egunean; eta 300 egunecoa urtearen gañeraco ostegunetaraco, beren becatuaz damutu eta ejercicio au eguiten dutenen alde. Indulgentzi ayec ere eman litezque *purgatorioco animen alde*.

MONUMENTUA BISITATZEA. Pio VII.nac 1815-garren urteco Marchoaren 7.<sup>an</sup> eman cituen letren bidez, ematen ditu betico Ostegun santu egunean edo Osti-



tiral santuz monumentua cerbait dembo-  
 ran bisitatzen dutenen alde, Aita San-  
 tuac nai dituen gaucetaraco erregutuaz,  
 Berroguei Orduetaco oracioraco agui-  
 rian dagoenean Sacramentu chit San-  
 tua bisitatzen badute, irabacico lituz-  
 queen indulgentzi berac, au da, *Ostegun  
 santuz* edo *Pazcoa egunez* confesatu eta  
 comulgatuta beñ *indulgentzi oso edo  
 plenaria*, eta *amar urte* eta *amar ber-  
 rogueico* indulgentzia, confesatzeco asmo  
 eguiazcoaz monumentua bisitatzen du-  
 ten aldi bacoitzean Indulgentzi oyec ere  
 purgatorioco animen alde irabaci litez-  
 queanac dira.

PANGE LINGUA, etc. deritzan Himnoa,  
 edo ta *Tantum ergo Sacramentum*, etc.  
 —Pio V. na Indulgentzien C. S. letra *Ur-  
 bis et Orbi* deritzanetan dembora gucie-  
 taraco 300 eguneco indulgentzia ematen  
 du, egunean beñ irabaci litequeana, bere  
 pecatuaz damutu, eta *Pange lingua glo-  
 riosi*, etc. bere bersocho eta Sacramen-



tu chit Santuaren oracioaquiñ debocioaz errezatzen dutenen alde, eta 100 egunecoa, bacarric *Tantum ergo Sacramentum*, etc. esan diran bersocho eta oracioaquiñ errezatzen dutenen alde. Eta *Pange lingua*, etc. edota *Tantum ergo*, etc. esan dan becela, maiz edo beintzat ill bacoitzean amar bider errezatzen dutenai *indulgentzi oso* edo *plenaria* ematen die *Ostegun santu eguneraco*, *Corpus Cristiren* fest eguneraco, edo bere zortzi-urreneco egun bateraco, edo berac auqueratzen duen beste cernai egunetaraco, baldiñ orrelaco egunean confesatu eta comulgatu, eta bisitatzen badute elizen bat, Aita Santuac nai dituen gaudetaraco erregutuaz, eta indulgentzi o-yec purgatorioco animen alde irabaci litezqueanac dira.

SACRAMENTU CHIT SANTUARI *eguiten* zaizcan *bidegabequeri* edo *charqueriac nolerebail ordaintzeco* ACTOAC.— Pio VII. nac 1815-garren urteco Ilbeltzaren



21.<sup>an</sup> eman cituen letretan 200 eguneco indulgentzi, purgatorioco animen alde irabaci litezqueanac eman cituen, *Jesus Sacramentaluari eguiten zaizcancharqueri itsusiac nolerebait ordantzeco* liburu onen 301-garren orrian dagoen oracioa, beren pecatuaz damututa, erre-zatzen dutenen alde, eta indulgentzi au Leon XII.<sup>nac</sup> sendotu eta ontzat eman zuen 1828-garren urteco Aguztuaren 13.<sup>an</sup> eman cituen letren bidez.

*Maiz comulgatzea, eta Sacramentu chit Santua adoratzea.* Gregorio XIII.<sup>nac</sup> 1580-garren urteco Apirillaren 10.<sup>an</sup> eman cituen letra *Ad excitandum*, itz oyequiñ asitzen diranen bidez betico *bost urteco* indulgentzia ematen du, jai egunetan confesatu eta comulgatu, eta Aita Santuaren intencioraco erregutzen dutenen alde; eta au illean beñ, eta Jesucristo gure Jaunaren pestegun andietan, eta bere Ama chit Santarenetan, Apostolugucienetan, eta Garagarrillaren 24-gar-



reneco san Juan egunean eguiten dutenen alde, 10 urteco indulgentzia; eta urtean beñ indulgentzi oso edo plenaria errico Patroyaren pestegunean, baldiñ, len esan dan becela erregutzen bada.

Guero Pio VII.nac Indulgentzien Congregacioac *Urbi et Orbi* itz oyequiñ asiera emanaz, 1819-garren urteco Abenduaren 7.<sup>an</sup> eman cituen letren bidez, ematen ditu betico 100 eguneco indulgentzi, purgatorioco animen alde irabaci litezqueanac, Ostia consagrata mezan goratzean an egon eta pecatu guciaz damutu eta debocioaz errezatzen dutenai ondo-rengo oracio laburra:

Puntu eta une gucietan bedeincatua eta alabatua izan bedi Sacramentu chit Santu eta jaungoicozcoa.

SACRAMENTU CHIT SANTUA *Ostegunetan bisitatu eta ondoren dagoen RESPICE, DOMINE, etc.* itz oyequiñ asitzen dan oracioa errezatzea. Pio VI.nac 1796-garren urteco Urriaren 17.<sup>an</sup> eman cituen



letren bidez *betico indulgentzi oso edo plenaria* ematen du, bere pecatuaz damutu, confesatu eta comulgatu eta ill ba-coitzeco *lenengo ostegunean* Sacramentu chit Santua bisitatzen dutenen alde, naiz aguirian, naiz sagrarioan gordea egon dedilla, eta *Respice Domine* etc. errezatzen badu, Jaungoicoaren urricaltasuna iristeco, gañera Eliza santaren premiatic, etc. erregutuaz. Eta beste *cernai ostegunetan*, esan dan becela, Sacramentu chit Santuaren aurrean oracio berau belaunico errezatzen dutenai, zazpi urte eta zazpi berrogeico indulgentzia ematen die, eta eun eguneco beste bat beste cernai egunetan, esan dan becela, eta biotz damutuaz errezatzen dutenai. Indulgentzi oyec ere purgatorio-co animen alde eman litezqueanac dira.

ORACIOA.

Respice, Domine, de sanctuario tuo et de excelso cœlorum habitaculo, et vide



hanc sacrosanctam Hostiam, quam tibi offert magnus Pontifex noster sanctus puer tuus Dominus Jesus pro peccatis fratrum suorum et esto placabilis super multitudinem malitiæ nostræ. Ecce vox sanguinis fratris nostri Jesu clamat ad te de cruce. Exaudi, Domine placare, Domine attende et fac, ne moreris propter te metipsum. Deus meus, quia nomen tuum invocatum est super civitatem istam et super populum tuum, et fac nobiscum secundum misericordiam tuam. Amen.

---



## ARQUIBIDEA.

---

GARREN ORRIAN.

---

Sacramentu chit Santuaren bisitai sar-  
rera. . . . . III

### SACRAMENTU CHIT SANTUARI, MARIA CHIT SANTARI ETA SAN JOSERI VISITAC.

Gogozco comunio edo comunio espiri- tuala. . . . .	23
Gogoz edo espirituz comulgatzeco ora- cioa . . . . .	27
Egun gucietan bisita asitzeco oracioa.	29
Bisita bien ondoren Maria chit Santa- ri egun oro eguiñ bear zayon escaria.	33
San Joseri bere bisitaren azquenean .	35
Lenengo eguna. . . . .	37
Bigarren eguña. . . . .	46
Irugarren eguna. . . . .	54
Laugarren eguna. . . . .	61
Bostgarren eguna. . . . .	68
Seigarren eguna. . . . .	76
Zazpigarren eguna . . . . .	83
Zortzigarren eguna. . . . .	92



Bederatzigarren eguna . . . . .	100
Amargarren eguna . . . . .	108
Amaicagarren eguna. . . . .	117
Amabigarren eguna . . . . .	124
Amairugarren eguna. . . . .	131
Amalaugarren eguna. . . . .	140
Amabostgarren eguna . . . . .	148
Amaseigarren eguna . . . . .	156
Amazazpigarren eguna . . . . .	164
Emezortzigarren eguna . . . . .	172
Emeretzigarren eguna. . . . .	180
• Ogueigarren eguna.. . . .	189
Ogueita batgarren eguna. . . . .	198
Ogueita bigarren eguna. . . . .	206
Ogueita irugarren eguna. . . . .	214
Ogueita laugarren eguna. . . . .	223
Ogueita bostgarren eguna, . . . . .	232
Ogueita seigarren eguna. . . . .	240
Ogueita zazpigarren eguna. . . . .	249
Ogueita zortzigarren eguna . . . . .	258
Ogueita bederatzigarren eguna . . . . .	267
Ogueita amargarren eguna . . . . .	277
Ogueita amaicagarren eguna. . . . .	286
Berroguei orduac.—Berroguei ordue- tan Jesus Sacramentatua bisitatzeco. eta ejercicio santu au eguiten dute- nai emandaco indulgentziac irabaz- teco modu egoquia. . . . .	298



Sacramentu chit Santuari eguiten zaizcan charqueri itsusiác alic on- guien ordaintzeco Aita santu Paulo VII.-nac ontzat emandaco oracioa .	301
Sacramentu chit Santuaren onran Eli- zac cantatzen dituen himnoac lati- ñez eta eusqueraz. . . . .	304
Confesioco eta comunioco Sacramen- tuac. . . . .	312
Comulgatzeraco eguiñ bear diran ac- toac . . . . .	316
Comulgatu ondoraco actoac . . . . .	326
Meza santua probechu andiaz enzute- co cristauaren jardunbidea. . . . .	337
Sacramentu chit Santuaren Bederatzi- urrena. . . . .	360
Sacramentu chit Santuari erregu-esca- riac . . . . .	383
Sacramentu chit Santuari eguiteco li- buru onec dacaizquien lánai emanac zaizten indulgentzi edo barcacioac batera bilduac . . . . .	388



